

puntuak
+ Suizidioak tabu izaten jarrai ez dezan, elkarlanean
Diez eta Etxenike zientzialariei elkarriketa

EKIMENAK EKIMEN, AZOKA PLAZAK IRAUTEKO LARRI

Eskualdeko hiru herri handienetan daude azoka plazak, baina zail dute biziraupena; Arrasateko saltzaileek irtenbideak eskatu dizkiote Udalari / 2



Bezeroak eta saltzaileak Bergarako Oxirondo azokan, joan zen zapatuan, azoka egun inportanteenean. IMANOL SORIANO

Adimen urritasuna azaleratzen

Gipuzkoako Atzegi elkarteak 'Bizi nire errealitate intelektuala eta mugak hautsi' sentsibilizazio kanpaina aurkeztu du Aretxabaletan / 4

Euskadi-Murias txirrindulari taldearen desagerpenak zortzi debagoiendarri eragin die zuzenean / 38

SINADURAK

| | |
|---|---|
|  ALEX LABAIEN / 8 |  AINHOA NARBAIZA IRIZAR / 25 |
|  AITOR ORO BENGOA / 14 |  ANA GILLEGI / 33 |
|  LEIRE ELEJALDE / 17 |  LUKENE IGARTUA / 34 |
|  NEREA GORDEOLA / 23 |  AINTZANE OIARBIDE / 48 |

2mó/
graduatu, erreflexuen
aurkako lenteekin / 99€

Gure betaurreko guztiak bilduma berrietakoak dira



Otalora Lizentziaduna, 18
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE
Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

www.multioplicasgipuzkoa.com



Maria Arana 80 urte daramatza Arrasateko azokara joaten. AMAIA ZABALA



Postu bat Oñatiko azokan. IMANOL SORIANO



Saltzailea eta eroslea Bergarako azokan, zapatuan. IMANOL SORIANO

Amaia Zabala Tolosa DEBAGOIENA

Postuetako lana alde batera utzi, eta elkarretaratzea egin zuten egubakoitzean Arrasateko azokako merkatariak. Bertan, erabiltzaile ugari batu zitzaizkien, eta, *Azoka bizirik* lelopean, gaur egun azokak bizi duen "egoera kaskarra" salatu zuten.

Arrasateko Udalarari zuzendu zitzaizkion merkatariak, eta euren jarduera errespetatzea eta ordutegi murrizketarik ez egitea eskatu zuten, baita beren jarduera beste ekintzen gainetik hobestea ere. Gainera, erretiratutako udaltzainaren lekua betetzea eskatu zuten, eta azokan lan egiteko eskaerak "zaborronzira" ez botatzea ere bai. Eraikina eta instalazioak era "egoki eta garbian" jartzea eskatu zuten.

Tomas Larrañaga Antzuolako Lapatza baserriko nekazaria da eta ia 30 urte daramatza Arrasateko merkatura joaten; egun, ordea, merkatuaren egoera tamalgarria dela salatu zuen. "Arrasateko azoka erreferente izan da, baina, egun, badirudi gurekin ez dutela ezer gehiagotarako kontaktu nahi. Egun, Arrasateko Udalak gazteei etorkizun bat eskaini edo bultzada bat eman beharrean, oztopoak jartzen dizkie. Azokak behar ditugu, herritarrekin harreman zuzena nahi dugulako".

Debagoieneko azoka plazek, osasun makala

Azoken gainbehera jakina da, eta ez da kontu berria; herri batzuetan biziberritze ekimenak ere egin dira. Arrasateko merkatariak "azokaren egoera jasanezina" dela salatzeke egindako elkarretaratzearekin, ordea, pil-pilean jarri da berriro gaia

Maria Arana Elkorobarrutia baserriar arrasatearrak, berriz, 80 urte daramatza merkaturan etxeko barazkiak saltzen; eguazten eta egubakoitzetan hurbiltzen da merkatura eta 07:00etatik 13:00etara arte egoten da. "7 ur-

terekin hasi nintzen amarekin merkatura etortzen, hirugarren belaunaldia naiz, eta, zazpi seme-alaba ditudan arren, inork ez du ofizioa jarraitu nahi. Urtez urte gero eta gutxiago saltzen da, egubakoitzetan oraindik jende pixka bat ibiltzen da, baina eguaztenetako erabat galduta dago; jeneroa daukadalako etortzen naiz, saltzen dudana-gatik ez baitu merezi".

Erosleen artean ere iritzia bera da, guztiak bat datoz: merkaturaren gainbehera da. "Udalak

mila plan aipatu ditu, baina, azkenean, ez da ezer egin; gainera, postua ezarri nahi duten saltzaile berriei hainbeste exijitzen zaie, ez du merezi", dio erosle batek. "Fruta, barazkiak eta landatzeko landarea erosten

BERGARAN AZOKA BIZIBERRITZEKO EKIMENEK EZ DUTE "ESPEROTAKO EMAITZARIK" EMAN

ditut, batez ere, baina argi ikusten da beherantz doala", dio beste batek.

Garaiko produktuak bilatzera datorrela dio beste erosle batek, astero hurbiltzen da eta saltzaileekin hartu-eman zuzen hori izatea atsegin duela dio; aipatzen du lehen arrandegia ere bazutela, baina ordutik "beherakada handia" egin duela.

19 baserriarrek dute postua Arrasateko merkaturan, nahiz eta beti ez diren guztiak egoten. Egubakoitzetan 11 bat postu izaten dira eta eguaztenetan, 4 edo 5. Gehienak arrasatearrak dira, baina badira Arabatik datozenak ere. Eguneroko postuei dagokienez, txarkuteria, janari izoztu eta fruta postuak dira finkoak.

Esan behar da, Arrasaten, urteak daramatzatela azoka eta bertako produktuak indartzeko ekimen batekin: Baserriarren Azoka. Udalaren babesean, hileko hirugarren zapatu goizetan izaten da, Seber Altube plazan. Dozenatik gora postu jartzen dituzte, gehienak bertako baserriarrenak.

Bezero gazte gutxi Bergaran
Bergaran, azokaren eraikina Oxirondo plazan dago, eta, azoka egun nagusia zapatua izaten bada ere, badira egunero bertan dauden hiru postu, harategia,

garbitegia eta janari izoztuen postua, hain zuzen. Azken hone-tako saltzailea Asier Latorre da eta bederlatzi urte daramatza ofizio horretan. "Gero eta jende gutxiago ibiltzen da, ez baitago ez saltzaileen eta ez erosleen erreleborik. Oso bezero gazte gutxi daude, jakin batzuk soilik, eta postuetako asko ere erretiratu egin dira. Nik beti diot zenbat eta postu gehiago eta eskaintza zabalagoa eskaini orduan eta jende gehiago ibiltzen dela. Duela urte batzuk, eraikineko azken solairuan haurrentzako aisialdigunea ezarri zuten eta uste genuen horrek erosle kopurua igoko zuela, baina ez du askorik eragin. Herriko tabernekin elkarlanean pintxo-potea ere antolatu dute eguaztenetarako, eta talde jakin batzuk beti etortzen dira, baina ez du aparteko eraginik izan".

Oñatin, mugimendu polita

Oñatiren kasuan, zapatu goizetan egiten den berdura azoka bizi-berritzeko asmoz izen eta logo berria asmatu zituen udalak iaz, saltzaileek hala eskatuta. Horretaz gain, kultur ekintza puntual batzuk ere antolatu zituzten: bezeroen artean zozketatzeko orga bat eta opari ezberdinak, esaterako.

Oñatiko azokak zapatuetan Berdura plazan 18 postu eta arropen azokan 14 postu ditu, orotara. Aipatzekoa da arropa postuak ezartzen dituzten artean batzuek 40-50 urte daramatzatela

astero-astero Oñatira joaten. Aipatzekoa da azokako arrandegiak domeka eta astelehenetan izan ezik beste egun guztietan irekitzen duela.

"Jende asko gerturatzen da azokara eta zapatu goizetan bizitza handia egoten da. Nik esango nuke jendea gero eta kontzientea dela bertako, sasoiko eta gertuko produktuak erostearekiko. Nire kasuan, barazkiak bilatzen ditut eta bertako ogia ere gustura erosten dut, arrakasta handia du. Loreetan ere aukera handia egoten da, eta gus-

OÑATIKO ZAPATUETAKO AZOKAK "ESKAINITZA ZABALA" DUELA DIOTE EROSLEEK

tatzen zait tarteka erostea. Olibak saltzera ere goierritar bat hurbiltzen da eta erosi ohi ditut. Gainera, lekua estalia da eta haizetekin babesten du, atsegina da erosketak egiteko", dio erosle oñatiar batek.

Txikietan, denetariko egoerak

Arrasaten, Bergaran eta Oñatin azokek eraikin propioa dute, baina eskualdeko gainontzeko herrien kasuan puntu jakin batean egiten dute.

Aretxabaletan, esaterako, astelehenetan egiten dute, Gernika plazan. 08:30erako postuak prest izaten dituzte saltzaileek eta 14:00ak arte geratzen dira. Hamar bat postu daude, denera, gehienak jatekoekin eta bakar batzuk arroparekin eta oinetakoekin. Saltzaileen artean ez dago aretxa-

baletarrik; izan ere, herriz herri ibiltzen direnak dira gehienagoak.

Eskoriatzan, egubakoitzetan izaten da azoka, herriko plazan. Goizetik eguerdira bitarte irauten du eta, batez ere, janaria saltzen dute: oliba postua, fruta eta berdura postua, pastelen postua, txarkuteria furgoneta bat eta, tarteka, arropa posturen bat elkartzen dira. Ohiko lekua Fernando Eskoriatza plaza den arren, bertan ekitaldiren bat izanez gero, Santa Marina plazan egiten dute. Erabiltzaileen esanetan, ez dute ez beherakada ez

ARETXABALETAN, ESKORIATZAN, ANTZUOLAN ETA ELGETAN ERE BADUTE ASTEROKO AZOKA

gorakadarik nabaritu azken urteetan. Aipatzekoa da bigarren eskuko azoka egingo dutela urriaren 25ean herriko plazan, 18:00etatik 23:00etara bitarte, hain zuzen.

Antzuolan egubakoitzetan izaten da azoka, herriko plazan, goizetik eguerdira bitarte. "Fruta kamioi bat, pasta saltzaile bat, Lapatza baserriko baserri-tarren postua bertako produktuekin eta herriko gazte baten gazta postua egoten dira, besteak beste. 4-5 postu finko daude astero eta egun berezietan arropa eta zapatila saltzaileak etortzen dira. Herri txikia da eta ez da mugimendu handirik izaten, askok lan egin behar baitute; dena den, betiko erosleak finak dira eta batez ere, bertako produktuak erostea bilatzen dute, bertako barazkiak, hain zuzen" dio antzuolar batek.

Elgetaren kasuan, astelehen goizetan izaten da merkaturia eta urteak daramatzate saltzaile berak etortzen. "Fruta postu bat eta helduentzako arropa postu bat dira betikoak eta urte sasoiaren arabera urdaiazpiko eta gazta saltzaileak ere gerturatzen dira. Jende asko ibiltzen da", dio elgetar batek.

Aramaioren eta Leintz Gatzagaren kasuan, ez dute azokarik egiten. Aramaion, ordea, ekonomatua dute; hau da, bertako baserri-tarren produktuen salmenta puntua, herritarrak erosteko aukera izan dezaten.



500 lagun baino gehiago pentsiodunen manifestazioan

Pentsiodunek eta erretiratuek bailarako manifestazioa egin dute Oñatin, jaiak direla aprobetxatuz

Amaia Zabala Tolosa OÑATI

Pentsiodunek eta erretiratuek astelehenean egin zuten bailara mailako manifestazioan 500 lagunetik gora elkartu ziren, antolatzaileen esanetan. Astelehenero 12:00etan elkarretaratzeak egiten dituzte pentsiodunek bailarako herri gehienetan, eta baita Oñatin ere. Astelehen honetakoa, ordea, berezia izan zen, ohiko elkarretaratzeaz gain, manifestazioa ere egin baitzuten.

Bailara mailako manifestazioa izan zen, gainera, Oñatiko jaiak direla aprobetxatuz, eskualdeko

pentsiodun eta erretiratuek gain, hainbat herritar ere elkartu baitzitzaizkien. "Oso pozik gaude jendeak erakutsi duen elkartasunarekin, baina, bestalde, ikusten dugu egoera okerrera doala; KPIaren auzia, esaterako, apirileko hauteskunde ondoan konpontzea espero genuen, eta ez da horrela izan, oso kezkatuta gaude", dio Ana mari Markuleta Oñatiko pentsiodunak.

Adinekoen egoitzak

Urriaren 1ean, asteartea, Pentsiodunen Nazioarteko Eguna

izan zen; hori dela eta, astelehenetako manifestazioan, zahartzaroan ere pertsonak dituzten eskubideak errebindikatu zituzten. Oso kezkatuak agertu ziren Gipuzkoan adinekoen egoitzetan bizitzen ari diren egoerarekin; izan ere, beraien esanetan, "langileria ez badago egoera onean, bertako egoiliarrei, adineko pertsoneri, hain zuzen, zuzenean eragiten die horrek".

Espainiako Gobernua

Azkenik, Espainiako Gobernua- ren egoerarekin eta hauteskundeak errepikatzearekin haserre agertu ziren eta pentsiodunen auziari zein beste edozein kolektiboren borrokari zuzenean eragiten diola argudiatu zuten. "Denoi eragiten digu, politika marketin huts bihurtu da une honetan, eta hori ezin da onar-



Astelehenean Oñatin eginiko manifestazio jendetsua. AMAIA ZABALA

tu", zioen Markuleta. Manifestazioaren amaieran, errebindikazioen tartea izan zuten: ongizate estatuaren aldeko mezuak, KPIaren araberrako igoera, pobrezia energetikoa, adinekoen irisgarritasuna eta

eros ahalmena eta adin nagusikoen aurkako diskriminazioa eta bakardadea izan zituzten hizpide, besteak beste. Amaitzeko, urriaren 16ean Madrilan egingo den manifestaziora joateko dei egin zuten.

Irisgarritasun kognitiboa hobetu nahi du Atzegik

'Nire errealitate intelektuala bizi eta mugak hautsi' leloarekin, urritasun intelektuala pairatzen dutenen alde egiteko sentsibilizazio kanpaina jarri du martxan Atzegik. Irisgarritasun kognitiboa jomugan jarri nahi dute, horretan indarra egiteko

Maialen Santos DEBAGOIENA

Urtero legez, urria iristearekin batera jarri du martxan Atzegik sentsibilizazio kanpaina berria. Adimen urritasuna duten pertsonen egunerokoan bizi dituzten "zailtasunak ulertaraztea" eta ingurune "irisgarriagoa" eraikitzeak gonbita egin nahi dute abian jarritako kanpainaren bitartez. Elkarteak familia zerbitzuko teknikari Naroa Artolok azaldu duenez: "Adimen urritasuna duten pertsonen lekuan jartzea eskatu nahi diogu gizarteari". Bereziki, irisgarritasun kognitiboaren alorrean jarri nahi dute indarra, eta, horretarako, urritasun intelektualaren "betaurrekoak" jartzera gonbidatu nahi dute gizartea: "Jendeak zailtasun horiek ulertzea nahi dugu, eta mezu errazean alde egitea". Hala, pixkanaka, denontzat ulerterraza den ingurunea eraiki nahi dute, "mundu" errazago bat, alegia. Ingurutik ulertzeko zailak izan daitezkeen mezuak egunero jasotzen direla iritzi dute, eta diote mezu horiek are zailagoak izaten direla urritasun intelektuala duten pertsonentzat.

Bizi-kalitatean eragina

Kanpaina honen bitartez lortu nahi duten beste helburuetako

bat da desgaitasuna duten autonomia bermatzea; izan ere, mundua "ondo ulertzeko" aukera izateak beren bizi-kalitatean "eragin zuzena" duela nabarmendu nahi izan dute.

Egunerokotasunean asko dira pertsona hauek topa ditzaketen zailtasunak: jateketeak kartak, egutegiak, garraio publikoetako ordutegiak, irudi ulertezinak, eskuorri informatiboak, hauteskunde programak... dira horietako adibide batzuk.

Zailtasunak ekidite aldera, mezu errazean alde egiteko eskatu dute; izan ere, urritasuna dutenentzat bakarrik ez, "gizarte osoarentzat" lagungarriak lirateke zenbait mezu, Artolaren ustez: "Esaterako, jateketeak kartetako testutxoekin ondoan irudi lagungarri bat jartzea ondo legoke. Era horretan, esanahia hobeto ulertuko genduke guztiok".

Atzegi, datutan

Elkarte gipuzkoarrak egun 216 familia bazkide ditu, Debagoieneko Atzegiko arduradun Jokin Antxiaren arabera: "Etxe horietako bakoitzean urritasun intelektuala duen pertsona bana dago". Bestalde, 220 pertsonaren laguntza ekonomikoa ere jasotzen du elkarteak, eta 854 *atzegizale*-k dute elkartearen izena emanda.

izan ere, 2.563 pertsona zeuden lan gabe bailaran orduan.

Herriei dagokienez, Antzuolan, Aretxabaletan, Leintz Gatzagan eta Oñatin egin du gora langabeziak eta behera, berriz, Arrasaten, Bergaran, Aramaion eta Eskoriatzan. Elgetan aurreko hileko datua mantendu egin da.

Hego Euskal Herrian ere hobera egin du egoerak: 147.161 langabe izatetik 144.071ra pasa dira hilabetearen, 3.090 gutxia.

Irailean behera egin du Debagoieneko langabezia-tasak

Langabezia-tasa %7,71koa izan da Debagoienean: irailaren amaieran lanik gabeko 2.403 pertsona zenbatur dira. Aurreko hileko datuekin alderatuta, beraz, kopurua zertxobait jaitsi egin da irail hasieran 2.419 langabe zeuden-.

Aurreko urteko garai berarekin alderatuta, aldiz, %6,20 jaitsi da langabe kopurua;



Atzegi elkarteak kideak, kanpainaren aurkezpenean. TXOMIN MADINA

Hipermerkatuetan soilik

EROSKI clubekoa
bazara

50€

-raino

Opari
deskontu-txarteletan

Urriak
5
larunbata

5€ 4-4ko herrialde bati 42,47€ gorteko erosketarako

10€ 10-10ko herrialde bati 75,47€ gorteko erosketarako

20€ 10-10ko herrialde bati 140,94€ gorteko erosketarako

50€ 30-30ko herrialde bati 352,35€ gorteko erosketarako

Nik aukeratzen dut
aurrezteko
okasia
aprobetxatzea

Maritxu egun ona izan!

Aurrezki gehiago bazkide izateagatik

Trukatzeak baldintzak:

- Batek 100 gutxienez 2019ko urtarraren 7tik aurrerakoan.
- Batek bakoitzak 5€ eta 10€ bako biko (BOSK) hipermerkatuetan, eta trukatze aldi-longoan diru, hurreneko hurren, 20€ eta 30€ baino gehiagoko erosketarako.
- Batek ezin dira trukatze EROSKI Ekaraitan eta Gasolinetan.
- Kontuak garrantzi baldintzak zire salmerako puntuetan.

ARRASATE

Musakola z/h ARRASATE,
Tel.: 943 71 10 30

*Batasunak: Euzkadi, Nafarroa, Kantabria, Euzkadi eta Araba (BOSK) Hipermerkatuetan izango dira bazkideak. Irizpidea: bakoitzak 50 (BOSK) gutxienez bakoitzak gutxienez 100€ gorteko diruarekin. Bereziki, produktuak salan diru promozioak izan dira. Irizpidea, erabiltzailearen informazioa, telefonoa, helbidea, izena, adina, sexua, (jardueraren), etxebizitzaren digitala eta telefonoa promozioaren produktua.



Ikastaroan parte hartzen dabilzan lagunak, eguazteneko aurkezpenean. MAIALEN SANTOS

Abian da hizkuntza gidaritzaren ikastaldia

Eguaztenean abiarazi zuten hizkuntza gidaritzari buruzko ikastaldia hamar hizkuntza gutxitutako hamasei ordezkari. Garabide elkarteak antolatutako ekimenaren bidez formakuntza trinkoa jasoko dute eta hilabete iraungo du

Jone Olabarria DEBAGOIENA

Hizkuntza gutxiagotua duten hamar komunitatetako ordezkariak dira hizkuntza gidaritzari buruzko ikastaldi trinkoan parte hartzen dabilzan hamasei lagunak. Jatorrizko herrietan gidaritzaren profila dute denek ere –kargu instituzionalak, politiki-kariak...– eta 180 orduko forma-kuntza jasoko dute urriaren zehar.

Esker oneko hitzak

Eguaztenean egin zuten hasiera ekitaldia, Aretxabaletako udal-etxean, eta bertan izan ziren, parte hartzaileekin batera, Aretxabaletako alkate Unai Elkoro eta Garabideko lehendakariorde Jon Sarasua. Biek ala biek esker oneko hitzak izan zituzten ikastaldira joandakoekin eta ongi-etorria egin zieten.

Etorritako indigenen ordezkariak, berriz, eskerrak eman zituen; Guatemalako kaktxikel komunitateko kide Gloria Beatriz Puc Chiquitok: "Ikastaroan

parte hartzeko eman diguten aukerarengatik".

Hamar hizkuntza biziberrituz

Kanpotik etorritako hamasei kideek, guztira, hamar hizkuntza gutxiagotu ordezkatzatzen dituzte. Gehienbat, Hego Amerikan kokatutako herrietako hizkuntzak dira: kitxua (Ekuador), nasa (Kolonia), kaktxikelera (Guatemala), nawata (Mexiko), Yukatango maia (Mexiko), maputxea (Txile), aimara (Bolibia), guarania (Bolibia) eta kitxeera (Guatemala). Horiez gain, amazigh (Rif, Maroko) hiztunen ordezkari bat ere bada.

Hizkuntzen estatusari dagokionez, egoera oso ezberdinean daude hamarrak. Egun, guara-

"EKIMENA EUSKAL HERRI OSORA IREKI NAHI DA, HIZKUNTZA SENTSIBILIZAZIO KANPAINAREN BIDEZ"

niak ditu hiztun gehien, 8 milioi, eta, aldiz, Caucako herri indigenaren nasa hizkuntzak gutxien, 180.000 hiztunekin.

Ekintzaz beteriko hilabetea

Ikastaroaren xehetasunei dagokionez, alor teorikoan euskalgintzako eta instituzioetako hamasei aditu izango dituzte irakasle: Belen Uranga, Jasone Mendizabal, Patxi Baztarrika, eta abar.

Alde praktikoan, hemeretzi irteera didaktikorekin osatuko den programa akademikoa prestatu dute; esaterako, Biriaturko Ikastola, Aiaraldea Ekintzen Faktoria eta Errigora nola sortu ziren ezagutzeko. Hala, Euskal Herria ezagutzeaz gain, "euskararen biziberritzean jokatzeko duten paperaz" jabetuko dira.

Hizkuntza gidaritzari buruzko ikastaldiak, gainera, "Euskal Herri osora zabaltzea" du xede, hamar sentsibilizazio ekintzaren bidez; urriaren 2an, Miarritzen, Garabideren *Waye* dokumentala estreinatuko dute.



Arnasa Gara ekimenaren aurkezpena, astelehenean. ARNASA GARA

Arnasa Gara ekimena jaio da, arnaguneei balioa emateko

Aramaio eta Leintz Gatzaga kide dituen ekimenak arnaguneetako herritarren ahalduntzea du helburu

Jone Olabarria DEBAGOIENA

Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoa eta Bizkaiko foru aldundiek eta Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak (Uema) Arnasa Gara ekimena aurkeztu dute asteon. Proiektuaren helburua da "euskararen arnaguneetako biztanleen ahalduntzea, aitortza eta kontzientziazioa indartzea", era horretan gune horietako biztanleak "euskararen indarberritzean duten garrantziaz" jabetu daitezten.

Debagoienari dagokionez, Aramaiok eta Leintz Gatzagak hartuko dute parte Arnasa Gara proiektuan. Hain zuzen, Azpeitian astelehenean egin zuten aurkezpenean izan zen Lierni Altuna Aramaioko alkatea, proiektuaren nondik norakoak azaltzen, eta, aurreikusten dutenez, datozen hilabeteetan Leintz Gatzagak bere aurkezpen ekitaldia izango du.

Bi fasetan

Ekimena bi fasetan garatuko da: lehenengoan, arnaguneei ahalduntzea eta aitortza bilatuko da, horretarako kanpaina bat abiaraziz ekimena azaltzeko eta *Kartzela* serie digitala herriz herri aurkeztuz; bigarren fasean, berriz, Euskal Herri osora zabalduko da, arnaguneei errealitatea eta garrantzia ezagutzera emateko.

Euskaraz, "naturaltasun osoz"

Gaur egungo egoeraren inguruko ikerketa bat egitea izan zen proiektuaren lehen pausoa. Bertatik lortutako ondorioen artean, nabarmendu zuten "euskaraz bizi daitekeela naturaltasun osoz", eta, azpimarratu zuten, bertatik irtetean "gazteak dira euskarari gehiagotan eusten diotenak". Era berean, merkataritza eta ostalaritza euskaraz garatzen dela ondorioztatu zuten.

Goienagusiren ikasturte hasiera, astelehenean

Datorren astelehenean, urriaren 7an, Goienagusi kultura elkar-teak 2019/20 ikasturteari hasiera emango dio Arrasaten, Kulturateko areto nagusian. Hain zuzen ere, Goienagusi Debagoieneko pertsonen elkar-te bat da, eta bere helburua da askotariko arloetan ezagutza handiagotzea eta gaitasun intelektualak trebatzea.

Ohi den bezala, aurten ere "hizlari adituek" parte hartuko dute: historian, artean, zuzenbidean, musikan, ekonomian, zineman, medikuntzan, nazioarteko berrietan eta bestelakoetan. Hainbat erakunderekin harremanetan daudela jakinarazi dute, ikasturte berriari begira: EHU, Huhezi, Mondragon Unibertsitatea, Zumalakarregi Museoa, Bergarako UNED, eta abar. Hitzaldiak Arrasaten eta Bergaran izango dira, euskaraz edo gaztelaniaz; batzuk, irekiak.



Goitik eta ezkerretik hasita: Juan Luis Merino, Igor Urizar, Aiert Lizarralde eta Oscar Garcia. GOIENA

On bila, on bila... hauteskundeak

Espainiako Gorteetarako hauteskundeak egingo dituzte azaroaren 10ean, eta, horren harira, Ezker Anitzako, Ahal Duguko, Equoko eta PSE-EEko ordezkari banaren hitzak jaso ditu GOIENAK, Gobernua eratzeko negoziatioetan zerk huts egin duen jakiteko

Hilabeteetako negoziatioaren ostean, PSOEek eta Unidas Podemos ezin izan dute Gobernua osatzeko akordioak lortu, eta borondate falta egotzi diote elkarri. Oscar Garcia PSE-EEko ordezkariak dio "aulkiak eta boterea" besterik ez duela nahi izan koalizio moreak. "Seriotasun gehiago behar da Gobernu bati buruz hitz egiten ari garenean". Gainera, dio denbora galdu dutela. "Gobernu bat eratzeko da herritarrekiko egin behar den lana aurrera ateratzeko, eta ia urtebete galdu dugu. Gobernurik ez daukagu eta dekretu bidez funtzionatzen dugu ez daukagulako gehiengorik legeak aurrera ateratzeko. Unidas Podemos ez du borondaterik eduki akordioetara heltzeko, boterea besterik ez duelako nahi izan", azaldu du.

Juan Luis Merino Ezker Anitzako ordezkariaren esanetan, borondate falta hori alderdi sozialistak izan du. "Ezkerrean baino gehiago, zentrorra begira egon dira, antzerki hutsa izan da". Era berean, uste du sozialistek beldurra dietela botere ekonomikoari, eta gehiago egoten dela patronalekin eta banku handiekin, "politika sozialak egin gura ditugun taldeekin eta klase behartsuarekin baino".

Equoko Aiert Lizarralde ere uste du kanpoko presioek eragin dietela sozialistek negoziaketetan. "Elite baten kontrola dago horren

LAUREK BAT EGITEN DUTE: ALDERDI-BITASUNAK OHITURA FALTA DU AKORDIOAK LORTZEKO

atzean. Alderdi sozialista guztiz kontrolatuta dute", adierazi du.

Ahal Duguko ordezkari Igor Urizarrek ere bat egin du horrekin, baina gaineratu du barne presioak ere izan dituztela sozialistek. "Ezin dugu ahaztu Sanchez idazkari nagusi izendatu zutenean, Felipe Gonzalez eta Susana Diazen eskutik izan zela, eta Katalunian 155. artikulua ezartzearen aldekoa dela. Beraz, ezin dugu pentsatu Sanchez ezkerreko lider bat denik bat-batean. Bestalde, PSOEren bozkatzailen artean, ezkerreko jende asko dago, baina badago baroien, eta abarren sektore bat ere, eta horiek ez dira oso ezkerrekoak".

Iritzi ezberdinak alderdietan
Urizarrek aitortu du Unidas Podemosen estrategia ez dela zuzena izan, "ikusitako PSOE

ez dela gai izan ezkerreko agenda bat asumitzeko", bere esanetan. "Posible zen akordio bat lortzea kanpoan geldituta eta gero kanpotik akordio programatiko bat betetzera behartzea, oposizio gogor bat eginez. Ate asko itxi dira negoziatioan".

Merinok dio Izquierda Unidaren posizio nagusia zela Sanchezen inbestidura ahalbidetzea, gobernatzaera sartu gabe, nahiz eta bazeuden gobernatzea nahi zuten batzuk. "Hala ere, koalizioaren barruan ez genuen traba bat izan nahi, zati txiki bat garelako. Beraz, koalizioaren erabakia errespetatu genuen".

Mas Pais eta Errejon, agertokira
Garcia azaldu du Mas Paisen sorrera "albiste ona" dela demokraziarentzat. "Aukera ona da beste alderdi batzuek planteatzen dituzten ideiak eztezteko, behintzat. Unidas Podemosekin alderatuta, koherentzia gehiago dauka Errejonek, berak nahi duena delako botoak gehitzea, eta Unidas Podemos, aldiz, alderdi sozialista deuseztatzea".

Urizarrek dio Errejonen agerpena zilegi dela. "Politikoki ez nago batere ados mugimenduarrekin, baina ez dut uste borrokan hasi behar garenik ezkerrekoan artean. Guztiz zilegi da".

Ezker Anitzako ordezkariak onartu du Errejon eta Mas Pais hauteskundeetara aurkeztea ez dela ona ezkerrearentzat. "Ezkerreko beti egotzi izan zaigu batasun falta, eta Errejonen agerpen honek are gehiago zaituko du ezkerrean. Hauteskunde legea dela eta, ez digu mesederik egiten, ez guri eta ez haiei".

Lizarralde uste du Unidas Podemosekin gustura ez dauden edo huts egin diela sentitu duten horien botoak hartzeko sortu dutela alderdia, eta baita PSOEk galdu ditzakeen botoak eskuratzeko ere. "Baina ez dut uste indar askorik edukiko duenik".

Lau hauteskunde, lau urtean
Laugarren hauteskundeak izango dira lau urteren buruan, eta guztiak ados daude horren arrazioa aipatzerakoan: alderdi-bi-

AZAROAREN 10EKO BOZEK UTZIKO DITUZTEN EMAITZAK ANTZEKOAK IZANGO DIRELA USTE DUTE

tasuna ez da gainditu oraindik. "Euskadi mailan eta Europa mailan ohitura handia dago alderdi ezberdinen arteko akordioak lortzeko, baina Espainia mailan, alderdi-bitasunarekin, gehiengo absolutuak ohikoak izan dira, eta ohitura falta hori dago. Beraz, guri ere heldu zaigu ordua alderdien artean hitz egiteko eta akordioak lortzeko", azaldu du Garcia.

Urizarrek dio PPK eta PSOEek "zailtasun handiak" dituztela egoera berri honetara egokitzeke. "Horren ondorio da bizi dugun krisi politikoa, gobernuak eratu eta jausi egiten dira erraztasun handiz. Ez dakigu oraingoan bukatuko den krisi hau, edo jarraituko duen oraindik".

Merinoren esanetan, berriz, trantsizio garaitik datorren kultura politikoa dago Espainian. "Demokrazia faltsu batean bizi garen honetan, PPren eta PSOEren botere aldaketa izan da ohikoena. Badirudi kultura hori dela balio duen bakarra, baina Europara begiratu ezkerreko, guztiz kontrakoak diren koalizioak daude gobernatzen. Formula asko daude gobernatu ahal izateko. Dagoeneko bukatu da alderdi-bitasun hori eta akordioak behar direla gobernatzeko".

Equoko ordezkariak uste du trantsizio politikoa egiteko dagoela oraindik. "Diktadura baten ostean urte asko behar dira horri buelta emateko eta politika guztiz pozoituta dagoen herrialde batean bizi gara, eta elite batzuek kontrol guztia daukate. Geroz eta bazterkeria sozial handiagoa daukagu, ingurumena guztiz abandonatuta dago, kapitalarengatik, eta aldaketa handi bat behar da".

Panorama errepikatuko ote da?
Azaroaren 10ean egingo dituzte bozak. Garcia dio garrantzitsua izango dela bozkatzeko, eta kontziente izatea jokoan dagoenaz. "Abstentzioak gora egiten duenean eskuinak sekulako indarra hartzen du". Urizarrek ere ikusten du aukera hori. "Arriskua da abstentzioa handitzea, eta eskuinak irabaztea".

Ezkerreko eta eskuineko ardatzak nahiko orekatuta egongo direla uste du Merinok, eta emaitzak antzekoak izango direla. "Azaroaren 10aren ostean, orain artekoaren antzeko arazo batekin topo egingo dugulakoan nago", bukatu du Lizarralde.

Erraustegiaren kutsaduren kontrol independentea ordaintzeko diru-bilketa

PELLO ZUBIRIA KAMINO

ERRAUSKETAREN AURKAKO MUGIMENDUA USURBIL

Erraustegiaren Aurkako Mugimendua diru-bilketa abiatu du Zubietako erraustegiak –pizten baldin badute– zabalduko duen kutsaduraren kontrol independentea finantzatzeko.

Hemendik herritarrok animatu nahi zaituztegu ekimen hau lagundu eta bultzatzera

Ikerketa zientifiko honen helburua da urtero kutsadura frogak egitea, eta, helburu horrekin, duela egun gutxi batzuk ToxicoWatch fundazio holandarrak eta Eusko Jaurlaritzak akreditatutako enpresa batek laginak hartu zituzten, bai erraustegiaren inguruko hainbat herritan –Zubietan, Usurbil, Lasarte-Oria, Andoain, Añorga, Hernani eta Urnieta– eta bai urrunagoko beste batean, Goierriko Zaldibian.

Puntu horietan oilategietako arrautza, goroldio, lur eta landareen laginak hartu dituzte.

Oso inportantea da ezagutzea puntu horietan egoera zein den Zubietako tximinia zaborrak erretzen hasi aurretik,

ondorengo urteetan berriro frogatzen egin eta gauzak nola doazen berme zientifikoz frogatzeko.

Nazioarteko ikerlariak Euskal Herrira ekarri, laginak hartu eta beren herrialdeetan azterketa analitikoak egiteak diru kostu bat dauka.

Horregatik, Errausketaren Aurkako Mugimendua osatzen dugun talde eta herritarrok erabaki dugu ikerketa babestea eta finantzaketa lortzen laguntzea.

Aurrera doa 13.000 euro biltzeko kanpaina eta dei bat egiten dizuegu herritarroi, bakoitzak ahal eta nahi duen neurrian parte har dezan. Dirua eman daiteke bai Verkami *crowdfunding* plataformatik, baita bankuko ES45 2095 5069 06 1064132086 (Zubietan Lantzen) kontu korrante honetan sartuz edo baita ere EAMko kideren bati eskura emanaz.

Ez etsi, herritarrok: eutsi.

Errausketarik ez, ez Zubietan eta ez inon!

Gatzbidien

MIKEL ERRASTI
ARETXABALETA

Joan den irailaren 8an, igandean, aretxabaletar askorendako kuttuna den Kurtzebarri mendiko eguna ospatu zen.

Egun hartako goiza oso zatar esnatu zen, umela, eta, mendira begiratuz gero, berriz, lainoa ere nahiko behean –Anbotoko Mari ibiliko ote zen edo... nork daki–.

Horrela, ba, egun berean beste aukera bati heltzekotan, Gatzbidie egitea, alajaina, Eskoriatzatik Gatzagara doan oinezko bidea.

Bueno, ba, ez naiz harturiko hautuaz damutuko.

Izan ere, etxetik urrun joan gabe, ezagutzen ez nuen beste altxor berri batekin gozatzeko aukera paregabea dastatu nuen.

Ibilaldi hau umeekin egin daiteke, eta, era berean, aproposa da mendiko aldapa gogorretan ibiltzera ohituta ez dagoen jendearentzat –neu barne–; alegia, guztiz gomendagarria.

Niri, bide hau egiteak xarma berezia sorrarazteko bi baldintza, behintzat, badauzka; alde batetik, bizitza guztian, autobusez edo kotxez ezagutu eta eginiko eremu asfaltatu batetik asko urrunduta gabe, nola aldatzen den inguratzen gaituen perspektibak, eta, batez ere, zer-nolako lasaitasuna transmititzen duen eremu natural batean paseatzeak, kotxeen zarata entzun gabe.

Eta, hain zuzen ere, xarmangarri egiten duen bigarren baldintza bidearen inguruan egindako lana da; eskoriatzar eta

gatzagar batzuei entzundakoaren arabera, bidearen txukuntze lanak bukatu gabe daudela badiote ere, nabaria da lana sendo eta ganorazkoa egin dutela han.

Egun hartan, gidari lanak eta azalpenak prestuki eman zizkigun pertsonak –barkatu nire buru trakets honek zure izena ez badu gogoratzen...– behin eta berriro azpimarratu zigun bezala: "Hemen egindako lana baserriarren eta gure arteko sinbiosia izan da".

Alajaina, baserriarrek beraien lurraldeetatik bidea egiteko baimena eman, baina, ibilbidearen noranzkotik ez irteteko, pasabide asko hesituta daudela, paseatzera goazenok ez dezagun artalde zein zelairik kaltetu.

Gaur egungo gizarteak berekoitasunera eta kontsumismora bultzatzen gaitu, eta niri, asko gustatu zait sinbiosiaren kontzeptu hori; hain zuzen ere, gure bizitzako edozein arlotan kontuan hartzeko ikasgai ederra.

Post-data: ni neu, dagoeneko, hurrengo urteko Gatzbidien irteera noiz helduko zain nago.

Urriaren 12an

SEBAS ARANZABAL
ELGETAKO ZINEGOTZIA
ANGIOZAR

Azken urteetako ohiturari jarraituz, aurten ere,

urriaren 12an Eguarbitza inguruko herri sailak garbitzera joango gara, Elgeta inguruan daukagun gune ikusgarrietakoa izanik merezi du-eta txukun zaintzea.

Guztira, 13 hektarea eta erdi dituen herri saila da Eguarbitza ingurua, eta, herri basoak aipatzerakoan, hori esan nahi du herritar denonak direla, ez soilik Udalarenak; horrela, herritar guztien ardura izan beharko litzateke gunea txukun mantentzea.

Udalak, pasa den urtean, kanpoko enpresa baten bidez, egin zituen arlo batzuetan garbitze-lan batzuk, eta aurten ere aurreikusten dugu lan horiekin jarraitzea, baina ditugun baliabideekin ezin gara denera iritsi.

Horrenbestez, auzolana deitzeak, lehengo ohiturak berreskuratzeaz gain, Udala iristen ez den lanak burutzea du helburu.

Beraz, dei bat elgetar guztiei, bereziki mendiak gehien erabili eta maite dituzten herritarrei, aspaldian gehituz doazen mendizale taldeei, inguruan ugari ditugun ehiztari eta ekologistei, baita pinuzale eta naturistei, gainera, hamarretako orduan, zahatoari sakatuz, giro alaian, eztabaidarako aukera ere izango dugu.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharreak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA





ZABALIK

ALEX LABAIEN

Gailurra

Irailen izan da, New Yorken, NBERen Klimaren Gailurra, eta nahikoa saltsa ibili dute bazterretan: Trump bertaratuko ote zen, Bolsonarok zer esango ote zuen... Hura agertu zen, entzule huts; honek, berriz, ozen berba egin zuen, eta garbi: "Amazoniaren jabetza ez da negoziagarria". Nola izango da, bada! Eskatzea ere!

Izan ere, Amazonian gertatzen ari diren sute eta deforestazio etengabeek galga jarri nahian, Frantziako presidente Macronek nazioarteko estatusa aldarrikatu du Hego Amerikako oihan eremuarentzat. Logikoa, *munduaren birika* den aldetik denon erantzukizuna behar luke hura zaintzea. Brasilgo presidentek, baina, ezetz, Amazonia ez dela inongo *birika*, eta, beraz, ez sartzeko inoren praktetan, gai direla brasildarrak beren burua zaintzeko...

Bistakoa da munduko oihan eremu zabalenaren gestioa ez dela egokia –are eta txarragoa Bolsonaro boterera heldu denetik– eta neurriak hartu behar direla lehenbailehen, baina hori kontu bat da, eta beste bat Macronek proposatu duena. Akaso, Amazonia da munduko klimaren erregulatuzaile

SIBERIAN, UDAN, BELGIKAREN TAMAINAKO EREMU BAT ERRE EI ZEN; BAZENEKITEN?

bakarra?


Domakako *Berria* egunkarian luze eta zabal jorratu zuten gaia, eta oso argigarria egin zitzaidan *Munduaren birikak* izeneko infografia. Amazoniarekin batera, Kongo ibaiaren arroko edota Asia hego-ekialdeko oihanak agertzen dira. Tarteka bada ere, jaso izan dugu eremu horien galeraren berri. Ipar hemisferiora etorrita, Siberia eta Kanada-Alaskako lur aberatsen berri ere ematen zaigu. Alaska ei da sute gehien izaten den AEBetako estatua; Siberian, udan, Belgikaren tamainako eremu bat erre ei zen. Bazenekiten? Eskatu du inork lurralde horien estatusa nazioartekotzea?

Kasualitate ala kausalitate?

New Yorken ez zen izan, baina gailurra jo zuen benetan Maialen Arzallusek Euskadi Irratiko *Faktoria* saioko zutabe musikatuan: *Egun bat gutxiago*. Entzuizue!

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Borrokak

AMAGOIA MUJKA TOLARETXIPI

[HTTPS://LABUR.EUS/YETZ5](https://labur.eus/yetz5)

'BERRIA'-N ARGITARATUA

Egunean etapa bat, hogeai bat kilometrokoa.

Martxaren erdian dira pentsiodunak, Burgosen, Bilbotik Madrilerara bidean.

Ezintasunik ez, Espainiako hiriburura iristeko erregaia baitute: egunero jasotzen dituzten elkartasun keinuak.

Eta irabaziko dutelako ziurtasuna, borroka martxa baino luzeagoa izango dela jakinda ere.

Bidaideen artean baitira 1992an Burdinaren Martxa egin zuten langile ohiak ere.

Borroka hura eta haren balioa bere eginez atera dira Bilbotik.

Duela 27 urte, bostehun kilometroko ibilaldiaren ondoren, Bizkaiko Labe Garaietako eta Asturiasko Ensidesako langileek ez zuten euren helburua bete, baina presio izugarria egin zuten, eta irakasgai asko eman zituzten: borrokak duintasuna dakarrela, borrokak memoria duela, eta elkartasun ariketa izugarria dela.

Burdinaren Martxa Madrilerara heldu zen egun berean egokitu zen PSOEn mitin bat.

Felipe Gonzalezek hamar urte zeramatzan gobernuan.

Presidenteari gogorarazi zioten langile haietako askori esker zegoela gobernuan.

Orduan milaka lanpostu suntsitzea eragotzi nahi zuten, eta ez zuten lortu.

Orain pentsio duinak bermatu nahi dituzte, eta lortuko dituztela diote.

Kanpainan direnekin egingo dute topo oraingoan ere, baita pentsiodunen mezuak bere egingo dituzten presidentegaiekin ere, baina borroka politikarien bidea baino luzeagoa dela gogoraziko diete.

Burdinaren borroka goioan.

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea

Mireia Larrañaga,
Amaia Mundiñano,
Ziortza Martin.
Administrazioa
Ane Berezibar,
Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK



Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantxabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailkatu arduradunak
Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

BERBAGAI

"Lan sare emankorra sortu du BNI Debagoiena taldeak"

IDURRE ALBIZU BNI AUKERA DEBAGOIENAKO ZUZENDARIA

Eneko Azkarate Laspiur ARRASATE BNI Aukera Debagoiena taldeak bigarren urteurrena ospatuko du urriaren 25ean Arrasaten. Harremanetan oinarritutako marketin taldea da BNI, kideen harremanen bidez kideek negozioak egitea ahalbidetzen duena.

Gipuzkoan, beste hiru talde daude. Idurre Albizu (Eibar, 46 urte) da Arrasatekoaren zuzendaria.

Bi urte bete ditu Debagoieneko BNIk. Gustura zaudete egindako bidearekin?

Bai. Irailaren 29an bete ditugu ofizialki urte bi eta gustura gaude funtzionamenduarekin eta emaitzekin. Debagoieneko udalen –Garapen Agentziaren bidez– eta Garaia Berrikuntza Gunearen laguntzarekin sortu zen taldea. 30 kidetik gora hasi ginen. BNI talde batek, hasteko, gutxienez, 25 izan behar ditu.

Kideek heldu egin diote konpromisoari?

Oro har, bai. Eta baldintzak ez dira errazak. Ostiralero



Idurre Albizu, Garaia Berrikuntza Gunean, oraingo astean. ENEKO AZKARATE LASPIUR

elkartu ohi gara ordubetez. Asistentzia kopuru gutxieneko bat eskatzen da eta betetzen ez baduzu taldetik kanpo geratzen zara. Hiru hutsegite egin zenitzake sei hilabeteko epean.

Ze emaitza izan du Debagoieneko taldeak?

Ia bi milioi euro fakturatu ditugu bi urtean. Hori asko edo gutxi den? Guk, sorreran ezarri genituen helburuen gainera dago. Aise gainditu

ditu gure aurreikuspenak. Eta fakturazioaz harago, lan sare bat sortu da oso emankorra izan dena eta izan daitekeena aurrera begira. Horretaz gain, lanpostuak ere sortu dira.

Debagoieneko BNI taldeak fakturatu duenaz ari zarenean, zertaz ari zara?

Taldearen bidez, taldeko hartu-emanen bidez, kideek orotara lortu duten negozio bolumenari egiten dio erreferentzia datu horrek **Taldeko guztiak irabazi dute?** Esan genezake taldeko kide bakoitzarendako nahikoa izan dela lortutakoa, bestela ez zuen taldean jarraituko.

Badira taldea utzi dutenak gustura ez zeudelako, baina beste batzuek utzi dute aurreikuspenak aise gainditu eta gehiago ez zutelako nahi.

Nola funtzionatzen du BNI talde batek?

Astero egiten da batzar bat, goizen goiz, ohiko lan jardueran murgildu aurretik. Horretaz gain, badugu plataforma digital bat, hainbat eduki partekatzen. Kide bakoitzak kuota bat ordaintzen du... BNIren jatorria Ameriketako Estatu Batuetan dago eta mundu osoan barreiatuta dago. Hemen, Bilbon du egoitza nagusia, frankizia baten bidez.

Enpresa txiki zein ertainak eta autonomoak dira Debagoieneko BNIkoak?

Bai. Ez da berdina horrelako talde bat hiriburu baten edo herri edo eskualde baten. Donostiakoan, esaterako, kide gehiago daude, parte hartzen duten enpresak handiagoak dira eta, ondorioz, emaitzak ere handiagoak dira.

Enpresa industrial handiendako, izan kooperatiba edo ez, horren egokia ez da BNI?

Enpresa handiendako ere balio du. Baina errealitateak erakusten digu enpresa handiak ez daudela edo gutxi daudela. Baina, esaterako, Galizian, enpresa handiak bakarrik daude. Taldean egoteak ematen dizu aukera nazioarteko sarea baliatzeko, negozioetarako harremanak egiteko. Esaterako, Arrasateko taldeko kide batek hartu emanak izan ditzake Shanghaiko BNI taldeko kide edo enpresa batekin.

Beste BNI taldeekin alderatuz gero, non dago Debagoieneko BNI?

Erdian, esango nuke nik. Ez da berdina taldea hiriburuan egon edo herri baten egon. Donostian, esaterako, taldean kide gehiago daude, parte hartzen duten enpresak handiagoak dira eta, ondorioz, emaitzak ere handiagoak dira.

ITURRI ONETIK

'La trinchera infinita' Oñatin, azaroaren 1ean

Aitor Arregi oñatiarrak Jon Garaño eta Jose Mari Goenagarekin zuzendu duen filma azaroaren 1etik aurrera ikusi ahalko da Oñatin. Bezperan, urriaren 31n, estreinatuko dute Hego Euskal Herriko eta Espainiako zinema aretoetan. Zortzi emanaldi eskainiko dituzte Oñatin, egunean bi: ostiral, zapatu, domeka eta astelehenean. Arregiren azken filma da azken Donostia Zinemaldiko filmik sarituena, Urrezko Maskorra jaso duen *Pacificado* film brasildarrekin batera.

ALBISTE IZAN ZEN

2009-09-28

Tren ardatzak egiteko lantegirik aurreratuena

Danobat taldeak lantegia ireki zuen Bergarako Mekolalde auzoan: Danobat Railway Systems. 100.000 metro koadroko lantegia, 12 milioi euroko inbertsioarekin. Errusiako TVSZ trenbide enpresarendako treneko ardatz muntatuak egiteko munduko lehorrik aurreratuena. 65 langile kualifikatuekin hasi eta 200 langile izatera heldu zen urte gutxiren buruan. Gaur egun, talde bereko Soralue enpresa dago lantegi horretan.



GOIENA

HAU BE BADOGU!

Urriaren lehena, gogoan

Duela bi urte egin zuten erreferenduma Katalunian, eta, aste osoan zehar, gaia pil-pilean egon da sare sozialetan:

@arasanse: "Berriz hunkitu naiz hainbeste adore ikustean. Berriz sumindu naiz hainbeste eraso ikustean. Handia egin zenuten orain dela bi urte, Katalunia!"

@Loren81: "Kataluniako erreferendumaren 2. urteurrena, eta elkarretaratzeak hainbat hiriburutan. Autodeterminazioa ez da delitua. Euskal Herria eta Katalunia, elkarrekin bat".

EH Bilduren liberatua, besteen soldata berarekin

Agintaldi berrian EH Bilduko Aitor Zubiaga izango da oposizioko zinegotzi liberatua. Jardun osora egingo du lan eta urteko 39.979 euroko ordainsari gordina jasoko du; Gobernuko liberatuen pare, eta aurreko oposizioko liberatuak baino %33,5 gehiago

Xabi Gorostidi ARRASATE

Aurreko agintaldian oposizioko liberatu izan zen Eneko Barberenak Gobernuko liberatuen ordainsariaren %90 kobratzen zuen - 29.938 euro gordin, urteko-. Diferentzia hori kentzea eskatu du EH Bilduk, eta onartu egin zaio; horrenbestez, horrek eragiten du igoera uztailen onartutako %20koa baino handiago izatea.

Eztabaida, ordainsariaz

EAJko bozeramaile Anuska Ezkurrak adierazi zuen ez dutela "trabarrik jarriko" oposizioak liberatu bat izan dezan, baina koherentzia falta leporatu zion EH Bilduri. Agintaldiko lehen osoko bilkuran, Gobernuko liberatuen soldata %20 igo izana "nabarmen" hitzarekin definitu ostean, euren liberatuarentzat %33ko igoera eskatzean ikusi zuen EAJk "koherentzia falta".

EH Bilduko Maider Morrased azaldu zuen eurek ez zituztela liberatuen soldata gehiegizkotzat jo, baina bai jo zutela "nabarmen" agintaldi batetik bestera aplikatutako igoera. "Arrasatearrek badakite EH Bildu ez dela Udalera aberastera etortzen" adierazi ostean, gehitu zuen "herritarren alde oposizio lan egiteko" erabiliko dutela diru hori.

PSE-EEko Oscar Garciak adierazi zuen alderdi guztiek liberatu bat edukitzea defendatzen dutela. Gaineratu zuen aurreko agintaldian liberatu gisa jasotzen zuen ordainsaria -33.159 euro gordin urtean- Fagorreko langile bezala hilean jasotzen zena baino 400 euro txikiagoa zela. Hark ere "koherentzia falta" leporatu zion oposizioari.

Uribesalgon, etxebizitzak

Bestalde, martxoan, Promociones Leku Eder enpresak proiektu bat aurkeztu zion Udalari, Uribesalgo lantegia dagoen lekuan



EH Bilduko Aitor Zubiaga, eta haren alboan Maider Morrased. XABI GOROSTIDI

48 etxebizitza egiteko, eta urriko osoko bilkuran Gobernuaren aldeko botoekin onartuta geratu zen egitasmoa. Hirigintza batzordeburu Ibon Arrupek esan zuen HAPO planak baimentzen duen eremua dela, EH Bildu abstenitu egin zen etxebizitzetarako "hausnarketa falta" igartzen duelako, eta Elkarrekin Arrasatek aurka botatu zuen.

Instrukzioa, "oztopo"

Maider Morrasedek informazioa eskatzea "oztopatzen" duen instrukzio bat jaso dutela jakinarazi zuen. "Instrukzioak dio, besteak beste, udal kontabilitatea edo herritarren kezak ezin ditzakegula ikusi, eta horrek nabarmen mugatzen du gure oposizio lana. Horrez gain, beste informazio batzuetara sarbidea edukitzeko, baimena eskatu behar diogu idatziz alkateari, eta, ostean, hark erabakitzen du; eman, edo ez".

Horren harira, adibide bat jarri zuen. Agintaldi hasieran

udaltzainen aktibitateari buruzko informazioa eskatu zion idatziz alkateari, eta salatu zuen, erantzuna jaso aurretik, martitzenean izan zuela horren berri herriko komunikabideetan. Horri dagokionez, Anuska Ezkurrak adierazi zuen "akatsen bat" gertatu zela, informazio hori eurek aurreko astean igorri ziotela argudiatuta.

Ordenantza fiskalak, onartuta

2020rako ordenantza fiskalak EAJren eta PSEren aldeko hamabi botorekin onartu ziren. Gobernuak irailean plazaratu zuen ordenantza proposamena, ondare arkeologikoa duten erakinei buruz AZEK egindako proposamen batekin eta Hirukide elkartearekin adostutako kide ugari familiantzako hiru neurriekin. Udal tasak eta zergak, ordea, %0,6 igoko dira KPla aintzat hartuz. EH Bilduren "bizpahiru" neurri ere kontuan hartu zituztela azaldu zuen EAJko bozeramaileak; eta EH Bilduren "harridura" sortu zuen horrek. Hauek dira EH Bilduri onartutako neurriak: Ur Kontortzioaren zerbitzu osoaren kostua altako uraren proportzio berean igotzea, AZEren neurria zehatzago idaztea eta familia ugarietarako autoetan aplikatuko zaien hobaria balio konkretu baten azpitik izatea.

Morrasedek azaldu zuen osoko bilkuran jakin zutela euren neurriak onartu zituztela, eta hori ez zaiela "lan egiteko modu profesionala" iruditzen. EH Bilduk aurka botatu zuen, "ordenantzen edukiagatik eta formengatik". Baita Elkarrekin Arrasatek ere "atzerakoitzat" jo ostean.

Klima larrialdiaren mozioa

Arrasatek klima larrialdi egoera deklaratzeko onartuta geratu zen, aho batez. Naturtzaindia, Besaide, Arrasateko Zero Zabor eta Ekologistak Martxan elkarteek eta EAJk eta PSE-EEK adostutako testuak hamar neurri zituen, eta, aho batez onartu arren, debatea eragin duen.

Neurrien artean, besteak beste, honako hauek daude: karbonogabetze prozesua 2040ra aurreratzeko moduko plangintza egitea, klima aldaketari aurre egiteko Arrasateko Udalak politika eraginkorrek garatzea, Jasangarritasun Energetikoaren Legearen garapena udalerrira egokitzeko zortzi hilabeteko epean hurbilpen lana egitea, Legebiltzarrak onartuko duen klima aldaketarako legeak jasoko dituen helburuen garapenerako prozesu parte hartzailea egitea, Udalaren gaitasunaren arabera lur pribatuak modu planifikatuan erostea bioaniztasuna berreskuratzeko, bidegorriari lehenetsia ematea eta Laubide plazako aire neurgailuak herriko beste toki batzuetara hedatzea.

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

arbolapeta

arrasate

beinke

Jaietako ezinbesteko erreferente bati agur

Rosi Otadui 'Katanga' hil da, herriko jaietako gatza eta piperra izan den emakumea, eta "alaia", "umoretsua" eta "parte hartzaile" bezala oroitua izango dena. Horrez gain, Mondrako nesken futbol taldeko sortzaile izan zen, 80ko hamarkada amaieran

Xabi Gorostidi ARRASATE

Festei bizitasuna ematen gutxi izan dira Otadui bezain aktiboak: Aratusteetan, sanjuanetan... SUDCek antolatu eta hark protagonizatzen zituen *playback*-ak dira horren froga. "Ni festibalerak jaio nintzen. Nire gurasoek nekazari-lanabesak saltzen zituzten ferietan, eta, batetik eta bestetik, zerbait geratu zait", zioen *Arrasate Press*-en 14. zenbakian, 1989ko martxoan.

"Oso pertsona alaia eta parte hartzailea zen, eta danborradaren kasuan lan handia egin zuena, bai helduak, eta baita gazteak festara batzeko. Montxon elkarteko kide zen, eta bertako



Rosi Otadui, 1990eko Maritxutan. A. PRESS

zuzendari bezala aritu zen urte luzez. Gogoan ditut sanjuanetan eta Aratusteetan egiten zituzten *playback* jaialdiak ere... itzelak ziren. Faltan igarriko dugu", azaldu du danborradako antolatzaile Jesus Egidazuk.

Arrasateko ospitaleko langile izan zen 37 urtez, eta Mondrako emakumeen taldeko sortzaile ere bai, Roman Lopezekin batera. "Ezagutu dudan emakumerik alaiena eta umoretsuena zen Rosi. Beti zegoen laguntzeko prest, parte hartzeko prest, eta, batez ere, jendea ondo pasarazteko prest. Gogoan dut emakumeen taldea martxan jarri nuela, eta handik

urtebetera bere kargu hartu zuela Rosik. Jaietan ere, beti ekarpenak egiten, gauzak antolatzen... Arrasatear eredugarria izan da, ezbairik gabe. Pena, hain azkar joan izana", azaldu du Lopezek.

Ezizenaren jatorria

Eta zergatik *Katanga*? Hona hemen galdera honi eman zion erantzuna, 2012. urtean egindako elkarrizketa batean: "Gurasoek taberna bat zabaldu zuten Arrasateko Maala kalean, Okeno jauregian. Orduan, Belgikako Kongorekin gerran zeuden, eta egunero irteten ziren horren gaineko albisteak; tartean, hango probintzia Katangari buruzko informazioa. Taberna inauguratu zenean, jende asko batu zen han, eta Katanga ematen zuela aipatu zuen batek baino gehiagok. Taberna, berez, Namur deitzen zen, baina jendeak Katanga izenarekin ezagutzen zuten. Hortik datorkit ezizena". Ezizenari buruz galdetuta, zera dio Roman Lopezek: "Gogoan dut ez zitzaiola askorik gustatzen *Katanga* izenez deitzea; 'Ni Rosi naiz' erantzuten zuten".

OHARRAK

51koen kintada

Urriaren 19an batuko dira, Erreka jatetxean, bazkaltzeko. Joateko, sartu 55 euro ES31 3035 0001 5900 1117 0156 kontuan; epemuga: urriak 14.

42koen kintada

Urte hartan jaiotako emakumeak azaroaren 9an batuko dira. Izena emateko, Izadi belar dendara joan.

56koen kintada

Urriaren 26an, Los Arcosera joango dira. Joateko, sartu 65 euro 3035 0202 75 2021046272 kontuan, izen-abizenekin.

Pentsiodunak

Astelehenean, Herriko Plazan batuko dira, 12:00etan.

Eskalada ikastaroak

Uarkapeko rokodromoan: 2008tik 2011ra jaiioak, astelehen edo eguazten, 17:30etik 18:30era. 2007an edo aurretik jaiioak, astelehen eta eguazten, 18:30etik 19:30era.

RPS: 146/18



CLINICA DENTAL

BERGARA

Asteazken eguerdian zabalik

25

urte baino gehiagoko esperientzia implantologian

- INPLANTOLOGIA (kirurgia erraza eta minik gabekoa)
- Estetika eta protesia
- Ortodontzia bracket barik
- Apnea - Zurrungak














Bidekurutzeta, 36 – BERGARA – Tel.: 943 76 05 77 – www.clinicadentalbergara.es

Musakolako 'astakiloak' omenduta dator Maritxu

Nobenaixuen, auzo horretako jai batzordeko kideei aitortza egin zien MKJ Komisiñuek. Gaur egingo du eztanda jaiak, eta hainbat zerbitzu berezi izango dira; besteak beste, indarkeria matxista kasuentzako aurrez aurreko laguntza eta droga 'testing'-a

Xabi Gorostidi ARRASATE

"Gure anai-arrebak izango baliara bezala sentitzen ditugu Musakolako jai batzordeko kideak", adierazi zuten Komisiñuekoek Nobenaixuen, eta musakolarrek izugarri eskertu zuten eurena akordatu izana. "Harrotasunez eta poz handiz hartzen dugu inbutua, benetan, eskerririk asko. Astoa eta dragoia adiskidetzetik gertuago daude orain!", esan zuen Musakolako jai batzorde kide nekazekin Jesus Mari Apraizek.

Gaurko egitaraua

Etxafuegoekin Maritxu Kajoj egunari hasiera eman ostean, 17:30ean *Kantu eta dantza* ikuskizuna egingo dute Potx eta Lotx pailazoek, Seber Altube plazan. 18:00etan, BraZZtet MV Brass Band talde ibiltariak jazz ukituko kalejira hasiko du Herriko Plazan, eta 19:00etan, Oria Txaranga beteranoaren txanda izango da. 20:30ean, lore eskaintza egingo diote Maritxuri: "Datorren



2018ko mirariko argazkia. IMANOL SORIANO

urtien danok egon gaittezen". Eta 21:00etan, Sakatu elektrotxarangakoek jarriko dute maritxa. Amaitzeko, 00:00etan, bi dantzaldi izango dira aldi berean: Herriko Plazan Luhartz taldearekin eta txosnagunean DJ Jo-

tatxok jarriko dituen doinu dantzagarriekin.

Zerbitzu bereziak

Sanjuanetan moduan, arreta eta aholkularitza postu bat egongo da indarkeria matxista kasuekin

Herriko pizzeriak, "beldurtuta"

Ohikoa izaten da edozein festaren biharamunean pizzak eta halako jaki bizigarriak jatea. Ondo baino hobeto dakite hori Arrasateko lau pizzerietako langileek, urteko egunik gogorrenetakoa izaten baita eurentzako Maritxu osteko eguna; domeka zaporea izaten duen zapatu hori, alegia.

"Urteko egunik lanpetuener artean dago Maritxu Kajoiko zapatua, duda izpirik gabe; jada beldurtuta gaude. Maritxu egunean, bazkariak eta afariak ematen ditugu, baina osteko zapatuan are lan gehiago izaten dugu. Hori dela eta, festa arriskutsua da Maritxu guretzat, gauze gehiegi irtenez gero, zapatuan majo ordaintzen dugu eta! Jende askori ezin izaten diogu zerbitzua eman, eta gosez datozen askok itxaron beharra izaten dute. Baina halakoetan, jendeak ulertu behar du 80 pizza inguru egiten ditugula, pizzek euren denbora behar dutela, eta ez direla latan etortzen", azaldu dute Muxibar pizzeriako lagunek. Cassolon ere antzera aritzen dira: "21 urte daramatzagu Arrasaten, eta festen osteko egunak beti dira oso gogorrak; etxean jasotzeko pizen eskaria igotzea klasikoa da". Pizza Per Tuttiokoek diote lan karga antzerakoa izaten dutela Maritxu egunean bertan eta osteko zapatuan. Telepizzakoen kasuan, Maritxu osteko zapatuan %30 inguru handitzen zaie lan karga: "Pizza eta Coca-Cola ugari saltzen ditugu; beldurrez gaude".



Muxibarren, eskapularioarekin. X.G.

lotuta –baita telefonoa: 688 80 91 37-. Bestalde, Ai Laket!-eko lagunek botilatzarra egiten duten nerabeekin prebentzio lanak egingo dituzte, eta droga *testing* zerbitzua jarriko dute Monterronen, 22:00etatik 02:00etara.

Maritxu, Goiena telebistan

Gaur, 22:00etan, miraria HD saioan; asteleheneko HD saioan –18:00etan, 20:00etan eta 22:00etan– Maritxu Kajoj jaiari eskainitako tartea; eta martitzenean, *Jaiak* saioa 21:00etan eta 23:00etan.

EGIN TOPA GEUREAN!

ITURRIOTZ
ITZALA
MONTE
OKORETEGI
RUMBA
TXOKO II

MARITXU KAJOI
2019



INSTALAZIO BERRIA ARRASATEN

%40ko deskontuak

0KM Hyundai gama guztian

San Andres kalea, 6 • 20500 ARRASATE (Mugarri Eraikina) • 943 79 70 06 • Oarsocar.com

 **GRUPO
EASO
MOTOR**



Udaltzaingoak 365 esku hartze hiru hilabetean

Udaltzainek egiten duten lanari balioa eman gura izan dio Maria Ubarretxena alkateak: "Udaltzaingoaren lanaren gainean badago jakin-mina eta uste dugu aukera ona dela halako agerraldien bitartez horien lana balioan jartzeko, herriaren argazkia erakutsiz"

Eneko Azurmendi ARRASATE

Aste honetan egindako agerraldian, azken hiru hilabeteetan udaltzaingoak egindako esku hartzeen berri eman dute alkateak eta Zigor Andino jarduneko udaltzainburuak; 365 izan dira, guztira.

Uztailaren 1etik irailaren 26ra arteko datuak eman dituzte. "Guztira, 810 ekintza egin dituzte udaltzainek -deiak jaso, laguntza eman, piboteak zabaldu...-, eta horietatik 365 izan dira esku hartzeak. Horien artean, hiru talde daude: administratiboak, segurtasunarekin zerikusia dutenak eta zirkulazio kontuak. Gehien gertatu direnak administratiboak izan dira", jakinarazi du Ubarretxena. Administratiboen artean, gehienago izan dira animaliekin zerikusia izan dutenak: txakurrak, liztorrak...-56-; gero, erorketak eta antzekoak, 43; eta hirugarren, zaratekin zerikusia dutenak: bizilagunen arteko kexak...-34-

Segurtasunari dagozkionen berri eman du jarduneko udaltzainburuak: "Hemen daude lapurretak, lapurreta saiakerak, suteak, ebazpenak... eta horien artean gehienago izan dira liskarrak, 29 kasu, eta gero, lapurretak, 15". Era berean, atxilotetan ere hartu dutela parte adierazi du: "Lapurreten kasuan, lau atxiloteta egin ditugu; bat, droga kasu batean; bilaketa agindu bat izan dugu; Ertzaintzaren kontrako atentatu batzuetan izan gara; eta lesio kasuetan hiru atxiloteta egin ditugu". Zirkulazio atestatuaren bederatzia atxiloteta egin direla gaineratu du -alkohola eta droga-. Era berean, zauriturik gabeko 27 istripu artatu dituzte adierazi du, eta zazpi istripu zaurituak egon direnak.

Udaltzainen lanari balioa eman
"Gure lanaren berri ematea izan da helburuetako bat, gaizki ulertuak egon izan direlako", adie-

razi du Andinok, eta alkateak gaineratu du: "Segurtasuna lehentasuna da eta lehentasun izaten jarraituko du, baina beste hainbat esku hartze ere egiten dituztela udaltzainek agerian utzi gura izan dugu".

Gaur egun, 30 udaltzain daude Arrasaten -eta udaltzainburua eta koordinatzailea, tramitean-,



Zigor Andino jarduneko udaltzainburua eta Maria Ubarretxena alkatea. TXOMIN MADINA

eta Ubarretxena azpimarratu du mahai-gainean dutela "plantilla igotzearen egokitasuna. Nahiz eta gure eskuetan bakarrik ez egon".

Bestalde, urrian Udalaren webgunean atal bat sortuko dutela jakinarazi dute, Udaltzaingoa-rengandik jasotako datuak sar-tzeko eta eguneratzen joateko.



NIRE USTEZ

AITOR OROBENGOA

'Annus horribilis'

Aurtengo urtea txarra suertatzen dabilkio Euskadiri; izan ere, albiste okerrak pilatzen dabilta.

Batetik, mundu osoan ekintzailetasuna neurtzen duen GEM estatistikan berriz ere atzera egin du Euskadik.

Ikerkuntza-inbertsioari dagokionez, berriz, Europako lurralde aurreratuekiko gero eta atzerago gaude, barne produktu gordinaren %1,85 besterik ez dugulako erabiltzen.

Bestetik, Euskadi eta Luxenburgoko diru Europako petrolio iturriei buruzko mendekotasun handiena duten lurraldeak. Era berean, Euskadiko energia berriztagarrien erabilera maila Estatuaren batez bestearren azpitik dago.

Azkenik, Europar Batasunak egin duen azterketa berri batek dio Euskadik 22 postu galdu dituela Europako lurraldeen berrikuntza sailkapenean. Une honetan 132. postuan kokatuta gaude: alegia, 3. mailako lurralde bat bihurtu gara.

Adierazle horiek guztiek gauza bera dioskute: gure aberria okerreko bidetik doala. Ondorioz, hona hemen galdera: ez al da garaia izango industria politikak aldatzeko?

Preso eta iheslariak etxera Kopon!

IRATI
TAUPA
OSORIK
BASATI
ILUNTZ
JAIZALE

Eraso sexistarik ez Erantzunik gabe!

Izaera berreskuratzeko urtea Mondraterentzat

Ondo hasi du denboraldia Mondratek, lehen partidua irabazita, Tolosari (4-3); Jonathan Raso eta Josu Uribarren kantxan ariko dira berriz, eta Jon Zabala entrenatzaile postura itzuli da; izan ere, taldearen ilusioa berpiztea da asmoa

Eneko Azurmendi ARRASATE

Denboraldia etxean hasi du Mondratek, eta lehen hiru puntuak Arrasaten geratu dira, Tolosaren aurkako partidua eroren ostean. Etzi, domeka, jokatuko dute bigarrena arrasatearrekin, Sestaon, 11:30ean.

Jokalariari dagokionez, taldea mantendu egin da, oro har, eta Jonathan Raso eta Josu Uribarren jokalaria eta atezain ariko dira aurtan, bueltan. Bestalde, Jon Zabala entrenatzailea ere itzuli egin da, bi urte taldeetik kanpo egin ostean. "Gurekin hasi zen, hiru urte egin zituen taldean, eta utzi egin zuen. Orain, berriz itzuli da", azaldu du Rasok. "El-



Mondrateko jokalaria bat. IMANOL SORIANO

kar ezagutzen dugu, bere filosofia guk ere partekatzen dugu, eta taldea norabide berean doa. Entrenatzailearen ideia berberak edukitzen baditugu guk ere, errazagoa da helburuak lortzea", azpimarratu du.

Jokalariak, konprometituta

Denboraldia hasi besterik egin ez den arren, partidua guztiak lehiatzea izango da arrasatearren helburua. Hala ere, bada helburu nagusiago bat: "Apur bat galduta geneukan talde izaera hori berreskuratzea, eta ilusioa berpiztea. Izan ere, azken urteetan galdu egin dugu izaera, konpromiso gutxi zeukan kanpoko

jendea etorri delako, eta horrek taldea apurtu egin du, hein batean. Arrasateko jokalariek konpromisoa mantentzen dute, eta hori garrantzitsua da".

Hamabost talde daude Euskal Ligan, eta, Rasoren esanetan, "talde oso onak". "Zaila izango da aurrean ibiltzea, baina partiduz partidua joango gara, eta partidua guztiak lehiatzeko prest".

Entrenatzailea, baikor

Jon Zabala entrenatzailea baikor azaldu da, eta dio taldeetik kanpo egon den bi urte hauetan asko hobetu dutela: "Maila igo egin da, jokalaria esperientzia gehiagorekin daude, eta jende gaztea ere igo da behetik".

Jokalari gehienak ezagutzen ditu Zabalak, eta Raso eta Uribarrenen itzulera ere bere eskariz gauzatu da. "Jonathanek taldea zuzentzeko proposamena egin zidanean, esan nion onartuko nuela, baldin eta bera eta Uribarren itzuliko baziren, eta hala izan da. Hirurok itzuli gara".

Emaitzei dagokionez, ez du helbururik jarri, oraingoz. "Ikusiko dugu Gabonetan non gauden eta zer egin dezakegun".

'En/Femme' lana ikusgai martitzenean Kulturaten

Emakume Txokoak antolatuta, urriaren 8an, martitzena, areto nagusian eskainiko dute Alba Barbe I Serrak zuzendutako filma, 18:30ean, eta ostean, solasaldia izango da zuzendariarekin berarekin. Orain arte zinema dokumentalaren munduan inoiz landu ez den gai bati helzen dio lan honek: *cross-dressing* edo trabesti praktikari.

Niña Coyote eta Chico Tornado datorren egunean, gaztetxean

Kooltur Ostegunen hamargarren edizioaren bigarren emanaldia Niña Coyote eta Chico Tornado eskainiko dute, urriaren 10ean, 22:00etan, Arrasateko gaztetxean. Rock gogorra eta stonerra lantzen duen bikotea da, esperientzia handiko bi musikariren eskutik. Indarra, sentimendua, energia eta intentsitatea oholatza gainean. Sarrera bost euro da.

ALDEDI

Ondo ibili Maritxutan!

Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84



Umeak jolasean, eskolako jolastokian. J.I.

Eskolak badu eskatutako langile kopurua eta mota

Hala ere, poza ez da erabatekoa, Aramaion denbora zeramaten bi lagun joan egin direlako, eta haien funtzio bera betetzera beste bi etorri. Prozesuan izandako akatsak salatu dituzte, eta herriaren eta eskolaren berezitasunak aintzat hartzeko eskatu dute

Julen Iriondo ARAMAIO

Ekainean etorri zen ezustekoa: administrazioak 2018-2019 ikasturtekoak baino langile gutxiago iragarri zituen Aramaio San Martin eskolaren ikasturte berrirako; ezustekoa, batetik, jakinarazpen hori arteko prozesuan ez zelako halakorik aurreratu –azaro-abendu aldera aurreikuspen bat ematen du jakitera administrazioak, helegiteertarako tartea egoten da gero, eta urtarrilean aldizkari ofizialean argitaratzen da; eta hor, murrizketarik ez zen adierazi–.

Ezustekoa, bestetik, San Martin eskolakoek beharrezko ikusten zituztelako eskatzen zituzten lanpostu guztiak; eskola bakoitzari irakasleak esleitzerakoan, irizpide matematiko bat erabiltzen dela, baina esleipen hori egiterakoan herri eta eskola bakoitzaren berezitasunak aintzat hartu behar liratekeela diote Aramaio eskolakoek, ez direla gauza bera herri txiki bateko eskola eta hiriburukoa:

San Martin eskola herriko eragile bat gehiago dela diote, beste eragile, elkarte eta abarrekokin elkarlanean hainbat ekintza eta proiektu egiten dituen. Gainera, hori eredu garri jotzen ei du administrazioak, eta errekurtsioak izendatzerakoan kontuan ez hartzeari kontraesankor deritzote.

Ekainean administrazioaren iragarpena ezagututakoan, azalpen eske eta euren ustez zegoiena aldarrikatuz jo zuten batera eta bestera –guraso elkartetik ere mugitu dira denbora honetan–. Behar bezalako erantzunik jaso ez, eta Udalari bitartekaritza eskatu zioten; Udaletik Jaurlaritzarekin egindako gestioen bitartez lortu

**DIOTE IRAKASLEAK
ESLEITZEKO EZIN DELA
IRIZPIDE BERA
ERABILI HERRI TXIKI
BATEN ETA HIRI BATEN**

zuten Lehen Hezkuntzako beste irakasle bat eskolarako.

Baina hezkuntza premia berezietarako aholkularia falta zen oraindik, irizpide matematikoen arabera ez omen zegoen; eskolan ez zuten ulertzen, aurreko ikasturteko ikasle kopuru bera baitzen haren beharra zuena. Aurreko astetik dute, azkenean, aholkularia, Arabako Hezkuntza ordezkariek euren eskakizunaren alde eginda.

Azkenean, beraz, eskatzen zuten langile kopurua badute, nahi zuten profiletakoak; poza ez da, ordea, erabatekoa: bi pertsona berri etorri dira Aramaion denbora zeramaten beste bi, funtzio beretan, ordezkatzera; horrek ikastetxeari "energia gainkarga" eskatzen diola dio Saioa Uriarte zuzendariak.

Hurrengo ikasturtera begira, eskolarekin batzeko konpromisoa hartu du Hezkuntza ordezkaritzak; San Martinekoek ez dute nahi halakorik berriro errepika dadin.



Iazko lanetako bat. GOIENA

Urriaren 12an egingo dute kaleko pintura lehiaketa

Ohi bezala, edozein teknika eta material erabili ahal izango da 28. edizio honetan ere

J.I. ARAMAIO

Oinarrietan jasota dagoen bezala, egunean bertan landu beharko da margolana, edozein teknika eta materialekin: 09:00etan hasita –11:00k arte– zigilatu ahalko da euskarria, Sastiña ermitan; 14:00ak bitartean egin ahal izango da margolana –14:30ean bazkaria izango dute–, eta, epaimahaia bildu ondoren, 18:30ean emango dituzte jakitera irabazleen izenak. Urriaren 13tik 18ra bitartean, lehiaketako lanak ikusgai egongo dira Sastiñan, erakusketan.

Aramaio Udalak antolatzen duen lehiaketa edonork har dezake parte, eta herriko irudietan oinarritutakoak izan beharko dira lanak.

Sariei dagokienez, bi kategoriatan banatuta emango dituzte: 16 urtetik gorakoetan, 700 euro jasoko ditu irabazleak, 500 euro bigarrenak, 400 euro hirugarrenak eta 150 euro aramaioar onenak; 16 urtera artekoetan, berriz, lehen saria izango da 150 euro pintura materiala erosteko, 100 euro bigarren saria eta 50 euro hirugarrena.

Nagusien kategoriako hiru koadro onenak Aramaio Udalak hartuko ditu beretzat; gainerakoak, urriaren 31 bitartean jaso ahalko dituzte egileek.

OHARRAK

Laguntzak: euskara

Hilaren 25era arte eska daitezke udaletxean, euskara ikasteagatik edo UEUn parte hartzeagatik; baita hizkuntza paisaia euskaraz sortzeagatik ere –errotuluak edo webguneak euskaraz jartzea–.

A10: hautesle errolda

Hilaren 7ra arte ikusgai dago, udaletxean.

Mintzalaguna

Izena eman daiteke, udaletxean edo euskara@aramaio.eus-en.

Zuntz optikoa

Arazoak izaten ari diren herritarrek udaletxera jo dezatela.

Ur parkea

Amaitu da denboraldia, hurrengo udaberrira arte.

Jubilatuen Eguna

Azokan parte hartzeko izena, hilaren 15a baino lehen.



Jaietako ekitaldi bat. GOIENA

Asteburuan ospatuko dituzte Untzillan aurtengo jaiak

Bertso afaria izango da gaur Aitor Sarriegi eta Agin Labururekin. Bihar, berriz, meza, trikitalariak eta puzgarriak eguerdi partean; 16:00etan, mus txapelketa, eta 17:00etan, txokolate jana eta Eriz Magoa; gero, Arkaitz Allur eta Maddalen Arzallusekin dantzaldia –afalostean ere bai–. 23:00etan hasiko da bolo txapelketa. Domekan, meza eta bermut dantza izango dira.



Arreta zentroko erabiltzaile, familia eta langileak zortzigarren urteurrena ospatzen. GOIENA

Zortzi urte adinekoei eguneko arreta ematen

Aramaio Lurgorri pasealekuan dagoen eguneko arretarako zentroak dagoeneko zortzi urte bete ditu. Egunerokoan adineko zortzi aramaioarri ematen die laguntza; goizetik hasi eta arratsaldera bitarte jarduera ezberdinak egiten dituzte elkarrekin.

Maialen Santos ARAMAIO

Herriko adinekoei arreta berezia eta laguntza emateaz arduratzen da eguneko zentroa, eta dagoeneko zeregin horiek egiten zortzi urte bete ditu egoitzak. Egun, zortzi erabiltzailei "laguntza emateko" prestatuta dagoen zerbitzua da, eta plaza guztiak daude beteta; izan ere, itzarote-zerrendan izena emanda dute beste lau herritarrek.

Udaleko Ongizate zinegotzi Cristina Etxenasiak adierazi duenez, zerbitzua oso lagungarria da erabiltzaileen familientzako: "Herri txikia da Aramaio eta adineko jende asko dugu. Zortzi lagunendako zerbitzua da, ez da asko, baina, gutxienez, haientzat eta haien familientzat oso zerbitzu inportantea da".

Egoitzako langileek egiten duten lanari ere aipamen berezia egin nahi izan dio Etxenasiak, bere aburuz, "lantalde oso onaz" hornitutako zerbitzua baita herrian kokatuta dagoen eguneko zentroa.

Egoitzaren helburuak

Erabiltzaileen menpekotasuna areagotu ez dadin, prebentzio lana egiteaz arduratzen dira, zehazki, bertako langile Leire Espinosaren esanetan. Hain zuzen, erabiltzaileak jendearekin egon daitezen saiatzeko dira, egunaren amaieran etxean "zer kontatu" izan dezaten.

Eguneko zentroko erabiltzaile izateko, halere, baldintza jakin batzuk bete behar dira. Ezaugarrien artean daude hauexek: 65 urtetik gorakoak izatea, Araban erroldatuta egotea eta menpekotasun gradu zehatz bat izatea.

Erabiltzaileak, pozik

Astelehenetik ostiralera bitarte egoten dira erabiltzaileak egoitzan.

MENPEKOTASUNA AREAGOTU EZ DADIN, PREBENTZIO LANA EGITEAZ ARDURATZEN DIRA ZENTROAN

tzan, eguerdiko hamabietatik arratsaldeko seieta, hain zuzen. Ekintza ezberdinak egiten jarduten dute egunean zehar, eta "oso gustura" egoten direla azaldu du zentroko erabiltzaile Edurne Aranak: "Guztiak iristen garenean, gimnasia egiten dugu, eta, horren ostean, norberak nahi duena egin dezake". Egunkaria irakurtzen edota inguruetan paseatzen ematen dute goiza, eta, ostean, bazkaldu egiten dute. Bazkalostean, gainera, siesta egiteko aukera izaten du hala nahi izaten duenak.

Ospatzeko, ate irekiak

Zortzi urteko ibilbide arrakatsua ospatzeko, ate irekiak egin zituzten aurreko barikuan. Goizean zehar aritu ziren ospakizunetan, eta, tartean, Bizente Goikoetxea abesbatzaren emanaldi labur batez gozatzeko aukera izan zuten egoiliarrek. Mokadutxo batez gozatzeko denbora ere izan zuten erabiltzaileek, beren senitartekoen konpainian.



Aramaixo Tropikala Futbol Kluba, iazko denboraldian. ARAMAIXO TROPIKALA FUTBOL KLUBA

Aramaixo Tropikala areto futbol taldeak domekan hasiko du liga

Aramaixo Tropikala Futbol Klubak etxean jokatu du lehen partidua. Domekan izango da, 18:00etan hasita

M.S. ARAMAIO

Iazko denboraldian lortutako emaitza onen haritik, maila bat gorago-brontzezko mailan, hain zuzen-estreinatuko da taldea, etzi. Aramaion bertan hasiko dute denboraldia, eta Dinamo Lakuabizkarra talde gasteiztarra izango dute aurkari. Are, Pello Abarrategi taldeko jokalaririk azaldu bezala, aurkari guztiak izango dira gasteiztarrik: "Kantopon jokatzeko ditugun partiduko guztiak hiriburuan izango dira".

Hamalau jokalaririk dituzte taldearekin jokatzeko-horietatik lau berriak dira-. Adinari da-

gokionez, 18 eta 25 urte bitarteko gizonezkoak dira guztiak.

Antolaketa, guztien artean

Norgehiagokak prestatzeko asarte eta ostegunetan elkartzen da taldea, entrenamenduak "irekiak" izaten diren arren: "Areto futboleko jokatzeko gogo duen edonor gerturatu daiteke saioetara". Gainera, entrenatzaileak ez dute; taldekideak arduratzen dira taldearen antolaketa egin eta norgehiagoka bakoitzean nork jokatu duen erabakitzeaz. "Txandakatu egiten gara, normalean", argitu du Abarrategik.



NIRE USTEZ

LEIRE ELEJALDE

Grisa ez da deprimentea

Euria ari du eta badirudi zerutik era miraritsu batean ur tanta gardenak erortzeak jendearen aurpegiak aldatzen dituela. Zeruak kolore grisa hartzen du maileguz, botatzeko dagoen ur guztia isurtzen den arte, bederen. Urdirak kantsatzen hasia ninduen. Gainerako guztiek urdina gogoko dutela nabaria da, grisa baino gehiago, behintzat. Ez dut ulertzen. Ortzadarrak ere ez ditu liluratzen; soinuak ez ditu lasaitzen eta kaleetan barrena modu abstraktuan osatzen diren ur putzuak gorroto dituzte. Hemeretzi urte nahikoa al dira euria begitan hartzeko?

Ba al dira hemeretzi urte nahikoa umel dagoena lehortu daitekeela ahazteko? Ba al da denbora aski ur tantak zuhaitzetako hostoetan, loreetan, armiarma-sareetan edota etxeetako leihoetan ikustearen edertasuna aintzat hartzeari uzteko? Ez. Hemeretzi urte ez dira nahikoa inguratzen gaituena berezia dela desikasteko; gutxi da ezohikoa dena arrunt bilakatzeko, ohitzeko.

Gaur euria ari du eta ez nuen espero hodei grisak ikustea gustatuko zitzaidala.

Herria hobetzeko lanean, ekarpenak bideratzen

Aretxabaleta Lagunkoia taldearen bueltan Basotxo erretiratuen elkarteko hainbat lagun dabilta lanean. Herri atseginagoa lortze aldera alor ezberdinak aztertzen dituzte, eta gero, proposamenak egin erakundeei; orain arte egindako 50etik 30 onartu dizkiete

Mirari Altube ARETXABALETA

Dagoeneko hainbat urte pasatu dira Aretxabaleta Lagunkoia ekimena abian jarri zutenetik Basotxo erretiratuen elkarteko kideek. Herriaren alor ezberdinak aztertzen dituzte nagusien ikuspegitik, eta gero, ideiak proposatzen dizkiete erakundeei: "Herriko gabeziak zuzentzeko ideiak dira batzuk; eta beste batzuk, hobekuntzak egiteko", dio taldekide Pedro Etxebarriak.

Lanerako prozesua ondo zehaztuta dute: hamabostean behin ordu eta erdiko bileretan elkar-tu; gaiaren gaineko diagnostikoa egin; ondorioak aurkeztu eta udal ordezkarietara edo dagokion erakundekoekin elkartu. Erakunde horrek ideia ontzat eman duen jakiten dute horrela, baita zelan bideratuko duten ere. Gero, jarraipena egiten diote adostutako horri guztiari. "Era berean, lantaldea osatzen dugun kide guztion parte-hartzea sustatzen da, elkarrekin hitz egiten ikas dezagun", dio Etxebarriak.

Onartutako 50 proposamen

Hainbat gai landu dituzte urteotan. Aire libreko guneei dago-kienez, 50 proposamen egin dituzte eta horietatik 30 onartu dizkiete, bost atzera bota eta hamabost aztertze zain daude. "Onartutakoen artean daude: eserlekuen eredua zehaztea etorkizunari begira, bidegorrian komunak jartzea, Herriko Plazan arrapala egitea, uso kopurua murriztea, kiroldegirainoko bidegorria bukatzea ibai alboan eta pilotalekuan argiak eta irteerak jartzea".

GSR egoitzari dagokionez, hango koordinatzaile taldearekin dihardutela harremanetan aipatu du: "Hango funtzionamendua ondo ezagutzen dutenen iritzian oinarritutako gure proposamenak eman dizkiegu".

Animalien gaiari ere heldu diote; bereziki, txakurrak izan



Aretxabaleta Lagunkoia taldeko hainbat kide elkartuta. ARETXABALETA LAGUNKOIA

IBAIEN EGOERA AZERTU ETA FOKUA JARRI DUTE GARBITASUNEAN ETA MANTENTZE-LANETAN

dituzte berbetarako gai: "Ez da gai samurra, baina elkarbizitza, segurtasuna eta garbitasuna bermatzeko uste dugu arau eta irizpide batzuk ezartzea garrantzitsua dela, eta, noski, txakurren jabeek egunerokoan laguntzea".

Deba ibaia ere izan dute azterketarako gai eta eskualdeko Lagunkoia talde guztiek jardun dute elkarlanean: Antzuolako Landatxope, Bergarako San Jo-xepe, Eskoriatzako Olazar eta Basotxo. Guztira, 80 bat lagun elkartu dira. Kolektoreen eta araztaileen egoera aztertu dute, baita ibaiena ere, eta fokua jarri dute horien mantentze-lanetan eta garbitasunean. "Antzuolako eta Elgetako kolektoreak ez dira iristen araztailera esan digute eta oso garrantzitsua da hori konpontzea. Gainera, jakin dugu araztailerak ezin dutela ezer egin kremekin eta botikekin".

Hori horrela, honako ibai hauek eskatu dituzte: "Garbiak eta naturalak; politik, itxura atsegina dutenak; arrantza egiteko modukoak; irisgarriak; eta aisialdirako gertatuak. Txosten hori udal ordezkarietara helarazi diegu eta Mankomunitateari aurkeztuko diegu".

Ateak zabalik

Lantaldeko ateak zabal-zabalik dituztela adierazi du Etxebarriak, eta txostenak edonoren eskura daudela webgunean: Jubilatuak-debagoiena.com/basotxo.

Euskarazko eskolak

Erretiratuendako euskara eskolak eskaini ditu Leintz Udal euskaltegiak. Arratsaldeetako taldea osatu da, baina goizetan beste bat eratu gura dute. Inork interesa izanez gero, Basotxora jo dezala; izena emateko azken eguna urriaren 9a da.

Futbol zelaia egiten dabilen enpresa zigortu egingo dute

Abuzturako bukatuta egon behar zuen kirol ekipamendua urri bukaerarako egongo dela gertu uste du Udalak

M.A. ARETXABALETA

Futbol zelai berriaren lanak apirilean hasi zituzten, lau hilabetez bukatzeko konpromisoarekin; baina hainbat eragozpen izan dituzte: "Hasieran aurreikusita zegoena baino gehiago induskatu behar izan zuten, eta horrek entrega-epa-ri eragin zion. Abuztuan, amaituta egon behar zuenean, enpresak instalazioaren itxiera perimetrala denboraz ez zuela jasoko jakinarazi zigun. Irailaren erdirako konponduta egongo zela esan arren, data hori ere

ez da bete", azaldu du Unai Elkoro alkateak.

Urri bukaerarako egongo da gertu, baina Sports&Landscape enpresari zigorra ezarri diote: "Aurreikuspenik eza egon da eta horrek denboraldi berriaren zelaia inauguratzea galarazi du. Atzerapen egun bakoitzagatik 175 euroko zigorra jartzea erabaki dugu, legeak ezartzen duen moduan", dio Elkorok. Txosten zigortzailea abiarazi du Udalak, eta obren ardura duen enpresak hamar eguneko epea du alegazioak aurkezteko.

Node konpainiak jarriko du abian Antzerki Hilabetea

Urriarekin batera etorri dira antzezlanak Arkupera-lehenengo eguaztenean izan zen, ikasleendako-, eta domekan (19:00), herritarrendako lana aurkeztuko du Node konpainia donostiarrak-gaztelaniaz-: *Conchita Tou*. Euskal Herriko mediumik onena izango da oholta gainean.

Datorren eguaztenean, osterara, *Mari eta gailera fabrika* eskainiko die 8 urtetik gorako neska-mutikoei Eidabe konpainiak (09:00 eta 10:30). Emakume langileei egindako aitortza da, hain zuzen ere. Eta egubakoitzean, hilaren 11n, Vaiven Producciones taldea *Argiaren hautsa* lanarekin-euskaraz- etorriko da (22:00); sarrerak 4 euro dira.

UDAKoek eta San Juan de Dioskoek futboleko jardungo dute

Buruko Osasunaren Nazioarteko Eguna da urriaren 10a, eta, horren harira, buruko gaixotasunak dituztenen inklusioa aldarrikatuko dute kirolaren bitartez Aretxabaletan. Drogen prebentzioa sustatzeko herriaren egiten dabilta lana aprobe-txatuta, UDA futbol taldeko infantilek San Juan de Dios ospitaleko gaixoei batera jardungo dute futboleko egue-nean bertan.

Ibarra kiroldegian elkartuko dira, 17:00etan, eta hiruko futbol txapelketari ekingo diote. Antolatzaileek jakinarazi dute herritar guztiak daudela gonbidatuta partiduak gertutik jarraitza.

Emakumeen topaketa deitu dute, eta hainbat ekitaldi antolatu

Martxoaren 8ko greba deialdiarekin bat egin zuten Aretxabaletako eta Eskoriatzako udal-etako emakume langileek, eta egun horri dagokion soldatarekin *Eskoriatzako eta Aretxabaletako Emakumeen Topaketa* antolatu dute orain. Kultur programa bat zehaztu dute datorren astebururako: urriaren 11n, egubakoitza, *Ez da kasualitatea* bertso saio

musikatua eskainiko dute Eskoriatzako Zaldibar antzokian (19:00); eta urriaren 12an, sendabelar ikastaroa (09:00) eta *Nomofobikak: sarean kateatuak* antzezlan (19:00) izango dira Aretxabaletan. Sendabelar ikastarorako-mendi buelta eta lan-saioa, norberak egindakoa etxera eroango du-, aurrez eman behar da izena; azken eguna urriaren 9a izango da eta honako helbide honetara idatzi behar da: berdintasuna@aretxabaleta.eus. Argibide gehiago, 21. orrian.



Asier Castellano, Aida Merino, Eukene Marrodan eta Itsaso Diego, HitzHartu akademiako lan taldea. HITZHARTU

Bost urte, Aretxabaleta hezten laguntzen

HitzHartu akademian, adin eta maila askotariko ikasleen arrakasta akademikoa dugu helburu; horretarako, bakoitzaren beharrak, gaitasunak eta gabeziak kontuan harturik eskola pertsonalizatuak eskaintzen ditugu

HitzHartu: 182 ikasle eta 10 irakasle, hamaika zalantza, talde lan, proiektu eta azterketa, 2014ko irailaren 5ean lehen aldiz HitzHartuko atea zabaltu genituenetik.

Nork esango zigun helburua ikasleari irakastea den lan honetan, gu bihurtuko ginela ikasle nagusi. Eta zenbat ikasi dugun! Txiki zein helduengandik: materia ezberdinetako ezagutzetan

sakonduz, ikaslearen lekuan jartzan saiatuz, azalpenak emanez, materiala egokituz, eta abar.

Ezin dugu aipatu gabe utzi ibilbide honetan euskarri izan ditugun Kurtzebarri Eskola eta Arizmendiko irakasleak, ezta hasieratik guran konfiantza jarri duten ikasle zein gurasoak ere. Zorionak bost urte hauetan horrenbeste lan egin ondoren helburua lortu duzuen guztioi!

Aretxabaleta hezten laguntzea zen gure hasierako ametsa, eta zuen esfortzu eta emaitzak erronka betetzeko energia iturri izan dira.

Ingelesa indartu

Inoiz baino indar handiagoarekin ekin diogu ikasturteari, erronka berriekin. Guraso zein ikasleen eskaerei erantzunez, ingeleseko errefortzua indartu nahi dugu etapa berri honetan.

Oraindik ezagutzen ez gaituzuenoi, gure atea zabaltzeko dituzuela gogorarazten dizuegu. Zatozte eta informatu. Zuek hartuko duzue hitza gure akademian, zure erronkak gure egingo ditugu.

**"HITZHARTU
AKADEMIAN INOIZ
BAINO INDARTSUAGO
EKIN DIOGU
IKASTURTEARI"**

hitzhartu
errefortzuakademia

Eta ORAIN, Ingeleseko eskolak
LEARNING IS FUN!

Mitarte 8, tarteko solairua 7 • ARETXABAETA • 943 08 76 32 / 688 72 68 51 • hitzhartu@hitzhartu.com

Sanmigelak, aurreikusitako moduan, ederrak

Aretxabaletako San Migel jaiak arrakastatsuak izan dira, eta, eguraldia lagun, Artisautza eta Nekazaritza Ekologikoaren 25. Feriak, Beinke-Loramendi dantzak, herri kirolek eta izan diren beste zenbait hitzorduk harrera ederra izan dute

Imanol Beloki ARETXABALETA

San Migel jaietan ez dute hutsik egiten aretxabaletarrek, eta hala izan da aurten ere. Asteburuan izan ziren ekintzak jendetsuak izan ziren, eta egin zuen eguraldi apartak ere lagundu zuen horretan.

Kantu afaria izan zen jaietako hasiera emateko pizgailua. 600 lagun inguru batu ziren afaltzeko eta euskal kantuak abestuz jaiak ospatzen hasteko. Zapatuan, 60 postuz osatutako Artisautza eta Nekazaritza Ekologikoaren 25. Feria izan zen. Era berean, bertako Ganaduaren V. Feriak Arlutzeko kantxa hartu zuen. Eta trikitilariak, joaldunak eta bertsolariak kaleak giroten izan ziren.

Honekin batera, Beinke-Loramendi dantzak, abesbatzak eskaintako kontzertuak, eta abarrek harrera ona izan dutela adierazi du Ainhoa Cabero Kultura zinegotziak.

Balorazio aparta Udalak

"Hiru egunetan giro bikaina izan da. Gainera, aurten, base-ritar jantzita gehiago animatu direla ere esango nuke, eta aurten nerabeentzat izan dugun berrikuntza, hau da, disko-festak, harrera bikaina izan du..." esan du Caberok.



Artisautza eta Nekazaritza Ekologikoaren 25. Feria.



Beinke-Loramendi taldeak dantza herrikoiak egin zituen, urtero moduan.



Andra Mari kooperatibaren sustatzaileak, omenaldiko opariarekin. AITOR AGIRIANO

Kuartel zaharra, kultura sustatzeko espazio bihurtu

Urriaren 12rako, 'Kuartel zaharra sekula baino gazteago' jaialdia antolatu dute Kuartela Kultur Elkarteak

I.B ARETXABALETA

Aretxabaletako kuartel zaharreko erabiltzaileek Kuartela Kultur Elkarteak sortu berri dute. Herriko kultura sustatu nahi duen espazio bat sortzea izan da taldea osatzen duten kideen helburua. Musika, dantza, eskulanak... diziplina ezberdinetako artisten eta zaleen topagune bihurtzeko asmoz.

Horretarako, urriaren 12rako, hasiera ekitaldia antolatu dute egun osoko egitarauarekin. Besteak beste, dantza ikuskizuna, bazkaria, kontzertuak... izango dira.

Jarraipena eman guran

30 urte bete dira Guardia Zibilak eraikina utzi zuenetik eta ordutik erabilera asko eman izan zaio eraikinari. Hala, erabiltzaileek kultura sortzen jarraitu gura dutela adierazi dute.

Demode Quartet taldearen ikuskizuna, zapatuan, Arkupen

Demode Quartet Iruñeko laukoteak bere azken ikuskizuna aurkeztuko du Arkupen. Umorea erabiliz, taldearen ikuskizunetan entzuten diren abesti dibertigarri eta ezagunenekin gozatzeko aukera egongo da, ordu eta hoge minutu irauten duen saioan. 20:00etan hasiko da eta sarrerak lau eurotan eskura daitezke Arkupen bertan.




Elkarteko zenbait kide kartelarekin. KKE

Zozketako saridunak

Hauek dira Kuartela Kultur Elkarteak egindako zozketako irabazleak: lehenengo saria, 1.087 zenbakiarentzat; bigarren saria, 1.066 zenbakiarentzat. Lehenengoaren ordezkoa 1.172; bigarrenaren ordezkoa, 1.200.

Bazkietza-kanpaina abian du Kuku Miku Guraso Elkarteak

Kuku Miku elkarteak ikasturte berrirako bazkietza-kanpaina abiatu du. 0-6 urte bitarteko haurrentzat eta euren gurasoentzat erreferentziazko elkargune izateko helburuarekin, egoitza Duranan dago. Bazkietza egiteko epea, bestalde, zabalik dago urriaren 11ra arte, eta urriaren 8rako ate irekiak antolatu dituzte, 18:00etan.



Iturgintza, gasa eta berogailuak
Zelaikoa Baserria, 20 • Apotzaga auzoa
20540 Eskoriatza - Gipuzkoa
943 71 52 51 / 605 71 66 92

**Bainuontziaren
ordez dutxa
jarriko dizugu
EGUN BATEAN!**

**Galdarak
aldatzen
ditugu**

Komunen eta sukaldeen zaharberitze-lanak • Iturgintza-lanak • Energia berriztagarriak

Eskoriatzan, Emakumeen plazan, Eskoriatzan Feminismoa Bizirik taldeak *Txoko feminista* inauguratu zuen unea. IMANOL BELOKI

Udaletako emakume langileen dirua, herriari

Aretxabaletako eta Eskoriatzako udaletan lan egiten duten emakumeek greba egin zuten Martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean, eta kobratu ez zuten diru horrekin emakumeen gaineko ekintza bat egiteko konpromisoa hartu zuten udalek

Imanol Beloki ESKORIATZA

Martxoaren 8a Emakumeen Nazioarteko Eguna da, emakumeen eskubideen aldarrikapenerako eguna. Historian zehar mugimendu feministak lortutakoa ospatu, eta egin denaren eta egiteko dagoenaren inguruan hausnartzeko eguna. Horrekin batera, Martxoaren 8a borrokatzeko eguna ere bada, eta, horregatik, 2019ko greban parte hartzeko hamaika modu egon ziren: lantoki eta ikasgeletan greba egin, tokian tokiko mobilizazioetara joan, zaintza lanak utzi eta amantalak balkoian eskegi, eta ez kontsumitu, besteak beste. Mugimendu feministak adierazi zuen bezala, *konpromiso politikoa* gogoan izanda, betiere.

Hala, Aretxabaletako eta Eskoriatzako udaletako emakume langileek greba egin zuten, eta kobratu ez zuten diru hori herrira bueltatzea nahi dute orain. "Alde batetik, herriarekin ospatu eta guztiok batera haus-

narketa prozesua jarrai dezagun. Eta bestetik, gure egunerokotasunean ikuspegi feminista inplementatu eta sustatzen jarraitu nahi dugulako martxan jartzen ditugun proiektu guztietan", adierazi dute udaletako emakume langileek. Hori horrela, urriaren 11rako Eskoriatzan eta 12rako Aretxabaletan zenbait ekintza antolatu dituzte.

Bertso-saio musikatua

Urriaren 11n, *Ez da kasualitatea* bertso-saio musikatuaz gozatu ahal izango dute Zaldibar antzokira gerturatzen direnek. 19:00etan hasiko da saioa, eta oholtzan hiru bertsolari izango dira, Malen Amenabar Larrañaga, Nerea Ibarzabal Salegi eta

**URRIAREN 11RAKO
ETA 12RAKO ZENBAIT
EKINTZA ANTOLATU
DITUZTE ESKORIATZAN
ETA ARETXABALETAN**

Oihana Bartra Arenas, eta haiekin batera bi musikari, Gari Otamendi Arrieta gitarran eta Araitx Bizkai Villanueva biolinean. Aurkezle lanetan, berriz, Maite Berriozabal izango da.

"*Ez da kasualitatea*-ko saioetan bertsolariak eta gai-jartzailea emakumezkoak izaten dira eta hortik abiatuta jarri diogu izenburua egitasmoari, oraindik, zoritxarrez, gizonezko osaturiko saioak baino ez baitira kasualitatez izaten".

Aretxabaletako ekintzak

Urriaren 12an, berriz, bi ekitaldi izango dira Aretxabaletan. 09:00etan, Arkupetik abiatuta, mendi buelta egin, eta sendabelarrak ezagutzeko aukera izango da, ostean, Ekoudalax-en eskutik. Izen-ematea urriaren 9ra arte izango da zabalik, *berdintasuna@aretxabaleta.eus* helbide elektronikora idatziz. 19:00etan, berriz, *Nomofobikak*: Sarean kateatuta antzezlan izango da, Arkupen.



ESKOZAP ELKARTEA

Ayotzinapako ikasleak gogoan

EskoZap taldeko kideek elkarretaratze berezia egin zuten pasa den egunean Eskoriatzako plazan. Ayotzinapan (Mexiko) 43 ikasle normalista desagertu zirela bost urte pasa dira, eta elkartasuna adierazteko asmoz burutu zuten ekintza. Protesta gisa, ikasle bakoitzeko argazki eta kanela bana jarri zuten, eta desagertuen ikurra den dortoka baten irudia marraztu.



LUIS EZEIZA HERRI ESKOLA

Klima babestearen alde

Klimaren aldeko mundu greba babestu dute Luis Ezeiza Herri Eskolakoek. Horretarako, ikasle eta irakasle guztiak patioan elkartu ziren, pasa den egubakoitzean, eta gela bakoitzak klimaren aldeko aldarrikapen bat egin zuten, marrazki bat eginda edo lelo bat idatzita. Txalo zaparrada batekin amaitu zuten ekintza sinbolikoa.





Berbalagunak 10 urte ekitaldian, Zaldibar antzokian batu zirenek ateratako talde argazkia. IMANOL BELOKI

Testigantza hunkigarriak hamar urteko errepassoan

Eskoriatzako Berbalagunak taldeak hamargarren urteurrena ospatu zuen eguaztenean, Zaldibarren. Bertan, urte horietan izandako koordinatzaileak, berbalagunak eta bidelagunak batu ziren, egitasmoaren esperientziak partekatzeko

Imanol Beloki ESKORIATZA

Euskara ardatz izanda, ekitaldi ederra izan zuten Eskoriatzako Berbalagunak, eguaztenean, Zaldibar antzokian. Hamar urtean izan dituen koordinatzaileak, berbalagunak, bidelagunak eta taldearekin elkarlanean aritutako zenbait kide batu ziren bertan, *10 Berba, 11 lagun* lelopean ospatutako ekitaldi bere-

zian, baita ekitaldiaz gozatu nahi izan zuten herritarrak ere.

Hala, Eskoriatzako Berbalagunak taldearen 10. urteurrena ospatzeko hamar hitz hautatu zituzten egunerako: abentura, sorpresak, harremanak, herria, euskaraz, ikasi, taldea, *belarriprest* eta *ahobizi* eta berbalagunak. Hitz bakoitza oinarri izanda, Eskoriatzako Berbalagunen

hamar urteko ibilbidea eta kontakizun bat edo beste kontatzeko aprobetxatu zuten. Horrekin batera, egunerako prestatutako ikus-entzunezkoa ikusteko aprobetxatu zuten. Egindako ekintzen errepassoa egin zuten argazkitan, lehenengo: mintzodromoa, irteerak, afariak, Zaldibar antzokian egindako ekitaldiak, Euskaraldia... Ondoren, urte horie-

tan izandako zenbait kideren testigantzak entzun zuten momentua izan zen. Ekitaldiko une hunkigarriena izan zen hura.

Testigantza hunkigarriak

Berbalagun taldean aritutako edo gaur egun ari diren partaideek beraien iritzia eman zuten egitasmoaren bueltan: "Euskara praktikatzeko baliabide garrantzitsua da"; "Elkar ezagutzeko bestelako modu bat bilatu daiteke Berbalagunetan"; "Garrantzitsuena pausoa ematea da, lotsak eta beldurrak alde batera utzi, eta askatasun guztiarekin berba egiteko talde irekia baita"; "Edozein herritarrri gomendatzeko moduko egitasmoa dela esango nuke nik"; "Guraso Berbalagunak taldeak haurrekin euskaraz hitz egiteko bidea ematen dit"... halakoak nabarmendu zituzten, besteak beste.

Ituñoren magia

Ekitaldia girotzeko, Imanol Ituñoren magoaren saioa izan zuten bertaratu zirenek. Gertuko magia, areto magia, publiko handiarentzat, txikiarentzat, nagusi zein umeentzat eskaintzen du saioa bilbotarrak, eta oraingoan ere ez du hutsik egin; izan ere, harrituta utzi zituen ikusleak bere trukoekin, eta umorea ere e zen falta izan.

Parte hartzeko egin beharrekoa

Ikasturte berrira begira, lanean hasi dira Berbalagun taldeak, baina interesa duen edonork har dezake parte bertan. Horretarako, *berbalagunak@gmail.com* helbide elektronikora idatzi, 661 74 63 76 telefono zenbakira deitu edo, talderen bat ikusiz gero, beraiengana gerturatzea dela bidea adierazi dute.



IRATXE ARRESE
KOORDINATZAILEA

"Zenbait talde ditugu, eta giro ederra izaten da guztietan. Herri euskaldunagoa egiteko proposa dela diote partaideek, eta nik ere hala uste dut".



MAIDER NAFARRATE
BIDELARIA

"Duela hamar urte abentura moduan hasi ginen, eta jarraipen handia izan du, aberatsa den egitasmo bihurtuz, eta euskaraz bizitzeko aukera emanaz".



JUANITO URIARTE
BIDELAGUNA

"Hiru urte daramatzat Berbalagunetan, eta esperientzia izugarria da. Euskara erabili beharra dago, eta horretarako bidea ematen du egitasmo honek".

Omenaldi jendetsua

Irailaren 29an, 65 urtetik gorakoek omenaldia jaso zuten pilotalekuan. Bazkaltzeko 190 erretiratu inguru elkartu ziren, eta ostean, emakume eta gizonezko nagusienak omendu zituzten: Elena San Vicente, 96 urtekoa, eta Pablo Gamboa, 101 urtekoa. San Vicenteren lore sorta eman zion Joserra Zubizarreta alkateak eta Gamboari txapela jarri zion Maite Uribe zinegotziak.



ESKORIATZAKO UDALA

'Agur, Etxebeste!' filma, zapatuan eta domekan ikusgai

Asier Altunak eta Telmo Esnalek zuzendutako *Agur, Etxebeste!* pelikula ikusteko bi saio izango dira asteburuan Zaldibar antzokian. Zapatuan, 19:00etan, eta domekan, ordu berean, euskaraz, gaztelerazko azpitoluekin. Sarrerak geratzen diren arren, aurrez erosi behar dira, Manuel Muñoz kiroldegian, lau eurotan.

Urriaren 25eko bertso-saiorako sarrerak salgai daude

Egokiena elkartean bertso-saioa izango da urriaren 25ean, 21:00etan hasita. Bertan, Haizea Arana, Oihana Arana, Unai Iturriaga eta Onintza Enbeita bertsolariak izango dira bertaratzen direnei abesten, eta gai-jartzailer Xabier Arenaza arituko da. Sarrerak astelehenetik daude salgai, 25 eurotan, Inkernun eta Goxo-Txikin.

Kanpoan irabazita hasi dute erronka berria

Eskoriatza areto futbol taldeak maila nazionalako denboraldia pasa den asteburuan hasi zuen. Batzarre talde gasteiztarraren aurka etxetik kanpo jokatu zuen, eta, 3-4 irabazita, bikain hasi dute erronka berria Iker Molina entrenatzailearen mutilek

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatza areto futbol taldeak pasa den asteburuan izan zuen maila nazionalako denboraldi berriaren lehenengo jardunaldia. Denboraldi-aurrea behar den moduan prestatzen aritu izan dira; izan ere, urte dezente dira maila honetan ez zuela Eskoriatzak jokatzeko. Hala, erronka berria gogoz hartuta, eta lehenengo partidua etxetik kanpora izanda, hiru puntuak batuta bueltatu ziren eskoriatzarrak, Abetxuko kiroldegian Batzarre taldeari 3-4 irabazi ostean.

Markagailuari buelta emanda

"Gogotsu joan ginen denboraldi berriko lehenengo partidura, baina ez ginen oso fin aritu lehenengo zatian. Izan ere, 2-0 galtzen hasi ginen, baina atsendaldiaren aurretik berdinke-ta lortu genuen. Horren ostean, markagailuari buelta eman, eta hiru puntuak eskuratuta, maila nazionalan ondo hasi gare-



Partidu aurretik berotzen. ESKORIATZA K.E

la esan dezakegu. Edozelan ere, lehia estua izan genuen, eta aurten hori tokatzen da. Talde gogorak izango ditugu urte osoan zehar, eta helburuak maila mantentzea izan behar du", adierazi du Iker Molinak, Es-

koriatza areto futbol taldeko entrenatzaileak.

Etxean, domekan

Denboraldiko bigarren jardunaldian, berriz, domekan 18:00etan jokatu du Eskoriatzak, Santurtzi taldearen aurka, Manuel Muñoz kiroldegian. Horrela, hasiera onari jarraipena emateko asmoz, zaleei kiroldegira joan daitezen eskatzen diete taldekideek.

Lau taldeen garaipena

Maila nazionalako areto futbol taldeaz gain, Eskoriatza areto futboleko talde guztiak garaipena lortu dute lehenengo jardunaldian. Senior mailako emakumezkoek 5-1 irabazi zioten -liga hasi barik, lagunartekoa- Beti Gol taldeari; Gipuzkoako bigarren mailako Eskoriatza taldeak, berriz, 3-2 irabazi zion Ostiko Sindikatu tabernari; eta gazte mailakoek 5-0 irabazi zioten Lauburu taldeari.



Udaleko eta Mankomunitateko ordezkariak Txinako bisitariekin. IMANOL BELOKI

Auzo-konpost gunea bisitatzen izan dira Txinako teknikariak

Hondakinen kudeaketa ezagutzeko eta euren egoerara egokitzeko, Gatzagako ereduak ikusten izan dira

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Hondakinen kudeaketa, hiri garbiketa eta ingurugiroa ardatz duen ISWA World Congress Bilbao 2019 kongresua izango da Euskalduna jauregian urriaren 7tik 9ra bitartean, eta, horren bueltan, Txinako zenbait teknikari, politikari eta ikasle auzo-konpost gune ezberdinak bisitatzen ari dira. Hain zuzen ere, Leintz Gatzagan izan ziren atzo, bertako funtzionamendua ezagutzen.

Luar enpresako eta Gatzagako hondakinen teknikari Joseba Sanchezen eskutik Euskal

Herriko bio-hondakinen kudeaketa instalazio diferenteak ikusten aritu dira bi egunez, eta Txinan duten hondakinekin arazoari buelta emateko asmoz daudela bisitak egiten adierazi du Sanchezek: "Gurekin kontaktatu zuten txinatarrek, mundu mailako ISWA kongresuan ikerketa eta plana aurkeztu genuelako. Hala, tokian bertan ezagutu gura izan dute auzo-konpost gunearen funtzionamendua, dituen arazoak, abantailak, eta hemen ikusitakoa euren egoerara egokitzea da duten asmoa".



NIRE USTEZ

NEREA GORDEXOLA HERRITARRA

Orri multzo bat baino gehiago

Egongelako apaletan apaingarri bezala erabiltzen diren orri multzo hilak ikusten dira etxe orotan.

Hautsez beteriko hitz jokoak, arnasa sakonki hartzerik ez dutenak. Itotzen uzten dira, hauen hileta eguna heltzen den arte, non apal horretatik hartu eta ganbarara igotzen diren, beste apaingarri batzuekin ordezkaturik. Bertan, multzokatuta, kutxa handitan pasatzen dituzte urteak eta urteak, hautsa pilatuz berriz ere, nola ez. Hala ere, kaxa handi

horietan gordetzen direnak altxor txikiak direla ez gara konturatzen askotan. Noizbait, pertsona baten irudimenetik sortutako istorioak islatzen dituztenak. Hitzak dantzan jarriz, paper multzo horietan ongi antolatuta pilatzen direnak. Askotan, *liburu* edo *irakurketa* hitzek, gogorik gabeko hasperen bat suposatzen dute pertsona gehienetan, ekintza aspergarria bilakatuz, normalean loaren bidea sustatzen duena. Aginduta, nekez burutzen

den akzio bilakatuta, alde batera uzten dena. Baina, ikuspegiz aldatuta, liburu bat hau ere izan daiteke: entrenitzeko, jolasteko modu bat. Pentsatzeko modu bat. Ikasteko modu bat. Plazera sentitzeko, gozatzeko modu bat. Komunikatzeko modu bat. Barre, negar egiteko modu bat. Inoiz amestutako munduan murgiltzeko modu bat. Errealitatetik irteteko aukera bat. Irudikatuzko, imajinatuzko txoko libre bat. Besterik gabe, bizitza ikusteko, bizitzeko era bat.

Gatzaren zabalkundean urrats bat gehiago egiteko ospakizuna

Urriaren 13an, domekan, ospatuko dute, laugarren urtez, Leintz Gatzagan Gatzaren Eguna

I.B LEINTZ GATZAGA

Gatzagako Udalak Debagoieneko Mankomunitatearekin eta Deba Garaia Landa Garapen Elkartearekin batera Gatzaren Eguna antolatu du, laugarren urtez. Urriaren 13an izango da, eta gatzaren kulturaren zabalkundean beste urrats bat egiteko egitarau zabal antolatu dute.

11:00etan hasi eta 14:30ak arte, bi azoka izango dira plazan: artisau azoka eta gatzaren eta produktu ekologikoen azoka. 10:00etan, mendi ibilaldi gidatua izango da, *Gatzaren paisaia*, be-

girada bat lurrazalean eta lur azpian izenpean, Jakoba Errekondo paisajistik eta EHUKo geologian aditu batek gidatua. Horrez gain, sagar-jotzea eta zurezko plaza jokoak ere izango dira bertan. 17:00etan, aldiz, Kilimak musika taldeak eskaintzen duen euskal rumbaz gozatu ahal izango dute bertaratzen direnek.

Gatz Museoa, 11:00etan, barazkiak kontserbatzeko gatz-urez eginiko fermentazio tekniken tailerra izango da, eta baita ohiko bisita gidatuak 11:00etan, 12:00etan eta 13:00etan.



Passion for Wolframium jardunaldiaren amaieran talde argazkia atera zuten San Martin plazan. BERGARAKO UDALA

Elhuyar anaien wolframa, belaunaldi berriei zientzia helarazteko elementu gisa

Elhuyar anaien 1783an wolframa bakartu zuten lekutik oso gertu, Seminarixoa, solasaldi interesgarria gidatu zuen Pedro Miguel Etxenik martitzenean; goraino bete zen aretoan, Dudley Herschbach Nobel sariduna eta Maria Vallet-Regi ikerlaria aritu ziren berbetan

Jokin Bereziartua BERGARA

Ez da kasualitatea mundu mailako sona duen *Passion for Knowledge* (P4K) 2019 jaialdiaren geltokietako bat, Donostiarekin, Bilborekin eta Iruñearekin batera, Bergarako Seminarixoa kokatu izana. Elhuyar anaien 1783an Bergarako errege seminarioan wolframa isolatu izana ez delako ahuntzaren gauerdiko eztula izan sekula mundu mailako zientzialarientzat. "Euskaldunok harro egon beharko ginateke horren garrantzitsua den wolframa moduko elementu bat hemen, Bergaran, isolatu zelako", adierazi du jaialdiaren antolatzailer Donostia International Physics Center-eko (DIPC) presidente Pedro Miguel Etxenik.

"Zientzialari eta pertsona handia"

Passion for Knowledge (P4K) 2019 jaialdian egin diren hamai-

ka hitzaldi eta ekitalditan 10.000 herritar inguruk hartu dute parte; jaialdia martitzenean heldu zen Seminarixoa aretora, eta, Bergarako jardunaldia izanik, *Passion for Wolframium* moduan bataiatu zuten antolatzaileek -Laboratorium museoarekin eta Udalarekin elkarlana ezinbestekoa izan da-. Zazpi Nobel saridun eta nazioarteko hainbat aditu ari dira parte hartzen bihar, urriak 5, amaituko den jaialdian, eta Nobel saridun horietako bat izan zen martitzenean Bergaran: Dudley Herschbach (Kalifornia, Ameriketako Estatu Batuak,


DONOSTIAN, BILBON, IRUÑEAN ETA BERGARAN EGIN DIRA ZIENTZIA JAIALDIKO JARDUNALDIK

1932). "Herschbach aurkeztea zaila eta erraza zait, aldi berean. Zaila da alderdi askotako pertsona delako, eta arlo horiek guztiek liluratuta naukatelako. Baina erraza da, oso pertsona handia delako. Hitz bitan definitu beharko banu esango nuke zientzialari eta pertsona handia dela", dio Etxenik. Euskal zientzialari ezagunak egin zituen solasaldiko moderatzaile lanak.

Kultura zientifikoa hedatzea

Harvard Unibertsitateko irakasle ere bada Herschbach, eta pozik zegoen Seminarixoa ikasle goraino beteta ikusita. Kultura zientifikoaren defendatzaile handia da, eta hitzaldiak ematen ditu adin guztietako ikasleentzako, betiere, zientziaren eta aurkikuntzen aldeko grina transmititzeko asmoz. Bi zientzialariek ezagutzak eta bi-


'Passion for Wolframium' jardunaldia



DUDLEY HERSCHBACH
KIMIKAKO NOBEL SARIDUNA

"Nobelaren aurretik inork ez zidan elkarrizketak egiten"

"Normalean, telefonoz iragarri izan ohi da, baina nire kasuan oso kuriozoso izan zen. Prentsa etorri zen nire etxera Nobel sariaz galdetzeraz eta nire lehen erreakzioa izan zen galdetzea nor izan zen irabazlea. Nire antzeko izena zuen beste bati deitu zioten konfusioz Suediatik; gaixoa hura. Nobel saria jasotzea zoragarria izan zen. Askok galdetzen didate nola aldatu den nire bizitza nobela jaso nuenetik; aldatu den bakarra da lehen inork ez zizkidala elkarrizketak egiten eta orain kazetari asko ditudala atzetik..."



MARIA VALLET-REGI IKERLARIA
KONPLUTENSE UNIBERTSITATEAN

"Protesietan hezurak badaki kanpoko zerbait jarri zaiola"

"Nire ikerketa lerroaren erronka nagusia da hezurak ez dezala jakin jartzen ari zaren hori berezkoa den edo kanpotik datorren. Protesi guztietan hezurak badaki jartzen ari zaion hori kanpotik datorren zerbait dela; gurea naturalagoa da. Hori lortu dugu hezurretako defektu txikiak birsortzeko; defektu txiki deitzen zaie karga handirik jasan behar ez duten egoerei. Izan ere, defektuak handiagoak direnean eta karga dutenean, hezurak oso hauskorak dira; egoera horietarako, gaur-gaurkoz, protesiak erabili behar ditugu".

zipen pertsonalak partekatu zituzten ikasleekin eta publiko orokorrarekin.

Herschbach-en ondoan egon zen solasaldi osoan zehar Madrilgo Unibertsitate Konplutenseko ikerlari Maria Vallet-Regi (Kanaria uharteak, 1946). Biomaterial Adimendunen Ikertaldea gidatzen du eta hainbat estrategia ari dira garatzen hezurrei lotutako gaixotasunak sendatzeko, hala nola minbizia, osteoporosia eta inplanteetan sortutako infekzioak. Bi gonbidatuek aukera izan zuten, aldi berean, Laboratorio bisitatzeko, Gorka Artola alkatearekin eta Laboratoriumeko zuzendari Rosa Errazkinekin batera. Hizlariak oso gustura geratu ziren bisitarekin.

Gazteek balioa eman diezaiotela Hain zuzen, alkateak jardunaldiaren hasieran hartu zuen hi-

SEMINARIXOKO SAIOAREN OSTEAN LABORATORIUM BISITATU ZUTEN BI HIZLARIK

tza. Halako mailako hizlariak izatearekin oso pozik agertu zen Artola: "Ez da eguneroko kontua Nobel saridun bat gurean izatea [...]. Taula periodikoaren elementu bat hemen isolatu izana lorpen handia, harro egoteko modukoa, eta Bergarako *Historic Site* izendapena jaso izanak [2018an] eta zuek gaur [martitzenean] hemen egoteak lorpen horren gaineko perspektiba bat ematen du. Horregatik dagokigu bergararroi, euskaldunoi, oro har, eta, bereziki, gazteoi aurkikuntza horri merezi duen balioa ematea. Iraganean egin izan dugun moduan, etorkizunean ere mundua eta gizartea hobetzeko ikerketan jarraitu dezagun".

Gogoetak partekatzeo aukera

Bi gonbidatuek euren ezagutzak eta bizipen pertsonalak partekatu zituzten. Hitzaldiaren amaieran, gerturatu ziren Bigarren Hezkuntzako ikasleek, herritar arruntek eta hurbildu ziren adituek, zientzialariek solasaldian parte hartzeko aukera izan zuten, hainbat gogoe-ta partekatuz. Azkenik, argazkia atera zuten guztiek elkarrekin San Martin plazan.

'Etxebeste'-ren bueltan, eztabaida osoko bilkuran

'Agur, Etxebeste!'-ren Seminarixoko estreinaldiaren bueltan ikuspegi ezberdinak dituzte EH Bilduk eta EAJk; jeltzaleen ustez ez zitzaion nahikoa etekin atera ekitaldiari eta Gobernuak dio ez zela gutxiestekoa izan; sei emanaldietarako 1.524 sarrera saldu dira

Jokin Bereziartua BERGARA

Agur, Etxebeste! pelikularen lokalizazio esanguratsuenetako bat izan den Bergarako udal-teatroko osoko bilkuren aretoa pelikularen estreinaldiaren gaineko eztabaidaren lekuko izan zen astelehenean. Osoko bilkurak ez zekarren berez gai bereziki esanguratsurik, baina, galderen eta eskaeren tartean, EAJk mahai-gaineratu zituen gaien artean lehena izan zen *Agur, Etxebeste!* filmaren Seminarixoko estreinaldia.

Jeltzaleen ustez, irailaren 25eko ekitaldiari ez zitzaion nahikoa zuku atera. "Zinemaldian bota ostean ekarri zuten pelikula Bergarara, eta atera zaion etekina oso eskasa izan da. Pribilegiatuak izan ginen bi zuzendariak izan genituelako pelikularen aurreko solasaldian, baina oso jende gutxi egon zen. Komunikazio aldetik ez zen nahikoa egin; halako ekitaldi bati etekin gehiago nola atera aztertu egin behar da, bai ala bai", uste du EAJko Elena Letek.

EH Bildu, "pozik" ekitaldiarekin Udal Gobernuak ez da iritzi berekoa; estreinaldiaren aurreko solasaldian jende gutxi egon bazen ere, pozik daude estreinaldiak berak eta osteko emanaldiek bergararren artean izan duten harrerarekin. "Ekitaldiak harrera oso ona izan zuen; sekulako giroa egon zen areto barruan, eta baita irteeran ere. Bi zuzendariak eta aktoreak bertan zeuden... Ez dut uste gutxiesteko ekitaldia izan zenik. Oso polita izan zen, jendeak gustura hartu zuen, eta ondorengo ikusle kopuruak ere harrera on hori berresten du", deritza Gorka Artola alkateak.

Araozak sistemarekin, hasieratik EAJk, aldi berean, salatu zuen irailaren 25eko emanaldi berezi horretarako Seminarixoko



Irailaren 25eko estreinaldia; hurrengo bost emanaldietan ere bete da Seminarixoa. M. B.


EGUBAKOITZETAN, DOMEKETAN ETA ASTELEHENETAN ZINE KOMERTZIALA; KLUBA, EGUAZTENETAN

"Eraginkorrak" izateko jarrera

Aurreko agintaldiko osoko bilkurak luzeak izan ohi ziren, eta azken bilkura aprobetxatu nahi izan zuen Elena Letek, EAJk "oposizio eraikitzailea" egingo duela esan eta bilkurok motzagoak izatea espero duela aldarrikatzeke: "Eraginkorrak izan gaitzen". Alkateak dio denok irtengo lirakeela irabazle: "Aurreko agintaldian osoko bilkurak izaten ziren gaiak lantzeko foro bakarra. Gaiak batzordeetan landu behar dira eta hori egiten saiatuko gara; eraginkorrak bagara, denontzat hobeto".

txarteldegiko eta Internet bidezko sistemak huts egin zuela eta jendearen haserrea eragin zuela horrek. Alkateak onartu zuen sistemak akatsak dituela, Seminarixoa martxan jarri zenetik, eta aurreko agintaldian arazo berri eman zuten; "ahalik eta lasterren" irtenbidea ematen saiatuko direla gaineratu zuen alkateak.

1.524 sarrera sei emanalditan Irailaren 25etik 30era sei alditan ikusi ahal izan da *Agur, Etxebeste!* Seminarixoan, eta sei emanaldietan agortu dira sarrak; 1.524 pertsona pasatu dira, hortaz. Hain zuzen, Asier Altuna *Kixi*-ren eta Telmo Esnalen filma izan da oporren osteko Seminarixoko zinema eskaintza ireki duena. Egubakoitzetan, domeketan –sarrera bost euro– eta astelehenetan –lau euro–gozatu ahalko da zinemaz Seminarixoan; urrirako lau programatu dituzte: *Érase una vez en Hollywood*, *Ad Astra*, *Mientras dure la guerra* eta *Lo que arde*. Horrez gain, zinekluba ere martxan jarri dute eguaztenetan, bestelako pelikulak eskaintzeko. Sarrera hiru euro izango da.



NIRE USTEZ

AINHOA NARBAIZA IRIZAR

Kafeak

Lurrik gabeko nekazariak eta segidarik ez dutenak harremanetan jartzeko kafe-transmisioak antolatu dituzte Nafarroa Beherean. Euskal Herriko Laborantza Ganbarak lau gaualdi antolatu ditu nekazaritzan hasi baina lurrik ez daukaten gazteak eta bizitza nekazaritzan eman ondoren baserriaren jarraipenerako segidarik ez daukatenak elkarrizketan jartzeko. Atentzioa deitu eta ze pentsa eman zidan kontu honek. Erreleboaren gaia kontu konplexu samarra baita beste eremu askotan ere: herri mugimenduetan, kultura arloan, elkarte gastronomikoetan, auzo-bizitzan, denda txikietan... Asmatu ezinean ibiltzearen sentsazioa daukat, segidarik ez izatean blokeo moduko bat sortzen da. Erreleboa inork hartu nahi ez duenean zer egin eta nola? Komunitate batean haize berriei leku egiteko, baliabideak konpartitu eta aldaketarako prest egon behar da. Eta ez da erraza horrenbeste urtez zaindu duzun horri beste batek beste era batean helduko diola pentsatzea. Bizi esperientziak, ikaspenak eta ezagutzak transmititzeko espazioak sortu eta kafeekin hasi beharko.

GORA ETA BEHERA



O.E.

Labegaraietan berriro jarri dute panela



Herribusaren gaineko panel informatiboa berriro jarri dute Labegaraietako autobus geltokian. Zerbitzuaren erabilgaitzaile batek eskertu egin du informazio hori berriro erabilgarri izatea.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo ☎ 688 69 00 07.

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

Jeltzaleak "arduratuta" Udalaren jardunarekin

Bergarako EAJk Udal Gobernuaren lehen 100 egunen balorazioa egin zuen eguaztenean. Adierazitakoaren arabera, Udal Gobernu "noraezean" dabil eta EH Bilduk oposizioarekin duen harremana "eskasa" dela salatu dute

Jone Olabarria BERGARA

EAJk Udal Gobernuaren lehen 100 egunen balorazioa egin du asteon eta "arduratuta" daudela adierazi dute, ez baitute EH Bilduren "plan zehatzik ezagutzen" eta orain arte egindakoa eurek "hasitakoaren jarraipena" bezala sailkatu dute.

Era berean, "nahiz eta oposizioetik, helburua programan hitz emandakoa betetzea" dela jakinarazi dute.

Udala, "noraezean"

Ekaineko udal egitura "egunetik egunera" aldatzen doala salatu dute, baita esparru batzuk "oraindik egituratzeko" daudela. Horretaz gain, Udal Gobernu "noraezean" dabilela eta erabaki asko "hartu gabe" daudela adierazi dute: "Laboratoriumen kudeaketa non eta nolakoa izango den ez dakigu, bizikidetzako mahaia ez dago osatuta, inmatrikulazioak nola bideratuko diren ez dakigu, ez daukagu Mugikortasun Planaren berririk eta ez dakigu zer forma hartuko duen".

Parkinga: "Aurrerapausorik ez"

Seminarixoko lur azpiko parkinga eraikitzea "garrantzi eta konpromiso handiko" proiektua dela adierazi eta Gobernuak "bihilabetetan honen inguruan inongo aurrerapausorik eman ez izana" salatu dute: "Proiektu osoa bukatuta utzi dugun arren eta mugikortasun ikuspuntutik aparkalekuaren diagnostikoa eginda izan arren, Udal Gobernuak hala nahi izan duelako, Mugikortasun Plana garatzea erabaki du".

Hala ere, "ados egon edo ez egon", EH Bilduk uztailean hartutako erabakia "onartu" egiten dutela adierazi dute eta ekarpenak egiteko "prest" azaldu dira.

Oposizioarekin "eskasa"

"Gardentasunik eza" eta oposizioarekiko harreman "eskasa"



Maite Agirre, Elena Lete eta Iruñe Galarraga. J.O.

"UDALAK EZ DU BATZORDEETAN LANDU JARDUNA, ETA GARDENTASUNA EZ DU BERMATU"

salatu dute jeltzaleek: "Gu gure esperientzia partekatze prest gaude eta horrela egin genuen gure azken egunean; informazio guztia partekatu genuen. Udalak, baina, 100 egun hauetan ez du jarduna batzordeetan landu, alkatearen dekretuetan baizik; eta, bide horretatik, gardentasuna eta partaidetza ez dira bermatzen".

Horren harira, jeltzaleek haxe adierazi dute: "Oposizioetik ere eraikitzen jarraituko dugu, betiere, hauteskundeetan aurkeztu genuen gure programa jarraituz". Hain zuzen ere, "martxan utzitako" hainbat proiektu jarri dituzte adibidetzat: "Algodonerako tunelaren konponketa, Amillaga gune industrialeko azpiegiturak berritu, LED argiteria osatu, gazteleku dinamika berria definitu, eta abar".

Helburua, proiektuak garatzea

"Nahiz eta oposizioetik, helburua programan hitz emandakoa betetzea" dela jakinarazi dute. Horretarako, hiru ildo ezberdin nabarmendu dituzte: "Ondarea balioan jartzen duten proiektuak, lurralde kohesioa lortzeko asmoa dutenak eta herritarrak helburu dituztenak".

Hala, lehen multzoan sailkatu dituzte, esaterako, San Pedroko gangen gainean ondareko ibilbidea hitzartu eta gauzatzea eta Dolmenen Ibilbidea indartzea.

Lurralde kohesioa lantzeko helburuarekin, berriz, San Martin plazaren birmoldaketa, Simon Arrieta eta Martoko plazak berrietzea eta San Lorentzo eta Matxiategiko zubia eraikitzea. Horretaz gain, Bidegorrien sarea gauzatzen jarraitu nahiko lukezela azaldu dute.

Azkenik, "herritarrengan pentsatuz", adinekoen ongizatean lanean jarraituko dutela adierazi dute: gazteen nahiak entzun eta betez, enplegua bultzatuz, enpresei laguntza emanez eta ekintzaileei laguntzak emanez; eta hileta zibilak egiteko leku duin bat zehaztu nahi dutela jakinarazi dute.

Udalak 16.470 euro banatu zituen bonutan 2018an

Sariak dirutan eman beharrean bonutan ematen jarraituko du Udalak, 2015a ezkerro egiten duen bezala

Jone Olabarria BERGARA

Aurtengoan ere herritarrendako bonu berriak egin ditu Udalak. Iaz, esaterako, 16.470 euro banatu ziren bonutan herritarren artean eta 2019an ere hala lan egingo du Udalak.

Neurriaren helburua da herriko merkataritza eta ostalaritza sektoreak sustatu eta bonuak herriko komertzio eta tabernatan gastatzea. Era berean, herriko merkataritzan eta ostalaritzan kontsumoa "suspertu" nahi du Udalak sistema erabiliz. 2015a ezkerro antolatzen dituen

lehiaketa eta zozketetako sariak dirutan eman beharrean bonutan ematen ditu.

Udalak jakinarazi duenez, bonuak herriko saltoki eta taberna ia guztietan erabili daitezke, eta, bide batez, jakinarazi dute denda edo tabernaren batek horiek erabili nahi ez baditu, udaletxean adierazi behar duela, edo 608 71 07 64 telefono zenbakira deitu.

Hemendik eta urtea bukatu arte, bonu zaharrak eta berriak erabiltzeko aukera egongo dela jakinarazi dute.

Extremaduratik bertsolaritzara, Jon Maiaren hitzaldia

Goiena komunitatea

Jardun / BERGARA

Urriaren 9an, eguaztenean, arratsaldeko zazpietan, Jon Maiak *Desde Extremadura al Bertsolarismo* hitzaldiaz gozatzeko aukera prestatu du Jardunetik. Bergarako San Joxepe erretiratuen elkartearen egingo dugu hitzaldian, eta gaztelekeraz izango da. Ekintza San Joxepeko Hamabostaldi Kulturalaren barruan kokatuta dago.

Era horretara, Jon Maiak Extremaduratik etorritako familia erdaldun batean hazi ostean punta-puntako bertsolari izaterainoko egin behar izan zuen ibilbidea kontatuko digu.

Arrizuriagan jolas gunea eraikitzea, ideia bozkatuena

Bergara Hobetzeko Ideiak lehiaketaren baitan, Arrizuriagan jolas parkea eraikitzea izan da proposamen bozkatuena, 80 botorekin. Guztira, Arrizuriagan egiteko 6 proposamenen artean bozkatzeko aukera zuten herritarrek eta, guztira, 259 pertsonak hartu dute parte.

Ideien artean, hain zuzen, Arrizuriagan "haurrentzako jolas-gunea bat jartzea, desberdina, egurrezko egiturekin eta berberabilitako materialekin, tirolina bat ere jartzea. Berdegunean ur txorrotak jartzea" izan da gustukoena, 80 botorekin. Proposamen bozkatuena izanagatik, ideien egile Nerea Madariagak bonutan trukatzeko 1.000 euro lortu ditu.

OHARRAK

1948an jaiotako ospakizuna

Urriaren 5ean, Laboratoriumera bisita egin eta Tartufon bazkalduko dute. ES71 3035 0009 0091037499 (Laboral Kutxa).

Jardunen eskutik, Xaboi naturalen tailerra

Hilaren 10ean, 18:30ean, Irizar jauregian. Izena eman: 943 76 36 63.

Goialdeko lagunek, hildakoen memorian meza

Labegarrietako elizan, urriaren 6ean, 11:00etan egingo dute.

Bergaratik Jardunaldi Feministetara

Azaroaren 1ean, 2an eta 3an hara joateko auto partekatzea antolatzen dabilta Martxanterak. Izen ematea, gaur Irala kalean.

"Gazteek aurrerapausoa egin beharko dute"

JOSE JAVIER BARKERO BKE-KO TALDE NAGUSIKO ENTRENATZAILEA

Liga hasiera zaila izaten ari da BKErendako. Hiru partidu jokatu dituzte; horietatik bi etxean, eta biak galdu. Bihar, zapatua, Eibarren –Unbe– jokatu dute, 17:45ean

Arantzazu Ezkibel Galdos BERGARA
BKEko ohorezko erregional mailako gizonzkoen taldeak puntu bakarra lortu du hiru partidutan. Barkerok egoera azaldu du. **Ez da denboraldi hasiera ona izaten ari talde nagusiarendako.**

Taldea ondo dago, baina egia da ez dugula garaipenik lortu; eta, ondorioz, animoak ez daude onenean... Kontuan hartu behar dugu kategoria konplikatua dela, eta etxean partiduak irabaztea kosta egingo zaigula. Gu ahaleginduko gara, baina ez da samurra izango.

Ze falta izan da?

Uste dut etxean jokatu ditugun bi partiduetako gakoa lehenengo golean egon dela. Bi partiduetan eurak jarri dira aurretik, eta, nahiz eta gu partidua berdintzeko gauza izan, ezin izan dugu irabazi. Defentsa mailan ez gara ondo ibili; egia da aurkariak ez dituztela aukera asko izan, baina eraginkorrak izan dira eta gola egin dute.



Jose Javier Barkero. GOIENA

Diozu urte zaila izango dela. Zergatik?

Bai, urte konplikatua izango da. Esan behar da klubean ere aldaketak izan direla; eta, gainera, aurten ez dira fitxaketarik egin eta herriko jendearekin

jokatu beharko dugu. Espero dugu egoerari aurre egitea.

Helburua mailan mantentzea izango da?

Bai; hasiera batean, erronka hori izango da. Jokalari garrantzitsuak joan dira eta klubetik



Futbol saila osatzen duten taldeen familia-argazkia. IMANOL SORIANO

Futbolariak denboraldirako gertu

Joan zen zapatuan aurkeztu zuten 2019-2020 denboraldia ofizialki. Hamabost talderekin abiatu du denboraldia Bergara Kiroi Elkarteko futbol sailak, eta 300 bat neska-mutiko izango dira, guztira, futbol zelaian lehian.

jarritako helburua ere hori izan da.

Zeintzuk izan dira hainbeste nabarmen dituzun hutsune horiek?

Defentsan pare bat jokalaririk falta dira, eta horien lekua betetzeko ez da inor etorri. Esan daiteke hor egiten dugula huts: defentsa gutxi daukagu. Hori kontuan hartuta, zailagoa da partiduei aurre egitea. Hala ere, nabarmendu behar da jokalaririk garrantzitsuak ditugula taldean, eta, gainera, jokalaririk gazteek aurrerapausoa eman beharko dutela.

Hurrengoa lehia, noren aurka?

Gogorra izango da. Eibarko Urkoren aurka jokatu beharko dugu. Iaz lehenengo geratu zen taldea da eta neurketa konplikatua izango da. Baina gogotsu irtengo gara lehenengo garaipenaren bila.

"DEFENTSAN PARE BAT JOKALARI FALTA DIRA ETA HORIEN LEKUA BETETZERA EZ DA INOR ETORRI"

Berrocal eta Agirre pilotariak, Bergara Hiriko irabazleak

Berrocalek eta Agirrek 22-18 irabazi zuten Zubizarreta Osas bikotearen aurka; final lehiatua izan zen

A.E. BERGARA

Maddi Berrocal eta Naroa Agirre dira II. Bergara Hiriko pilota txapelketako irabazleak, Uxue Zubizarretari eta Uxue Osesi 22-18 irabazi ostean. Finala urriaren 1ean jokatu zuten, eta herritar asko gerturatu zen finalaz gozatzerako. Gainera, Naroa Agirre zestoarrak txapelketako pilotari onenaren saria jaso zuen Reyes Azkoitiaren eskutik.

Final gogorra izan zen, lehiatua, eta iraupen luzekoa. Indarrak parekatuta zeuden arren, azkenean, bikote gorria gehiago izan



Naroa Agirre, pilotari onena. J.A.

zen eta lau tantoko aldearekin irabazi zuen lehia.

Finalaren aurretik, nagusiek erakustaldia egin zuten. Leire Garai eta Olatz Ruiz de Larramendi bikotea 22-19 nagusitu zen Arrate Bergararen eta Naroa Mendizabalen aurka. "Huts askoko lehia izan zen hasiera batean; erditik aurrera, indarrak gogortu egin ziren eta tanto politak ikusteko aukera egon zen. Bai Arratek eta baita Leirek ere tanto politak egin zituzten; Leirek erakutsi zuen aurrealdean abila dela", azaldu du pilota saileko Julen Aranburuk.

Antolatzaileak "oso pozik" geratu dira txapelketan izandako giroarekin: "Jende asko etorri zen finala ikustera, eta pilotarien aldetik ere erantzun oso ona jaso dugu". Hurrengoa antolatzeko "gogotsu" daudela dio.

Eskubaloiko lehenengo taldeak liga hasiko du

Aste bukaeran, eskubaloi saileko hainbat taldek liga hasiko dute. Lehenengo territorialeko mutilek, esaterako, Elgoibarren aurka jokatu dute, zapatuan, 20:00etan, Labegarrietan. Bigarren territorialak etxetik kanpo jokatu du: domekan, 10:00etan, Lezon jokatu dute, Munttarperen aurka.

Etxean jokatu dute beste taldeak izango dira: kadete neskek, zapatuan, 11:30ean, Mutrikuren aurka; eta kadete mutilek, zapatuan, 12:45ean, Hernaniren aurka. Infantil neskek hiruko txapelketako izango dute, zapatuan: 09:15ean Bergara eta Eibar; 09:45ean Eibar eta Elgoibar; eta 10:15ean Bergara eta Elgoibar.

ZUZENKETA

Irailaren 27an argitaratutako GOIENA aldizkariko 46. eta 47. orrietan, Bergarako frontoien gaineko erreportajea kaleratu genuen. Debagoieneko herrien artean Bergara da pilotaleku gehien dituen herria eta erreportajearen helburu nagusia zen egun erabilgarri dauden frontoak zeintzuk diren erakustea. Kazetariak, informazioa batu ostean, Torrekua –ez zen argazkietan erakutsi– eta Toki-Eder frontoak berak zirela ulertu eta, beraz, Bergarak hamar frontoi dituela ondorioztatu zuen. Baina hori ez da horrela. Bi frontoi dira: bat Torrekua, eta besta Toki-Eder. Hori horrela, Bergarak, elizpe eta bestelako paretez aparte, hamaika frontoi ditu gaur egun. Barkatu gaizki ulertuak.

Berreskuratutako lanak ikusgai jarriko dituzte

'Moises Eguren 1927-1976' atzera begirako erakusketa ikusgai jarriko dute Aroztegi aretoan urriaren 11tik 27ra bitartean. Beart elkarteko hainbat lagunek Egurenen lana eta Eguren bera berreskuratu nahi izan dute; haren 107 margolan aurkitu dituzte

Arantzazu Ezkibel Galdos BERGARA
Urte eta erdiko lanaren fruitua ikusgai jarriko dute datorren barikuan. Bearteko kide diren Antton Arrillaga, Jose Luis Azkarate eta Xabier Agirre daude erakusketaren atzean: "Sherlock Holmes detektibearen moduan ibili gara", azaldu du Agirrek. Izan ere, 1976an hil zen apaiz eta margolari bergararraren lanari eta memoriari balioa eman nahi izan diote. "76an hil zen; garai zailak ziren eta ez zen ezer egin... ahaztuta geratu zen. Apaiza izateaz gain, margolari ona zen Eguren. Progresista zen eta gazteekin samur konektatzen zuen...", nabarmendu du Agirrek. Hala, pertsonai hori "berpiztu eta berreskuratu" nahi izan dute.



Egurenen egindako autorretratuak. BEART

107 pieza dituzte

Prentsaren laguntza izan dutela nabarmendu du Agirrek. Izan ere, Moises Egurenen margolanak bilatzeko hainbat deialdi egin dituzte azken urtean. "Ez ditugu denak aurkitu, baina bai 107 pieza", dio.

Aurkitu dituzten pieza horiei argazkiak atera dizkiete eta katalogatu egin dituzte: "Egurenen badu oraindik anaia bat, apaiz bat, eta hark baditu hainbat koadro. Gainontzekoak partikularrenak dira. Izan ere, margolarian saldu egiten zituen margolariak".

Argazki zaharrei begira jarrita, badakite Egurenen, gutxienez, beste hamasei bat koadro margotu zituela, aurkitu ez dituztenak: "Ez dakigu zer gertatuko zitzaizen edo non dauden... baina jakin badakigu margotu zituela".

Barikuan, erakusketa zabalik

Urte eta erdiko ikerketa lanak "bere emaitzak" eman dituela azaldu du Agirrek. "Erakusketan ezin ditugu koadro guztiak jarri, aretoak berak mugak jartzen dizkigulako. Jarriko ditugu Egurenen koadro esanguratsuenak;

ERAKUSKETAN 44 PIEZA JARRIKO DITUZTE IKUSGAI, EGURENEN LAN ESANGURATSUENAK

guztira, 44 pieza. Erakutsiko dituzten piezak izango dira natural hilak, paisaiak eta erretratuak. Erakusketa urriaren 11an, barikua, zabalduko dute. Oraindik zehaztu ez duten arren, inaugurazio ekitaldian zerbait egitea aurreikusten dute.

Erakusketa harrigarria izango dela ere nabarmendu dute: "Ahaztuta dagoen margolari handi bat aurkituko du jendeak".

Ikerketa, katalogazioa eta erakusketaren muntaketaren koordinazioa Agirrek, Azkaratek eta Arrillagak egin duten arren, Bergarako Udalaren laguntza eta babesa izan dute.

Gazteengan izan zuen eragina

Santa Marina parrokiako abadea zen Moises Eguren (Bergara, 1927-1976), Don Moises izenez ezagutzen zutena Bergaran. "Gizon xarmagarria eta langilea

zela" diote ezagutu zutenek, "beti laguntzeko prest zegoena, eta oso maitatua zena herrian". Oso gazte hil zen, bat-bateko gaixotasun baten ondorioz. Agirrek nabarmendu du Egurenen samur konektatzen zuela gazteekin: "Gogor saiatu zen margolari gazteagoen zaletasuna sendotzen eta haien ikusmirak zabaltzen. Oso marrazkilaria ona, gogoetsua eta bikaina zen erretratu-gintzan".

Hala ere, nabarmendu dute konformismo gutxiak zela bere estiloarekiko. "Gainera, pintura tradizioaren jakitun eta aditua zen, eta Bergarako pintura-eskolari eboluzio nabarmena ekarri zion kolore kontuetan", gaineratu du Agirrek.

Pintura arloan figurazioaren arloan egiten zuen lan: "Errealitatea irudikatu nahian, baina zehaztasunak sinplifikatuz, hau da, forma aldetik sintesi bat egin. Pintzelkada indartsua eta zabalduen, detaile txikietan sartu gabe espresibitatea landuz", azaldu du Agirrek.

Erakusketa datorren barikuan zabalduko dute, urriaren 11n, eta urriaren 27ra arte egongo da ikusgai Aroztegi aretoan.

Rock britainiar bizia entzuteko aukera egongo da Seminarixoan

Londresko The Godfathers taldeak emanaldia eskainiko du bihar, zapatua, 21:00etan, 8 euroren truke

A.E. BERGARA

The Godfathers talde britainiarra berrituta eta bizituta dator Seminarixora. Bihar, zapatua, emanaldia eskainiko dute. Berrituta datorren arren, taldeko arima eta sortzaile den Peter Coyne-k baxuaren gidaritzapean jarraitzen du. 30 urtetik gorako ibilbidea duen taldea da The Godfathers.

This is war da eskainiko duten zuzenekoaren izena; eta zuzenekoetan zelako indarra duten ikusteko aukera paregabe izango da. Abesti berriez gain, betiko klasikoak ere eskainiko dituzte.

Emanaldia bihar, zapatua, izango da, 21:00etan, 8euroren truke.

Urriko eskaintza

Ikasurte berriko emanaldien egitaraua prest dute udal ardu-



The Godfathers taldea. UDALA

radunek. Urriaren 18an, esaterako, Katapultatour plataformaren barruan, Anai eta Tempera taldeen emanaldiaz gozatzeko aukera egongo da, doan. Sortzaile gazteen lanak ezagutzera ematea da plataforma honen helburua.

Eguaztenetan eskainiko dituzte zineklub emanaldiak

Udako etenaldiaren ondoren, hasi dira berriro ere zineklube-ko eskaintzarekin. Eguaztenetan izango dira emanaldiak, 20:00etan, Seminarixoan. Sarreraren kostua 3 euro izango da.

Urriko emanaldien zikloari *Zinemaldien lehiaketatik kanpo* izena jarri diote. Urriaren 9an, *Diecisiete/Seventeen* filma eskainiko dute. Daniel Sanchez Are-

valo zuzendariaren lanak adingabeen zentro batean dagoen 17 urteko mutil baten istorioa kontatzen du -Hector-. Txakur batekin izango duen harremana eta lotura izango dira istorioaren muina.

Urriaren 16ko emanaldia *Rojo* izango da. Urriaren 23an, *La llorona* filma eskainiko dute. Azkenik, urriaren 30ean, *Climb* filma eskainiko dute Seminarixoan. Zinema ez komertzialaz gozatzeko aukera eskaini nahi dute eguaztenetan.

Kultura bizi duen herria

Kultura kalean ekimena egin zuten joan zen astean. Hainbat kultura elkartetan eta talde euren lana kalera atera zuten; eta herritarrek ez zuten hutsik egin.

Abesbatzen emanaldiak, txikienek musikaz gozatzeko gunea, margolarien gunea... denetarik izan zuten San Martin plazan. Jatekoak ere izan ziren, *food truck* originaletan.



BERGARAKO UDALA

GOIENA TELEBISTA

UDAZKENEKO PROGRAMAZIOA



ALBISTEAK
ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA
14:30/16:15/17:00/17:45




GIPUZKOAKO BERTSOLARI TXAPELKETA 2019
EGUAZTENETAN ETA EGUBAKOITZETAN
21:00ETAN ETA 23:00ETAN



DEBAGOIENETIK NDANK NDANK SENEGALERA
URRIAK 24, EGUENA
21:00ETAN ETA 23:00ETAN



DEBAGOIENA ESKUALDE BATUA
AZARAK 7, EGUENA
21:00ETAN ETA 23:00ETAN



ELKARRIZKETTAP
EGUAZTENETAN ETA EGUBAKOITZETAN
21:30EAN ETA 23:30EAN



HARIRA
ELKARRIZKETA (HAMABOSTEAN BEHIN)
MARTITZENETAN 21:30EAN
EZTABAIDA (HAMABOSTEAN BEHIN)
MARTITZENETAN 21:00ETAN



HARMAILATIK
ASTELEHENETAN
21:30EAN ETA 23:30EAN



HEMEN DEBAGOIENA
ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA
18:00/20:00/22:00




HUHEZINEMA
EGUENETAN
21:30EAN ETA 23:30EAN



JAIK
SAN MIGELAK ETA MARITXU
URRIAK 8, MARTITZENA
21:00ETAN



OSOKO BILKURAK
ARRASATE, OÑATI ETA BERGARA
ZAPATUETAN: 19:00ETAN
DOMEKETAN: 12:00ETAN ETA 22:00ETAN



Eusko Jaurlaritzara bidaltzeko dirulaguntza eskaera orria betetzen. MAIDER ARREGI

Herritarrei zerbitzuak eskaintzeko lanean

Herritarrei geroz eta zerbitzu gehiago eta hobeagoak eskaintzeko helburuarekin, Udalak lanean jarraitzen du Jaurlaritzarekin. Horren adibide da berriztu berri duen hitzarmena. Jaurlaritzako eskaerak eta idazkiak tramitatzen jarraituko du Udalak

Maidar Arregi ANTZUOLA

Antzuolako Udalak Eusko Jaurlaritzarekin dirulaguntza eskaerak nahiz bestelako idazkiak udal erregistroan aurkezteko akordioa sinatuta dauka 2011z geroztik. Orain, baina, hitzarmen hori berritu egin du udalbatzak, aho batez, iraileko osoko bilkuran.

Antzuolako alkate Beñardo Kortabariak azaldu du uztailen amaitu zela Jaurlaritzarekiko akordioa, eta orain, berritu egin dutela: "Akordioa bageneukan aurretik ere; eta akordio hori uztailen bukatu zen. Hitzarmen horri esker, Gasteiz edo Donostiara joan beharrean, udal bulegoetara gerturatuta herritarrek nahikoa izango dute. Adibidez, hezkuntzako zerrendetarako behar diren tramitazioak edo unibertsiteko paperen bat Jaurlaritzarekin tramitatzeko aukera dago, besteak beste, Antzuolan".

Herritar askok, ordea, ez daki hainbat tramite egiteko aukera dutela herriko udal bulegoetara

jota. Izan ere, askok behin Eusko Jaurlaritzara telefonoz deitutakoan izaten dute aukera horren berri. "Jaurlaritzak badauka zerbitzu hau eskaintzen duten herrien zerrenda. Bertara deitzean konturatzen dira antzuolar asko herriaren duten zerbitzuaz. Bergararrak ere etorri dira; izan ere, oraindik ez dute akordiorik sinatu", diote udal bulegoetako langileek.

Antzuolako Udalak, aldiz, ez dauka hitzarmenik Gipuzkoako Diputazioarekin. "Soilik Eusko Jaurlaritzako tramiteak egiteko hitzarmena dugu, eta zerbitzu horien artean daude eszendentzia kasuak; amatasun edo pertsona nagusien zaintzarako

JAURLARITZAREKIN SOILIK DU AKORDIOA UDALAK; OGASUNEO KONTUEZ DIPUTAZIOA ARDURATZEN DA

dirulaguntza eskaerak; hezkuntzako zerrendetan izena ematekoak edo Etxebideko gaien tramitazioa egitekoak, adibidez.

Hala, Ogasunari dagozkion gaiak tramitatzeko, Gipuzkoako Diputazioara jo beharko dute herritarrek.

Sinadura elektronikoarekin on-line ere egin daiteke idazkien tramitea.

Propagandari uko egiteko

Une honetan, Antzuolako udal bulegoa etengabe ari da hauteskunde propagandari uko egiteko eskaerak tramitatzen. Urriaren 7ra arte egin dezakete herritarrek eskaera, Udalean edo INEko webgunean sinadura elektronikoa erabilia.

Eraso matxistak jasan dituzten emakumezkoen babesa

Antzuolarrek babesa adierazi diete eraso matxistak jasan dituzten emakumeei; bik salaketa jarri dute

Maidar Arregi ANTZUOLA

Uda honetan hainbat eraso matxista izan direla eta Andramanuelak Antzuolako emakume taldeak eraso horiek salatzen eta erasoak jasan dituzten emakume guztiei –bik salaketa jarria dute epaitegian– babesa adierazteko elkarretaratze jendetsua egin zuen atzo.

"Erasoa jasan duten emakume guztiei gure eta Antzuolako herriren babesa adierazi gura diegu, gogor kondenatuz eraso matxista horiek guztiak. Azkenaldian herrian gertatu diren

hainbat erasoren berri izan dugu Andramanuelak taldeko kideok. Erasotuei babesa emateko helburuz egin dugu elkarretaratzea", azaldu dute Andramanuelak Emakume taldeko kideek.

"*La Manada* auzian izugarriko erantzuna eman genuen herri bezala; herrikideei ere kapaz izan gara horrelako babesa emateko eta gure ahotsa ozen entzunarazteko", azpimarratu du mugimendu feministak. "Emakumeenganako edozein eraso salatuko dugu".



MAIDER ARREGI

Eskolako obra, oraingoan, geldi

Abuztuan abiatu zituzten eskolako lanak. Hasierako zulaketak egin dituzte, baina obra geldi dago. Lur berria jartzeko ez dira ados jartzen obra egin behar duen enpresa eta Jaurlaritzak. Enpresak zimentazio arrunta jarri gura du; eta Jaurlaritzak, lurra pilotatu, harkaitza bilatu eta ondoren eraikitzea. Adostasunaren bidean dauden arren, ez omen du obraren epean eragingo.

OHARRAK

'EHKOLEktiboa bertsotan', Pikunietan

Zapatuan, agroekologia eta baserriko lana gertutik ezagutzeko aukera Pikunietan. Maialen Lujanbiok eta Amets Arzallusek bertsotan egingo dute. Izena, *Ehkolektiboa.eus* helbidean.

Arrolako irteera

Europako Mendiartara irteera hilaren 12an eta 13an. Informazioa eta izena emateko aukera, *arrolamt@gmail.com* helbidean.

Haur Dantzarien Eguna

Urriaren 20an, domeka, Haur Dantzarien Eguna ospatuko da Antzuolan. Egun osoko jaia izango da eta emanaldiak goizean eta arratsaldean egingo dituzte gatzetxoek.

Kirolaz gozatzeko gorritz jantzi dira antzuolarrak

Antzuolako Kirol Elkartek talde berriak aurkeztu ditu herrira zabaldu duen festa batekin. Lau kategorietako bost talde eta futbol eskolako gaztetxoaren taldeak aurkeztu dituzte. Lehenengo egin du AKEk aurkezpena, eta balorazioa positiboa izan dela dio

Maidar Arregi ANTZUOLA

Herriko Plaza gorritz jantzi zuten pasa den egubakoitzean antzuolarrak eta Antzuolako Kirol Elkarteko kide guztiak. Izan ere, denboraldi berrirako talde guztien aurkezpena egin zuten. "Denboraldi berria aurkezteko eta herritarrei kirola gerturatzeko asmoz", festa gorria egitea zutela helburu adierazi dute klubeko zuzendaritzako kideek.

"Oso ondo joan zen dena, giro aparta izan genuen. Egiari zor, baina, jende gehixeago ere espero genuen plazara gerturatzea. Egia da lehen aldia dela horrelako festa bat antolatzen duguna; beraz, datorren urterako zer hobetu edo egin dezakegun hausnartu beharko dugu. Baliteke, agian, egunarekin ez asmatu izana edo... hausnartuko dugu, zeren gure balorazioa oso positiboa izan da. Lehen AKE Eguna ere ez zen horren jendetsua izan, eta ikusi orain!", aitortu du AKEko presidente Ibon Gezalagak.

"Kirolari guztiak ere oso gustura egon dira; batez ere, gaztetxoek; euren dako, nobedadea izan da eta ilusioa egin diela uste dut. Nik barrutik sentsazio hori jaso dut; eta kanpotik ere iritzi bera helarazi digute AKEko kideoi. Jendeari gustatu ba-



Herriko Plazan aurkezpenean parte hartu zuten kirolariak eta AKEko kideak. AKE

LEHIATZEN DIREN BOST TALDE ETA FUTBOL ESKOLAKO LAU AURKEZTU DITU KLUB GORRIAK

zaio, datorren urtean ere aurrera", argitu du Gezalagak.

Bost talde eta futbol eskola

Lehiatzen diharduten bost talde aurkeztu dituzte: erregional preferente mailakoak, gazteak,

kadeteak eta infantilak. Azken kategorian honetan, bi talde aurkeztu dituzte: 2006an eta 2007an jaioakoen taldeak, hain zuzen ere. Esan behar da 2007ko taldea mistoa dela. Futbol eskolari dagokionez, lau talde aurkeztu dituzte.

Zizurkilera, zapatuan

Lehen taldeak, baina, ez du denboraldia oso ondo hasi, hiru partidutatik hirurak galdu ditu eta. Zapatuan, Zizurkilgo Danena taldearen aurka jokatu du Antzuolak.

la 20.000 euro bideratuko ditu Udalak euskara sustatzeko

Aho batez onartu ditu Antzuolako udalbatzak euskarara bideratzeko dirulaguntzak. Guztira, 19.766 euro

Maidar Arregi ANTZUOLA

Iraileko ohiko osoko bilkuran, aho batez onartu zituzten euskarara bideratutako dirulaguntzak. Aurreko agintaldiko batzordean onartuta zeuden arren laguntza hauek, berriro onartu behar izan dituztela azaldu zuen Kultura zinegotzi Garazi Larreak: "Agintaldi berriko zinegotziekin eta Kultura batzordean, berriro onartu behar izan ditugu euskarara bideratutako laguntzak".

Iazko ildo berean banatuko dira laguntzak, ez dute eta aparteko eskaerarik jaso.

"Urtero talde berei ematen zaie laguntza, ez dago aldaketarik, ez baitago bestelako eskaera berririk", argitu zuen Larreak. Guztira, 19.700 euro pasatxo banatuko ditu Antzuolako Udalak:

Hala, Herri Urratsi, Nafarroa Oinezi eta Kontseiluari 500 euro banatuko zaizkie; Badiharduguri, 125 euro; Goienarekin hitzarmena du Udalak eta 17.266 eurokoa da hitzarmena. Aurten, kopuru altuagoa bideratuko da Lanbide Heziketako euskarazko materiala sortzeko lanean diharduen Lanekirendako, 875 euro.

GORA ETA BEHERA



ANTZUOLAKO UDALA

Galdutako gauzak, herritarren esperoan



Patineteak, auto nahiz garajeko giltzak, arropa, betaurrekoak... denetarik dago pilatuta udal bulegoan. Zerbait galdu duten herritarrei, bulegotik pasatzeko eskatu gura diete langileek.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo ☎ 688 69 00 07.

Tortilla eta txorizo pintxoak

Antzuolako Kirol Elkarteko kideek prestatutako tortilla eta txorizo pintxoak eta edariak banatu zituzten denboraldi berriko aurkezpenean.

"Pintxoekin batutako diruarekin ez dugu etekinik atera, helburua zen ekintza aurrera atera ahal izateko dirua ateratzea, beste barik", azaldu du AKEko presidente Ibon Gezalagak.



Kirolari gazteak mokadutxoaren zain. JOSU BILBAO

MUJKA
HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

Ahaztuen artean ahaztuenak

Emakumeak izan dira protagonista 1936ko erasoaldi frankistak gogora ekartzeko memoria jardunaldietan, Elgetan. Bi hitzaldi izan dira aste barruko egunetan, eta antzetzutako bisita gidatua dago iragarrita domekarako, 13:00etan

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Intxorta 1937 kultur elkarteak Elgetako Udalarekin elkarlanean antolatuta, bi hitzaldi izan dira aste honetan Elgetan. 1936ko urriaren 4ko frankisten erasoaldia gogora ekartzeko *Elgeta erresistentziaren memoria* jardunaldien barruan kokatzen dira hitzaldiok zein aurreko barikuan egindako *Baile en el sindicato* pelikularen emanaldia.

Manolo Cainzosek egin zuen lehen hitzaldia eguaztenean, eta Txema Barrutiak egin zuen bigarrena, atzo. Kasu bietan emakumeak izan ziren protagonista. Bere hitzaldian, Elgetan jaio eta 1936ko gerrako biktima izandako bost emakumeren inguruan egindako ikerketaren emaitza eskaini zuen Manolo Cainzosek. Txema Barrutiak, berriz, Bigarren Errepublikak 1931n onartutako konstituzioan jarri zuen arreta. Emakumeendako ekarri zituen aurrerapausoak izan zituen oinarri bere aurkezpenean.

Senitartekoak hitzaldian

Bete egin zen udaletxeko areto nagusia Cainzosen hitzaldia entzuteko. Askotariko herritarrek elkartu ziren bertan, baina bereziki esanguratsua izan zen hitzaldiko protagonista ziren emakumeetako batzuen senitartekoen presentzia. Lagungarri izan ditu Cainzosek emakume horietako batzuen ibilbidea osatzeko. Zoila Askasibarren kasuan, gainera, oraindik ere argitzeko dago non eta nola hil zen. "Salamanca artxibo historikoan jasota dago ondorengo: *Inprenta bateko jabea. Errepublika zalea*. Ikertzen jarraituko dugu eta laster artxibo gehiago bisitatuko ditugu. Bagoaz poliki-poliki emakume honen istorioa osatzen", azaldu zuen Cainzosek.

Ezohiko elementu asko dituen istorioa dela gaineratu zuen. "40 langileko inprenta bateko jabea izan zen emakumeak esparru publikotik ia desagertuta zeuden garai batean. Asko eta askotarikoak izan ziren *Inprenta Zoila Ascasibar* zigilupean argitaratu ziren edukiak, eta bat-batean galdu egiten da bere arrastoa".

Zenona Arantzabalek oso beselako ibilbidea izan zuen, baina garaikideak ziren; izan ere, Askasibar baino urtebete gazteagoa zen. Bando errepublikanoak fusilatu zuen Madrilen, 1936an, eta 2007an beatifikatu zuen Eliza Katolikoak beste 498 lagunekin batera. "Denak ziren bando errepublikanoak hildakoak, eta protesta ugari izan ziren -gurea tartean-, Eliza Katolikoak ez zuelako bando frankistak hildako erlijiosorik beatifikatu eta badakigu egon zirela, tartean bi elgetar".

Otxoa, Beretxinaga eta Telleria

Manuela Otxoa frankisten garbiketa-prozesuaren biktima izan zen. "Frontea Intxortan ezarrita egon zen sasoiari zabaldu zioten espediente Otxoari. Pentsatzen da, beraz, herria mendean

GERRAN ASKOTARIKO BIKTIMAK IZAN ZIREN ETA EMAKUMEEN SUFRIMENDUA ORAIN ARI DA AZALERATZEN

MANOLO CAINZOS ETA TXEMA BARRUTIA DIBULGAZIO LAN GARRANTZITSUA EGITEN ARI DIRA

hartua izan edo ez frankistek agintzen zutela antzerako kontuetan. Garbiketa prozesua oso txertatuta zegoen, eta eraginkorra zen. Inkisizioaren moduan funtzionatzen zuen. Otxoak zorrea izan zuen eta hilabete gutxira berretsi zuten lanpostuan, baina irakasleen aurkako depurazioa sistematikoa izan zen. Gipuzkoan, sasoi horretan, 600 bat maisu eta maistra zeuden. Bada, 450ri zabaldu zioten espediente eta %28 inguru izan zen kargugabetua edo lekuz aldatua", gaineratu zuen Cainzosek.

Isabel Beretxinaga Amuategi batailoiko kide egin zen. Laster eman zuten emakumeak atzeguardiara erretiratzeko agindua, baina lehen lerroan jarraitzea erabaki zuen. Hegazkin batetik jaurtitako bomba batek hil zuen 25 urte zituela.

Anttoni Telleriaren kasua izan zen Cainzosen hitzaldiko esanguratsua, gertutasunagatik eta biktimak jasota utzi zuen testigantzagatik. Telleriak egindako kontaketa irakurketa egin zuen Cainzosek, eta modu horretan eman zion amaiera aurkezpenari.

Emakumeen boto eskubidea

Txema Barrutiak atzo egin zuen hitzaldia, eta 1931ko konstituzioa eta emakumeen boto eskubidea izan zituen bereziki hizpide. Gerraren hasierarekin batera gelditu zen bertan behera konstituzio hori, eta emakumeek urte asko itxaron behar izan zituzten dagokien boto eskubidea berreskuratzeko, baina jasota daude orduko Gorteetan izandako eztabaida sutuak. Barrutiak Clara Campoamor eta Victoria Kent politikarien arteko debateak nabarmendu zituen aurkezpenean.

Urratutako bost bizitza



ZOILA ASKASIBAR ARTOLA
INPRIMATZAILEA (1877-??)

Angiozarko Migelena baserrian du jatorria familiak, baina Elgetan jaio zen Askasibar. Madrileran joan zen neskame eta Manuel Alhama Montes inprimatzailearen etxean hasi zen lanean. 1924tik 1936ra 40 langileko *Inprenta Zoila Ascasibar*-en jabe moduan agertzen da. Gerra hasieran desagertzen da emakume honen arrastoa.



ZENONA ARANTZABAL BARRUTIA
MOJA (1878-1936)

Iturri baserrikoa, Bilbora joan zen neskame. Moja adoratzailer sartu zen, eta Madrigo komentuan zegoela hasi zen gerra. Beste babesleku bat hartu zuen, baina laster elkartu zen moja gehiagorekin etxebizitza batean. Atxilotu eta La Almodena hilerrian fusilatzen zuten beste 22 lagunekin batera. Eliza katolikoak 2007an beatifikatu zuen.



MANUELA OTXOA ANGIOZAR
MAISTRA (1882-1957)

Angiozarko Garaikoetxea baserrikoa eta maistra titulatu zen. Elgetako eskolako irakaslea izan zen 1924tik 1949ra. Beste irakasle asko bezala, frankisten garbiketa-prozesuaren biktima izan zen. 1937an espediente zabaldu eta lanpostua eta soldata kendu zizkioten. Denbora batera eskolak emateko baimendu zuten, berriz.



ISABEL BERETXINAGA GARITAONANDIA
MILIZIANOA (1911-1936)

Barrenengua baserrikoa senarrarekin batera sartu zen Amuategi batailoian. Agintariek laster eman zuten emakumeak fronteko lehen lerroetatik kentzeko agindua, baina Beretxinaga ez zen erretiratu. Elorri lehertutako bomba batek hil zuen autobusean hornigai bila zihola Bilbora. Semea Eibarren bizi da gaur egun.



ANTTONI TELLERIA LAMARAIN
BASERRITARRA (1921-2007)

Sesto Gain baserrikoa gerrako biktima zibilen ikur da Elgetan. 1937ko apirilaren 24an frankista talde batek askotariko gehiegikeriak egin zituen baserrian; hilketak eta bortxaketak tarteko. Urteetan isilik eramandako tragedia irudikatzen du Telleriak. 2007an hil zen, gertatutakoak kamera aurrean kontatu ostean.



Manolo Cainzos, eguaztenean, hitzaldia egiten. L.Z.L.

Liburu berria, argitaratzeko gertu

Laster kaleratuko du liburu berria Manolo Cainzosek. *Elgetarrak historian* izango du izenburua eta garai guztietako 23 elgetarren biografiak jaso ditu bertan. "Zazpi emakume eta hamasei gizon dira, Erdi Arotik hasi eta gaur egungo garaietaraino", azaldu du.



Elgetaren gainbehera antzezpena, iazko apirilean. L.Z.L.

Antzeztutako bisita gidatua, domekan

Elgeta erresistentziaren memoria jardunaldiari amaiera emateko, antzeztutako bisita gidatu berezia egingo dute etzi, herrian. 60 bat boluntariok 1936ko urriaren 4ko erasoaldia hasi aurreko uneak irudikatuko dituzte. Bisita Mendizaleen plazatik abiatuko da, 13:00etan. Plazatik eliza atarira egingo dute bisitariak, eta bertan, frontera abiatzeko puntuan dauden miliziano eta gudari batailoiak ikusiko dituzte apaizaren bedeinkapena jasotzen. Arratia, Padura eta Arana Goiriko konpainiak gudariak izango dira gehienak.

Garai hartako bizargin postu bat, taberna bat, ospitalea eta aginte postu bat ere irudikatuko dituzte domekako antzezpenean. Milizianoen eta gudarien egunerokoa irudikatuko balioko dute.

Emakumeei orduko gizartean ematen zitzaizkien trataera ere ekarriko dute gogora. Antolatzaileek garrantzi berezia emango diete gerrako biktima zibilei eta errefuxiatuen etorrera masiboa zein herriaren ebakuazioa ere irudikatuko dituzte. Bando batetik bestera aldatu ziren soldaduen errealitatea ere jasota geldituko da antzezpenean.

Amaitzeko, Zumaiako herri eskolako neska-mutikoei Anttoni Telleriaren omenez idatzitako bertsoak abestuko dira. Ekitaldian izango dira zumaiarrak eta Intxorta 1937 kultur elkarteak banatuko duen *Irrintzia* agerkerian jasota egongo dira bertsoak bertaraturatutakoak ere kanta ditzenen.

Asteburu honetan zabalduko ditu ateak gazteleku zerbitzuak

Nerea Erdabide hezitzaileak urteko ekintzak adosteko erabiltzaileendako batzarra deitu du zapatarako

Goiena komunitatea

Elgetako gaztelekuak / ELGETA

Zapatu honetan, urriak 5, ikasturte berriarekin batera Elgetako gaztelekuak bere ateak zabalduko ditu.

Bertan, Elgetako neska-mutikoei aste bukaeretan ekintza ezberdinak egiteko aukera izango dute. Ikasturte honetan, gainera, proiektu berri bati eman go zaio hasiera gazteleku zerbitzuan, eta hainbat aktibitate berri egitea proposatuko da, betiere, Elgetako erabiltzaileekin adostuta.



Nerea Erdabide hezitzailea. N.E.

Batzarra gazteekin, zapatuan
Horretarako, zapatu honetan, batzar nagusia egingo dugu gaztelekuan ikasturtean zehar gazteekin egin nahi dutena adosteko.

Proposatuko diren ekintzak askotarikoak izango dira. Horietako batzuk izango dira, besteak beste, auto telegidatuen karrerak, arimen gaua ospatzeko ekintzak, ginkanak, sukaldaritza tailerrak, *scape room* saioak... Espero dugu Elgetako gazteak batzar horretara gerturatzera, eta gaztelekuo ekintzetan parte hartzea.

Presentzia sare sozialetan

Aurreko ikasturtean bezala, ikasturte honetan ere Instagrameko kontua izango du gaztelekuak eta bertan emango dugu egiten ditugun ekintzen berri. Profila da: [@gazteleku_elgeta](#).

Ipuin saioak berriz martxan

Maria Mendazonak egin zuen ikasturteko lehenengo Ipuinen Ordua irailaren 13an. Alazne Azkaratek eta Geaxi Ezpeletak, berriz, yoga ipuinak kontatu zituzten barikuan. Ikasturterako beste dozena bat saio daude aurreikusita, guztiak ipuin kontalari boluntarioen eskutik. Egutegia liburutegian dago eskuragarri.



ELGETAKO LIBURUTEGIA



NIRE USTEZ

ANA GILLEGI

Dionewar, herriaren ahalduntzea

Hantxe nengoen, hondartza zoragarri hartan. "Arazorik ba al dago hondartzako oskol batzuk eramateko?". Mamadouk, barrez: "Ez, ba, gero ikusiko duzu zergatik". Hondartzatik atera eta herriko kaleetara joan ginenean konturatu nintzen zergatik, kaleetako lurra oskolak dira. Milioika han eta hemen.

Uharteak, errepiderik gabe, lasaia eta era berean bizitza bor-bor han eta hemen. Dionewar da uharte hori, Senegalen. Ndank-Ndank elkarteak urteak daramatza herriari laguntza eskaintzen, proiektuak elkarrekin erabakitzen, lantzen. Famili proiektu bat, lan izugarri baten emaitza.

Aberatsa den uharteak, oso aberatsa den komunitatea, balore argiak eta transmisio zuzenerako denbora duen gizarte bat. Alkate gaztearen aurretik, herriko nagusienek dute azken hitza. Emakume helduek kooperatiba bat sortu dute itsasoan jasotakoa merkaturatzeko, itzela nolako ahalduntzea erakutsi diguten! Eta gu guzti horren aurrean hitzik gabe, miresmenez. Bost hizkuntza erabiliz. Hitzek ezin dutena esan irribarrekin eta begiek esaten dute.

OHARRAK

Pilota txapelketa

Gaur da azken eguna izena emateko. Argibideak udaletxean ematen dituzte.

Elgetan berbetan

Mintzapraktika taldeak osatzeko izen-ematea zabalik da, liburutegian.

Literatura solasaldiak

Hastear da Hitzek Pitz ekimenaren hirugarren ikasturtea. Interesatuak liburutegian eman dezakete izena.

Haur eskola

Urriaren 9ra arte zabalik da izen-ematea. Argibideetarako: 943 78 82 36 edo elgeta.elgeta@haurreskolak.eus.

Aurreko asteburuaren segida hasiko da gaur

Zapatuko Herri Egunak eta asteleheneko Errosario Biharamunak urteroko egitarau propioa dute, baina badira ekitaldi gehiago ere; tartean, Iker Martinezen lanaren aurkezpena gaur, Atzeko kalean. Eguraldiak aldaketak sor ditzake egitarauan

Oihana Elortza OÑATI

Sanmiguelak pasata, Errosarioak datoz asteburu honetan. Eguraldiak alda dezake bakarrik egitaraua, eta bigarren asteburu lehena beste ondo joatea gurako luke Iñaki Olalde, Kultura zinegotziak: "Egubakoitzetik hasita, oso ondo joan dira sanmiguelak. Su Ta Garrek jendea batu zuen eta ondo hasi ziren jaiak, bai. Gazteen Eguneko bazkarian ere asko batu ziren, baita bandaren Lazarragako kontzertuan, Olaitturriko herri antzerkian eta Puro Relajoren emanaldian ere, esaterako. Jendea pozik ibili dela iruditzen zait. Gainera, zorionez, ez da erasorik, lapurretarik edo istripurik egon, eta hori ere oso ona da".

'Marti' eta Yogurinha

Jai nagusietako bigarren asteburu gaur, egubakoitza, hasiko da eta, besteak beste, zuzeneko bi musika emanaldi egongo dira: Iker Martinez de Zuzazo eta



Nagusien danborrada Foruen plazan. AITOR AGIRIANO

Zaldi Herrenak taldea Atzeko kalean eta Yogurinha Borova eta DJ Bollo txosnagunean.

Zapatuko Herri Egunak eta asteleheneko Errosario Biharamunak urteroko egitarau propioa izango dute aurten ere, eta, tar-

tean, domekan, herriko txikienek puzgarrietan ibiltzeko aukera izango dute, besteak beste. Udaltzainak 07:00etatik 02:30ak arte egongo dira eta erasoendako zabaldu duten telefonoa ere erabilgarri egongo da: 688 62 12 13.



'1839ko Oñatiko Ituna' antzezlan. IBAI ZABALA



Umea tirolinan jaisten. A.A.



Berakatz zopa lehiaketan. A.A.



Herriko pilota txapelketako finalak. X.I.

Berbalagun egitasmoan euskal hiztun gehiago behar dituzte

Ikasturte hasierako aurkezpena eguaztenean egingo dute eta parte hartu gura duen edonor joan daiteke

O.E. OÑATI

Berbalagun egitasmoa urrian jarriko dute berriz martxan, eta berbalagun eta laguntzaile berrien bila dabilta arduradunak. Talde gehiago osatu nahi dituzte, inor mintzapraktika egiteko aukerarik gabe gera ez dadin.

Berbalaguneko kide izan gura duen herritarrek euskaltegian bertan eman dezake izena urriaren 18a aurretik. Datorren astean, eguaztenean, hilak 9, ikasturtearen aurkezpen ekitaldia egingo dute, Euskaldun Berria gelan, 18:00etan.

Bedita Larrakoetxea Udal Euskaltegiak emandako datuen arabera, azken kale-neurketaren arabera, Oñatiko kaleetan entzuten diren hamar elkarrizketatik ia zazpi euskaraz dira. "Baina badira gure artean euskaraz egiteko zailtasuna dutenak edo egiten ausartzen ez direnak: ikasten dabilzalako, inguruan euskaldunik ez dutelako, euskara herdoildu zaielako, gaztelaniaz erosoago aritzen direlako... Berbalaguna egitasmoa zailtasun horiek guztiak gainditzeko modua izan daiteke".

Olabarrietako zirkulazioa neurtzeko lanean jarraitzen dute

Udana itxita egoteak Olabarrietako auzo-gunetik zirkulazioa pasatzea ekarri du. Eta hori ahalik eta txikiena izatea gura dute udal ordezkariak. EAJK azken osoko bilkuran adierazi zuen ondo ikusten dutela Udal Gobernu hori konpontzeko egiten ari den ahalegina, baina auzo-gunetik zirkulazio "handiegia" pasatzen dela esan zuen jeltzaleen bozeramileak, eta hori neurtu beharra dagoela. Udal Gobernuak esan zuen horretan dihardutela eta Aldundiak jarri behar dituen seinale egokien zain ere badaudela egoera arintzeko. Garraio publikoa jartzeko aukera aztertzen jarraitzen dutela ere esan zuen.



NIRE USTEZ

LUKENE IGARTUA

Beldurra eta Pena

Bi hitz horiek erabili zituen aurrekoan mutiko batek Trautirenen eskoletako konzieniazio hitzaldi batean. Elbarritasunaren egunerokoak hizpide genituela, berak azaldu zigun irteera batean ASPACEko haur batzuekin elkartu zirela eta berak beldurra eta pena sentitu zuela. Sentitzen duguna isilarazten saiatzen gara helduak askotan, eta ez dugu Jonek izan zuen ausardiarik gure sentipenak ozenki onartzeko. Ezagutzen ez dugunari beldurra ohi diogu, eta ezintasun ugariekin ikusten dugun haur batek pena ematea, ez al da naturala?

Bada, guztiz naturalak diren sentimendu horiek aldatzeko, ikuspuntua aldatu behar dugu: ezezaguna ezagun bihurtu eta ezintasunaren erreparatu behar, haur horiek egin ahal dutena baloratu eta ekiten lagundu. Esaterako, Sevillako Carros de Fuego elkartearen aniztasun funtzionala duten haurrekin lasterketak egiten dituzte eta bertako kide batek astean aitortu zigun lehen lasterketa egin zutenean "qué pena" eta "pobres chicos" entzuten zutela. Orain, hainbat atxintxikaldi ondoren, haur bakoitza bere izenez animatzen dute Sevilla aldean.

Emakumeei zuzendutako eskaintza berria

Zortzi ikastaro jasotzen ditu Jabetze Eskolako udazkeneko eskaintzak, horietako bat sare bidez izaten diren erasoen ingurukoa. Eskaintzan ez ezik, ordutegietan ere berrikuntzak daude, antolatu dituzten ikastaroetako batzuk goizez egingo dira eta

Oihana Elortza OÑATI

Ohiko hainbat ikastaroz gain, berriak ere badira Jabetze Eskolako udazkeneko eskaintzan. "Brikolaje ikastaroak, esaterako, oso harrera ona izan du beti eta udazkeneko prestatu dugun egitarauan ere badator berriz. Ikastaro berriak ere baditugu, baina aurreko berrikuntza ordutegian sartu dugu. Orain arte, arratsaldean izan dira egin ditugun gehienak eta orain, goizez ere izango dira batzuk", dio Jone Arriolabengoak, Berdintasuneko udal teknikariak.

Goizez eta arratsaldean

Zortzi ikastaro eta bi hitzaldi jasotzen ditu Jabetze Eskolako urritik abendura bitartean. "Autodefentsa ikastaroa ere egin beharra dagoela ikusten dugu, baina, orain, sarean izaten diren erasoengatik izango da; autodefentsa ziberfeminista, alegia. Gorputzari lotutako ikastaroa, berriz, goizetan izango da. Saiakera bat da. Ikusi gura dugu ordutegi hori egokia den eta emakume gehiagok parte hartzen duten ikastaroetan", dio Berdintasun teknikariak.

Ikastaro gehienak aste barruan egingo dituzte, baina badaude zapatu goizetan egingo direnak ere. Iraupenari dagokionez, bost



Brikolajea egiten. FREEPIK.ES

eta hogeita ordu artekoak dira eta prezioak, bestalde, bost eta hogeita euro artekoak dira.

Izen-ematea

Urriaren erdi inguruan hasiko dira ikastaro gehienak eta horietan izena emateko bideak eta epeak aurrekoen berdina dira. Hau da, udal erregistroan edo webgunean izen-emate orria beteta, eta, horretarako, epea da ikastaro bakoitza hasi aurreko zortzi lanegun. Lehen ikastaroetako izen-emateak dagoneko zabalik daude.

Ikastaroak

Amorrua gorpuztu

- Arratsaldean, azaroaren 6an hasita

Perkusio afrikarra

- Arratsaldean, urriaren 15ean hasita.

Feminitatearen labirintua

- Goizetan, urriaren 16an hasita

Gorputza berreskuratzeko

- Goizetan, urriaren 19an hasita

Brikolaje ikastaroa

- Arratsaldean, urriaren 14an hasita

Autodef. ziberfeminista

- Goiz eta arratsaldean, urriaren 26an

Erotikoa ni? Bai zera!

- Goizez, azaroaren 16an hasita

Emakumeen topalekua

- Arratsaldean, urriaren 23an hasita

Asteburuko kirol hitzordu batzuk atzeratuta, jaiengatik

Eskubaloiko talde nagusiaren partidua abendura atzeratu dute eta areto futbolekoak atsedean hartuko du

O.E. OÑATI

Errosario jaiak dira asteburuan herrian eta horrek eragina izan du hainbat kirol talderen partiduetan. Eskubaloiko talde nagusia da adibideetako bat. Fagor Industrial taldeak Gure Auzune taldearen kontra jokatu behar zuen asteburuan etxean, baina atzeratu egin dute partidua hori. "Joan den asteburuan hasi genuen aurtengo denboraldia. Urnietan jokatu genuen baina han ere sanmigelak ospatzen zituzten eta aurreratu egin genuen eguna. Asteburu honetan,

berriz, etxean ginen jokatzekoak, baina, Errosario jaiak direla eta, atzeratu egin dugu: abenduaren 6an jokatu dugu, Zubikoan", dio taldeko entrenatzaileak, Aitor Garciak.

Areto futboleko taldeak, berriz, asteburu honetan hasiko du denboraldia. Hamahiru talde egongo dira lehian eta astero talde batek atsedean hartuko du. Hori horrela izanda, Aloña Mendiko taldeak eskatu du asteburu honetan eurak hartzea atsedean. Ligako lehen partidua 19-20ko asteburuan jokatu dute.

Domekan dira pilotako San Migel txapelketako finalak

Domekan, urriak 6, jokatu dira pilotako San Migel txapelketako finalak.

Hiru kategorietan jokatu dituzte finalak. Kadete mailan, Egiuren eta Sudupek Naldanizen eta Lizeagaren kontra jokatu dute; gazteen kategorian, Alberdik eta Ganboak osatutako bikoteak Oskozek eta Etxeberririk osatutakoa izango du aurrez aurre; promesetan, berriz, Uriberen eta Artolaren kontra jokatu dute Alberdik eta Altuzarrak.

Aloña Mendiko pilota sailak antolatutako San Migel txapelketa da hau eta finaleko partidua guztiak Zubikoa kiroldegian jokatu dituzte, 17:00etan.

Martitzenean zabalduko dituzte igerilekuak

Itxita daude kiroldegiko igerilekuak garbiketa lanengatik, eta martitzen arratsaldean, 14:00etan, zabalduko dituzte berriz.

Urtero ixten dituzte igerilekuak astebetetz garbiketa-lan sakonak egiteko, eta, normalean, herriko jaiak aprobetxatzen dituzte hori egiteko. Aurreko horrela izan da. Astelehenean bukatuko dira jai nagusiak eta martitzen arratsaldetik zabalik egongo dira berriz bi igerilekuak herritarrendako. Igeriketa ikastaroak egubakoitzean, hilak 11, hasiko dituzte eta ur ekintzen denboraldiak, berriz, aquatraininga eta aquagyma, esaterako, hurrengo astelehenean hasiko dira, urriaren 14an.

MARITXU KAJOI ETA SANMIGELAK

GOIENA TELEBISTA, JAIK

URRIAREN 8AN, MARTITZENEAN, 21:00ETAN ETA 23:00ETAN
AITOR AGIRIANOK AURKEZTUTAKO SAIOA:

goiena
Zu hemen zaude.



Oñatiko Margo Taldearen erakusketan, 58 artelan

Aire Libreko Pintura Lehiaketan parte hartu duten herriko eta inguruetakoko artisten askotariko margolanak daude ikusgai egunotan, Oñatiko kultura etxean. Urriaren 13ra arte egongo da erakusketa bisitatzeko aukera, 18:00etatik 20:00ra bitarte

Maialen Santos OÑATI

Irailaren 22an egin zen Aire Libreko Pintura Lehiaketaren harira jarri dute erakusketa kultura etxean. Hain zuzen, lehiaketa horretako parte-hartzaileen lanak eta zenbait oñatiarrek egindakoak daude, Bixente Elgero pintura ikasleak adierazi moduan: "Lehiaketan parte hartu zutenek gain, urtean zehar pintura eskoletan aritu garenen bina lan jarri dugu". Guztira, haur eta helduen 58 lan bildu ditu Oñatiko Margo Taldeak antolatutako erakusketak.

Batik bat, olio pinturaz egindako margolanak ikus daitezke, margo akrilikoz edota akuarelaz egindakoak ere badauden arren. Horretaz gain, gai berari jarraiki egindako lanak dira gehienak, Oñati herrian oinarritutako lanak egin behar izan baitzituzten lehiaketarako, eta, beraz, ildo horretakoak dira erakusketan jarrita dauden lanetako asko. "Gehienek paisaiak margotzeko joera izaten dute, baina herriko eraikinek ere indar handia hartu dute erakusketan", azaldu du pintura-zaleak.

Ikasturte berria, hasteke

Azaroaren 1ean hasiko da aurreko pinturaz ikasturtea, eta, urtero legez, aurrez eman beharko



Erakusketan daude ikusgai lehiaketako margolan irabazleak. MAIALEN SANTOS

"GEHIENEK PAISIAK MARGOTZEKO JOERA DUTE, BAINA HERRIKO ERAIKINEK ERE INDAR HANDIA DUTE"

da izena –oraindik ez da izenemate epea zabaldu–.

Bidebarrietako lokalean jasotzen dituzte eskolak, eta iaz "taldetxo" elkartzan zirela azaldu du Elgerok: "22 pertsonako taldea osatu genuen, guztiak

adinez nagusiak, baina, era berean, adin desberdinetakoak".

Luis Laskurain margolari bergararra arduratu zen eskolak emateaz, iazko ikasturtean, eta aurreko bere gidaritzapean abiatu dute kurtso berria: "Teknikak erakusten dizkigu, lehenik, eta gero, guk marrazkia egiten dugu, amaieran margotu ahal izateko".

Helduena ez ezik, haurren ikasturtea ere egongo da aurreko; beraiek ere izango dute teknika ezberdinak ikasi eta horiek margolanetan aplikatzeko aukera.

Oñatiko XVI. Mendia eta Natura Argazki Lehiaketa abian da

Aloña Mendiko mendi sailak abiatu du argazki lehiaketa, eta urriaren 14ra arte izango da argazkiak aurkezteko epea www.concursosdigitales.com atarian.

Parte hartu nahi duenak argazkiak ateratzeko orduan baldintza zehatz batzuk izan beharko ditu kontuan, *Gizakia mendian* eta *Mendi ingurunea* azpigiaren baitakoak izan beharko baitute.

Argazki guztiak jaso eta epai-mahaikideek argazki onenak aukeratzeko tartea hartuko dute gero, eta azaroaren 7an emango dute aukeratu berri. Aurreago, azaroaren 15ean egingo dute sari banaketa, eta guztira 2.400 euro banatuko dituztela iragarri du kirol elkarteak.

Horretaz gain, lehiaketan parte hartu duten argazki guztiak ikusteko aukera egongo da. Hain zuzen, azaroaren 11tik 24ra jarriko dituzte lanak ikusgai, egingo duten erakusketan.

XI. Oñatiko Trikiti Jaialdia urriaren 26an izango da

Urtero legez, aurreko urtean Santa Ana antzokiak hartuko du herriko trikiti jaialdia. Urriaren 26an, zapatu arratsaldean egingo dute, 17:30ean hasita.

Lizargarate Trikitizale Elkarrekin antolatuta, inguruko herrietatik etorritako bost trikitilari hirukote eta bi bikote arituko dira oholza gainean –guztira, hemeretzi trikitilari–.

Jaialdiaren XI. edizio honetan, emanaldia ikustera joan nahi duenak sarrerak eskuratu beharko ditu aurrez; hauek urriaren 10etik aurrera jarriko dituzte salgai, Bizipoz kafetegian, hamabi euroren truke. Egun beretik aurrera, gainera, erreserbak ere egin ahal izango dira, lizargarateelkatea@gmail.com helbidera mezu bat idatzita.

Horrez gain, jaialdia amaitutakoan afaria egongo da Oñatiko Pago Uso elkartearen. Afarirako txartela 22 euro da.

Jaietan ere egongo da bertso saioez gozatzeko aukera

Jaietako egitarauaren baitan, gaur izango du herriak bertsolariarekin hitzordu nagusia, urtero legez. Zubikoa kiroldegia bertso jaialdia hartuko du, 22:30ean. Aitor Mendiluze, Oihana Iguaran, Nerea Ibarzabal, Unai Agirre, Andoni Goitia eta Iker Zubeldia arituko dira gaua girotzen. Txinparta Bertso Eskola arduratuko da, bestalde,

gai-jartzaile lanak egiteaz. Sarrerak Txokolateixan eskuratu daitezke aurrez, gaur eguerdira arte; nagusiek hamar euro, eta gazteek zortziren truke.

Halere, gaurkoa ez da izango jaietan bertsoez gozatzeko aukera bakarra; izan ere, domekan, urriaren 6an, balkoitik balkoirako saioa ere egongo da. Andoni Egaña eta Xebastian Lizaso bertsolariak arituko dira kantuan, parez pare. Kale Zaharreko balkoi bitan izango da hori, 20:30ean hasita.

Aire Libreko XVII. Pintura Lehiaketa

Jaietako egitarauaren baitan, irailaren 22an, ospatu zuten XVII. margo lehiaketa.

Lehiaketako sarituak

Raimundo Argos izan zen lehen sailkatua. Bigarrena Juanjo Altuna bergararra izan zen, eta Alvaro Gil hirugarren postuan sailkatu zen. Bestalde, Eñaut Uribealgok eraman zuen lehen oñatiarraren saria.



Lehiaketako sarituak eta Oñatiko zinegotzi Alaitz Kortabarria. IMANOL SORIANO


Urriaren 10ean, datorren ostegunean, hasiko da zinekluba

Herriko jaiak amaituta, datorren ostegunean ekingo diote zineklubaren denboraldi berriari, eta *Todos lo saben* film espainiarra eskainiko dute. Ohi moduan, ostegunero 20:00etan izango dira emanaldiak.

Bestalde, hilaren 13an hasiko da umeen zinema denboraldia, eta *El Rey León* ikusteko aukera izango da egun horretan bertan.


Gari & Maldanbera taldeak kontzertua emango du 13an

Gaztelekuan joko du Gari & Maldanbera taldeak. Igande eguerdian 12:30ean izango da hitzordua. Sarrerak eskuratzeko aurre-salmenta abiatu dute dagoeneko; hain zuzen, www.onati.eu webgunean eskuratu daitezke kontzerturako sarrerak, bost euroren truke. 2018ko udan Lazarraga lorategian jo zuten, Klean egitasmoaren barruan.



15. UDAKO ARGAZKIEN GOIENA LEHIAKETA *egin klik!*

EUSKAL HERRIAN



TXOKO EZKUTUETAN | Argazkia: Agustin Zugasti
SARIA: Gure Ametsa jatetxean bi lagunendako afaria edo bazkaria

PROTAGONISTAK



ACATENANGO SUMENDIA | Argazkia: Eneritz Larrea
SARIA: Eroski Arrasateri esker, Xiaomi Redmi 6A smartphonea.

NAZIOARTEAN



FRANTZIAKO SAINT LARY | Argazkia: Egoitz Eraso
SARIA: Arrasate Bidaiei esker, Zumaiaiko Zelai Talasoterapiari bi pertsonarendako zirkuitu termala eta Zelai menua

PUBLIKOAREN SARIA



TOLOSA, FRANTZIA | Argazkia: Ana Bodes Fernandez
SARIA: Bergarako Ereindajan-en eskutik, bertako eta kalitatezko produktuen saski ederra.

Beste behin ere, **GOIENAK** antolatzen duen **Udako Argazki Lehiaketak** aurreikuspenak gainditu ditu. Guztira, **421 argazki** jaso ditugu. Horregatik guztiagatik, parte hartu duzuen debagoiendar guztiei **eskerrik asko!** Datorren urtean ere zuen argazkien zain egongo gara.

Urriaren 11ko GOIENA aldizkarian izango duzue irabazleak ezagutzeko aukera.

ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:



Aurrera begira daude denak

TXIRRINDULARITZA Aste barruan eman du aditzera Euskadi Murias taldeak 2020an ez duela errepidean jarraituko. Erabaki horrek eragin zuzena izango du zortzi debagoiendarrengan, eta dagoeneko etorkizunari begira daude denak

Xabier Urzelai ARRASATE

Egunotan asko egin da berba Euskadi Muriasek aurrera egiteko izan dituen zailtasunen gainean. Murias eraikuntza enpresatik harago, gutxi batzuek babestu dute proiektua, eta Debagoieneko zenbaitengan eragin zuzena izango du talde orlegiaren desagerpenak. Izan ere, ibarrak harreman estua izan du Euskadi Muriasekin. "Neurri handian, hemen sortutako proiektua da; pentsa, urte askoan Aretxabaletako industrialdean izan dugu egoitza", dio bizikletak konpontzen ordu amaiezinak eman dituen Eneko Garaik.

Asko idatzi da talde orlegiaren desagerpenaz, baina ez horrenbeste bertako kideen etorkizunaz. GOIENA bailarako ordezkariekin izan da; denak daude etorkizunari begira.

JON ODRIOZOLA EUSKADI MURIASKO KIROL MANAGERRA


"Gure helburu guztiak sobera bete ditugu"

Oñatikoak onartu du taldeak jarraituko ez zuela jakitean lehen momentuak oso gogorrak izan zirela: "Hasieran, inpotentzia handia sentitu nuen, baina antolatzaileen, zaleen, kazetarien, eta abarren mezuak jaso eta gero, aho-zapore onarekin gelditu naiz".


Eta dagoeneko aurrera begira dago Odriozola: "Gaurtik bertatik, taldearen oinarritzko ideiak garatuko dituen proiektu berri batean hasiko naiz lanean, Europa mailan harrobian oinarritutako talderik onena sortzeko helburuarekin. Irmoki sinesten dut harrobia landuko duen talde europar batentzat lekua badagoela, eta hurrengo hilabeteetan proiektua garatzen ahale-




Julen Irizar, Euskadi Muriaso ziklista.



Xubane Garai, Murias Limousingo ziklista.



Eneko Garai, mekanikaria.



Ibai Agirreurreta, fisioterapeuta



Mikel Aristi, Euskadi Muriaso ziklista.



Garazi Erostarbe, Murias limousin ziklista.



Jon Rivero, masajisten arduraduna.



Jon Odriozola, kirol managerra

ginduko naiz. Uste dut egin dugun guztia ereitea izan dela eta etorkizuna idazteke dago. Mundu mailako txirrindularitzan lanean jarraituko dut".

ENEKO GARAI EUSKADI MURIASKO MEKANIKARIA

"Penaz hartu dugu erabakia, baina aurrerapausoak eman ezeean ez zuen zentzurik jarraitzeak"

Eneko Garai, seguru, mekanikari soila baino gehiago izan da Euskadi Murias barruan: "Duela urte asko hasi nintzen amateur mailako taldean Odriozolari laguntzen: talde hark hainbat izen eta babesle izan zituen, Bidelan Kiroldi, Gipuzkoa... Bereziki, Gipuzkoako txirrindulari gazteekin egiten genuen lan, Aretxabaletako industrialdean geneukan egoitza, eta hura izan zen ondorengo Euskadi Muriasekin oinarria. Bada, penaz hartu dugu erabakia, baina honaino iritsi eta gero garbi geneukan baldintza beretan beste urtebete egiteak ez zuela zentzurik. Errepidean emaitza onak lortu eta, hala ere, babesik iristen ez bada..."

Aretxabaletakoari, baina, ogibidea ez zaio aldatuko, nahiz eta orain denbora libre gehiago izango duen. Izan ere, lasterketa batetik bestera Garaik bizikleta mordoia izaten zituen Gorbeia zentroan zain: garbitu, torlojuak estutu, konponketak egin...: "Nik kooperatibean egiten dut lan, hau afizioa izan da niretako. Hazten joan garen neurrian, taldeko langile gazteek soldatapean egin ahal izan dute lan: masajistak, mekanikariak... Nire kasuan, seme-alabak saskibaloian edo futbolean jokatzen duelako klubari laguntzea erabakitzen duen aita horien modukoa izan naiz. Eta bai, hutsunea nabaritu dugu, bai".

MIKEL ARISTI EUSKADI MURIASKO TXIRRINDULARIA

"Bi urte hauek ederrak izan dira taldean, askatasun handia izan dut eta oso eroso egon naiz"

Mikel Aristi Marseillako (Frantzia) taldetik etorri zen Euskadi Muriasekin: "Urte gogorrak izan ziren Frantzian egindakoak, eta talde honek etxera itzultzeko aukera eman zidan. Oso gustura egon naiz hemen, askatasun handia izan dut eta oso eroso egon naiz". Hala, Bergarakoak penaz hartu

du albistea: "Taldekide batzuek ezingo dutelako seguruenik bizikleta gainean jarraitu, eta beste batzuk lan barik geratuko direlako".

Urte oso ona izan da Bergarakoarekin, besteak beste, Portugalen eta Limousingo Tourrean etapa bana irabazi zituen eta: "Talde osoaren lana izan da ona, anbizioarekin joan gara lasterketetara, irabazteko asmoz. Eta bai, niretako, urte berezia izan da, udan lortutako garaipene-nengatik".

Jakinekua da errepidean egindako lan on horrek beste talde bateko atea zabaltzeko zailkiela Mikel Aristiri eta Julen Irizarri, besteak beste: Euskadi Fundazioarenak, hain zuzen. Ziklistek, baina, zuzurtiaz jokatu gura dute, talde lanarekin oraindik ez du-eta berria ofizial egin: "Aurrerago jakingo dugu gehiago, baina bai, zorionez, gure kirol bizitzari jarraipena eman ahal izango diogu".

JULEN IRIZAR EUSKADI MURIASKO TXIRRINDULARIA

"Aurrerago jabetuko gara ze garrantzitsua den gertuko jendea taldean izatea, eta hori izan dugu Euskadi Muriasekin"

"Urte hasieratik geneukan garbi taldea babesleak bilatzeko zailtasunekin zebilela, baina esperantza genuen, ez genuen amaiera hau espero. Profesional izateko aukera eman dizun taldea desagertzera doala ikustea gauza triste da, horrek esan gura duelako beste gazte askok ez dutela guk izan genuen aukera izango".

Hala, nazioartean lehian dabilen taldea izateko, Bergarakoak gertuko jendea izan du ondoko Euskadi Muriasekin: "Eta horrek asko balio du, nahiz eta momentuan, akaso, ez duzun horrenbeste baloratzen, aurrerago jabetuko gara horretaz. Izan ere, ziklistok urtean zehar gorabeherak izaten ditugu, fisikoak eta psikologikoak, eta taldean konfiantzazko jendea izateak balio handia du".

Hala, Irizarri eta Aristiri bi aste geratzen zaizkie denboraldia amaitzeko, talde orlegiaren ibilbideari agur esateko: "Belgika eta Frantzia aldera goaz, egun bakarrek lau lasterketa ditugu. Eta daukaguna emango dugu taldeari merezi duen agurra emateko".



Rivero, Aristi eta Irizar, aste barruan, Bergaran; bertakoak dira hirurak. X.U.

GARAZI EROSTARBE MURIAS LIMOUSIN TALDEKO ZIKLISTA

"Sopela Women Team taldera noa, koska bat egingo dut gora"

Murias emakumezkoen taldetik babesle moduan desagertu egingo bada ere, Limousinek jarraitu egingo du babesle moduan, eta talde horren oinarria den Oriako Txirrindularitza Klubak gazte mailarainoko taldeak errepidean izango ditu. Baina amateur mailako taldea desagertu egingo da, eta horrek zuzenean eragingo dio oñatiarrari: "Penaz

LAU TXIRRINDULARIEK BIZIKLETA GAINEAN JARRAITUKO DUTE, NAHIZ ETA EUSKADI MURIAS DESAGERTU

BI ASTE GERATZEN ZAIZKIE ERREPIDEAN, TALDEARI MEREZI DUEN AGURRA EMAN GURA DIOTE

hartu dugu albistea. Abuztuan esan ziguten arazoak egon zitezkeela, eta berandu baino lehen talde bila hasteko. Zorionez, Sopelako taldeak fitxatu nau datorren urterako, eta, World Tourra baino koska bat beherago dagoen taldea denez, nazioartean lasterketak izango ditut".

XUBANE GARAI MURIAS LIMOUSIN TALDEKO ZIKLISTA

"Junior mailan Limousin-en babesletza izaten jarraituko dugu, baina igarriko da Muriasen hutsunea"

Xubane Garaik txikitatik bizi izan du, aita lanean ikusita, Euskadi Murias proiektua zelan joan den gauzatzen. Eta, normala den moduan, gazte aretxabaletarrak penaz hartu du albistea: "Ondo bideratuta zegoen proiektua zirudielako, nahiz eta bagenekien babesleen aldetik kili-kolo zegoea dena. Esperantza genuen, baina ez da posible izan".

Garaik, baina, ez du bizikleta gainean jarraitzeko arazorik izango: "Igarriko dugu Muriasen babesa falta zaigula, baina Oriako Txirrindulari Elkarteak aurrera egingo du harrobiko taldeekin,

eta datorren urtean bertan jarraituko dut. Aurtengoa urte gogorra izan da, junior mailara egokitu behar izan dudalako, ea datorren urtean, bigarren urtea izanda, hobeto ibiltzen garen".

JON RIVERO MASAJISTEN ARDURADUNA

"Beste talde batera banoa, hutsetik hasteko izango da, seguruenik, baina hori ez da arazo"

Jon Riverok amateur mailako ziklista izateari utzi eta garbi izan zuen txirrindularitzako saltsan jarraitu gura zuela. Masajista moduan hasi zen ordura arte zuzendari moduan izan zuen Odriozolaren ondoan, eta urte hauetan Euskadi Muriasen barruan ardurak hartzen joan da. Staff-eko gainontzeko kideak bezala, telebistan azaltzen ez diren baina talde batean ezinbestekoak diren langile horietako bat da bergararra: "Kolpea hartu dugu, albiste tristea da, urte askotako lana dagoelako atzean. Hala, txirrindulariekin gertatzen den moduan, gainontzekoak ere hasi gara lan bila, eta bakoitzak bere bidea egingo du. Batzuek utzi egingo dute txirrindularitza, beste batzuek talderen batera joateko aukera izango dute...".

Riverok, masajista lanetik harago, antolaketa arloan esperientzia hartu du: "Baina postu horietan zuzendarien konfiantzazko jendea egoten da, eta talderen batera joaten banaiz, seguruenik, hutsetik hasi beharko dut. Bueno, gazteak gara, hori ez da arazo".

IBAI AGURREURETA EUSKADI MURIASKO FISIOTERAPEUTA

"Arrasaten zentro propioa zabaldu dut, eta hor jarriko dut indarra"

Ibai Agirreurretak bi urte egin ditu Euskadi Muriasen, ogibidea eta bizikletarako duen zaletasuna bateratuta. Batez ere, masajista ibili da lanean, nahiz eta halako talde batean egin beharreko lanak ez duen amaierarik: anoa postuetan egon, txofer lanak egin... Espainiako Vueltan, baliabide gehiago zituztenez, fisioterapeuta lanetan ibili da. Horrekin batera, Arrasaten fisioterapeuta zentroa jartzeko pausoa eman du: "Nahiz eta, tarteka, gustura joango nintzatekeen lasterketetara lanera.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONA.

Mondra-Beti Gazte

Domeka. 16:30. Mojategi.

Eibar-Bergara

Zapatua. 17:45. unbe.

Zarautz-Aretxabaleta

Zapatua. 16:30. Asti.

ERREGIONAL PREFERE.

Ilintxa-Mondra

Zapatua. 17:00. Bikuña.

Danena-Antzuola

Zapatua. 16:00. Zizurkil.

Aretxabaleta-Aloña M.

Domeka. 16:15. Ibarra.

LEHEN ERREGIONALA

Aloña Mendi-Zestoa

Zapatua. 15:30. Azkoaga.

Aretxabaleta-Ikasberri

Domeka. 12:30. Ibarra.

Urki-Bergara

Zapatua. 15:30. Unbe.

OHOREZKO GAZTEAK

Bergara-Urola

Domeka. 12:00. Agorros.

Aloña Mendi-Tolosa

Zapatua. 12:00. Azkoaga.

Aretxabaleta-Elgoibar

Domeka. 18:15. Ibarra.

Mondra-Amaiak Bat

Domeka. 18:30. Mojategi.

EMAKUMEZKO SENIOR.

Ostadar-Leintz Arizm.

Zapatua. 15:30. Lasarte.

Lagun Onak-Bergara

Zapatua. 17:00. Azpeitia.

ARETO FUTBOLA

MAILA NAZIONALA

Eskoriatza-Santurtzi

Domeka. 18:00. M. Muño.

EUSKADIKO TXAPELKE.

Sestao-Mondrate

Domeka. 11:30. Sestao.

Jaixki-Aretxabal. UDA

Zapatua. 16:00. Lezo.

ESKUBALOA

EUSKADIKO TXAPELKE.

Ford Mugarri-Corazoni.

Domeka. 11:30. Iturripe.

Fagor Indus.-Gure Auz.

Atzeratua.

EUSK. TXAP. EMAKUM.

C.Ugarte Aloña-Ereint.

Atzeratua.

SASKIBALOA

MU-Megacalzado

Domeka. 18:30. Iturripe.

EUSKADIKO TXAPELKETA

Mekalki Aloña-Berrio

Zapatua. 18:00. Zubikoa.

Salleko-Aikide. Ointxe

Domeka. 12:30. Sestao.

GIP. SENIORRAK

SoraluceBKE-Erroibide

Zapatua. 18:00. Labegarai.

ERRUGBIA

EUSKADIKO TXAPELKE.

ART-Zarautz

Domeka. 12:00. Mojategi.

FUTBOLA Hiru taldeek badute zer zuzendu asteburuan

Ohorezko erregionaleko atzealdeko postuetan daude Mondra, Bergara eta Aretxabaleta. Liga hasi baino ez dute egin, baina atzetik aurrerako bidea egitea gogorra izaten da gero. Mondra da etxean jokatu duen bakarra –ikus goiko taula–. Maila bat beherago, berriz, Aretxabaletaren eta Aloña Mendiren arteko derbia izango da domekan.

ARETO FUTBOLA Etxeko zaleen aurrean lehena Eskoriatzak

Kategoria berrian, maila nazionalan, estreinaldi ezin hobea egin zuen joan den astean Eskoriatzak, Batzarrerren kantxan 3-4 irabazteko gauza izan ziren eta. Domekan, berriz, eskoriatzarrek etxeko zaleen babesa izango dute (domeka, 18:00); joan den astean 0-4 galdu zuen Santurtziren bisita izango dute Intxaurtxuetan.

ERRUGBIA Liga ondo hasi du ARTk; etzi, Zarautz dator

Jon den astean Iruñearen zelaian hasi zuen Arrasate Rugby Taldeak liga, eta denboraldiko lehen garaipena ekarri zuten zuri moreek (19-35). Hala, arrasatearrarekin batera Gaztedi da liga ondo hasi duen beste ordezkaria. Domekan, berriz, Barrutiaren mutilek Zarautz B izango dute aurrean (12:00); horiek galdu egin zuten La Unicaren kontra.

SASKIBALOA MUK EBako talde indartsu Ardoi hartuko du

Iazko liga txapeldun Ardoiren bisita izango du Mondragon Unibertsitateak domekan (18:30). Arrasatekoek Euskal Kopa irabazi berri dute, eta domekan lehertuta amaitu bazuten ere moralki bultzada handia jaso dute. Hasiera batean, aurrealdeko postuengatik borrokatuko direnen arteko partidua da domekakoa.

"Zinemaldia zorrotza eta ausarta da, aldi berean"

AITOR ARREGI ZINEMAGILEA

Moriartiko-ek maila ona eman dute oraingoan ere Zinemaldian, eta eskertuta daude, sei sari eta ikusleen txalo zaparrada eta zorion eta esker mezu ugari jasota

A. Aranburuzabala/ O. Elortza OÑATI

Moriarti ekoiztetxearen *La trinchera infinita* lanak sei sari eskuratu ditu Donostia Zinemaldian; horien artean, Zuzendari Onenaren Zilarrezko Maskorra, Gidoi Onenaren saria eta euskal ekoizpenak saritzen dituen Irizar saria. Urriaren 31n estreinatuko dute zinema aretoetan.

Ezeren aurretik, zorionak!

Eskerrik asko!

Sari garrantzitsuak jasotzeaz gainera, ikusleen partetik ere harrera ona izan duzue. Pozik egoteko moduan zaudete.

Gustura gaude, bai: Fipresci kritikarien saria jaso dugu, hori oso garrantzitsua da guretako; Feroz saria ere bai, kazetariena, eta gero, ikusten dugu kritikariek eta epaimahaikideek oso kontuan hartu dutela, baina, era berean, nabaritzen dugu jende asko etorri zaigula zoriontzera. Zentzu horretan, sentitzen dugu filma indartuta atera dela Zinemalditik; jaialdiak onerako zein txarrerako fokua jartzen du, eta gure filmaren kasuan ematen du asko gustatu dela.

Zinemaldian sariak jaso gura izaten da, noski, baina jendearen inpresioek zuegan eragina izango du, ezta?

Bai; hilabete barru, aretoetan estreinatuko dela kontuan har-



Aitor Arregi zinemagilea Oñatiko liburutegiko lorategian, martitzenean. DANI SANCHEZ

tuta, jendeak baloratuko du filma eta horren arabera gomen datuko du filma ikustera joatea edo ez...; hori oso garrantzitsua da guretako. Filma egiten ari zarenean azpitik duzun motorra da ea lortuko duen jendea transmititza; izan ere, helburu nagusia beti da hori, jendearengana heltzea.

Eta Zinemaldian sari horiek lortzeaz zer esan gura du, nazioartean oihartzun edo bide bera har dezaketela?

Bai; dagoeneko ari gara nabaritzen, atzerriko banatzaileen eskutik filma ikusteko gogoia eta

kanpoan estreinatzeko aukerarik dagoen aztertze, Frantzia, adibidez. Oso banatzaile potentek hurbildu zaizkigu; horregatik, duda barik, pelikularen prestigioarentzat oso garrantzitsuak dira sari horiek. Gidoiarena eta zuzendaritzarena biak batera emanda, bultzada osoa ematen dio lantaldeari.

Donostia Zinemaldia gertukoa dugu eta ahaztu egiten zaigu, akaso, daukan dimentsioa?

Hori da! Munduko laugarren jaialdia da, sekulako merkatua du atzean, industriako jende asko

etortzen da jaialdira, sail asko daude... Gertu dugu eta ez dugu baloratzen. Uste dut Zinemaldiak oso ondo egiten duen gauza bat dela ederto konbinatzen dituela, batetik, daukan Sail Ofizialean, Zinemiran zorrotasun maila, eta, bestetik, edo aldi berean, proiektu arriskatuagoi lekua egiten diete jendeak ikusi ahal izateko; eta, zentzu horretan, uste dut oso ondo asmatzen dutela. Gu ere Sail Ofizialean egon aurretik, Zinemiran eta Zabaltegin izan gara aurrez, eta sekulako bozgorailua da; hala ere, ez pentsa horietan aukeratzeko zorrotzak ez direnik, gipuzkoarrek izateagatik ez dugu erraztasun berezirik. Aurten Debagoienetik hiru zuzendari egon gara eta esperantza daukat gehiago ere izango direla. Oreak ezinezko hori lortzen dute; eta hor dago arrakasta, zortzi egunetan, milaka sarrerara salduta!

Zer diozu Debagoienaren eta Zinemaldiaren arteko loturari buruz?

Lehen aipatu dugun sarrera kopurutik asko eskualdetik joandakoenak ziren. Hemengo jende askok esan dit filma ikusi duela. Interes handia sortzen duen ekitaldia da, eta sarrera gehienak Gipuzkoan erosten dira. Bide batez, zoriondu nahiko nuke zuen lankide Imanol Gallego egiten duen lanagatik eta Goienari eskerrak eman Zinemaldiari egiten dion jarraipenagatik; uste dudalako nolabait bilatu duela Debagoiena Zinemaldiarekin lotzeko beta bat, batzuetan handiegiak diren ekitaldiak txikitasunetik begiratuta badirudi lortu ezinak direla; baina, askok esan didate zuen bideoak ikusi dituztela. Jarraitu holako kobertura ematen, ikusten ez diren gauza asko erakusteko.

Filma urriaren 31n estreinatuko da; horri begira zaudete orain?

Kanpoko eta barruko sariak

Epaimahai ofizialaren sariez gain, kritikarien Fipresci, kazetarien Feroz eta euskal ekoizpenen Irizar ere jaso zituzten.

Azken horretan, Aipamen Berezia egin zioten Iban del Camporen *Glittering Misfits* dokumentalari. —*Puntu*-n elkarrizketa—.

Hori da lehenengo pausoa, zinema areto komertzialetako estreinaldia; eta orain, promozio lanetan sartuko gara, nolabait, gure lana saltzen, eta hortik aurrera ikusiko da jendeak nola erantzuten duen, Zinemaldiak, beste behin, filmari bultzada eman diola uste dut.

Eta hortik aurrera baduzue pentsatuta nola jarraituko duzuen?

Ikusiko da. Aho txikiarekin diotsut, ez dakigu eta. Gure asmoa izango litzateke estreinatutako ondoren beste jaialdi batzuetara aurkeztu ahal izatea, Goya sariak ere hor daude... ikusiko da. Era berean, inguruan dauden filmek zer egiten duten ere eragiten dute gauzak modu batera edo bestera egitera... Ilusionatuta gaude. Egia da nekatuta bukatu dugula, baina oso pozik gaude izan dugun harrerarekin.

"AURREKO FILMEKIN JENDE ASKO, BAINA HONEKIN GEHIAGO GERTURATU ZAIGUN SENTSAZIOA DUT"

Edonon zaudela,
'Goiena Nahieran'



'APP'-A JAITSI

Goiena Nahieran app-a jaitsi eta ikus-entzunezkoak nahieran ikusi ahal izango dituzu.



goiena
Zu hemen zaude.



Organo Erromantikoaren doinuak berriz gozagarri

Bihar, zapatua, abiatuko dute Organo Erromantikoaren Nazioarteko Zikloa, eta, aurreko aldietan moduan, Bergaran, Azpeitian eta Azkoitian egingo dituzte emanaldiak; bederatzik kontzertu izango dira euskal eta atzerriko organo jotzaileen eskutik

Aitziber Aranburuzabala BERGARA Bergarako, Azpeitiko eta Azkoitiko udalek Fray Joseph de Echevarria organoaren adiskideen elkartearekin elkarlanean antolatzen dute ekimena eta hogeigarren aldian du bihar, zapatua, abiatuko denak.

"Organoa balorean jartzeko"

